

# XI. GERRIKO IKERLAN-BEKA

## Antolatzaileak:



GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA  
Kultur Elkarte



MAIZPIDE EUSKALTEGIA



LAZKAOKO UDALEKO  
KULTUR BATZORDEA

## Laguntzaileak:



Lazkao, 2006a

© Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte

Antolatzaileak:	<ul style="list-style-type: none"><li>• Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte Elosegi 16, 1.a esk. 20210-LAZKAO Telef. 943-16 02 82 gee@euskalnet.net</li><li>• Maizpide Euskaltegia Elosegi 40-bis Telef. 943-88 92 31 20210-LAZKAO</li><li>• Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea Euskadi Enparantza z/g 20210-LAZKAO Telef. 943-88 64 08</li></ul>
Koordinatzailea:	Mari Joxe Madariaga Irastortza.
Zuzendari Zientifikoa:	Joxemartin Apalategi Begiristain. Antropologo Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (EHU)
Euskara zuzentzailea:	Dionisio Amundarain.
Argitaratzaileak:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
Laguntzaileak:	Gipuzkoa-Donostia Kutxa eta Euskadiko Kutxa.
Egilea:	Maite Otegi Jauregi.
Logotipoaren egilea:	Amaia Galarraga Urteaga.
Inprimategia:	Lizarra inprimategia.
1. argitalpena:	2006ko otsailen. 700 ale.
I.S.B.N.:	84-934718-0-1 978-84-934718-0-4
L.G.:	NA. 294-2006

## JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esatenenez, argitarateko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Jose Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizal etxeko koadro bati ateratako argazkia.



## ANTOLATZAILEEN SARRERA: MILA ESKER ETA AGUR JOXEMARTIN

Gerriko Ikerlan Beka. Bi urtean behin deialdia egin, proiektuak jaso, epaitu, saritzeko bat aukeratu, ikerketa burutu eta argitaratu. Horixe da dena eta guztia. Erraz esan ditugu hemen denak! Hala balitz...

XI. edizioko deialdian bost proiektu jaso genituen:

- "Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegietakako ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa"
- "Amerikarako emigrazioa Gipuzkoako Goierriin (1839-1936)"
- "Nortasunak, hizkuntzak eta irudiak Globalizazio aroan: Goierriko gazteen nahiak eta adostasunak"
- "Beasaingo euskara"
- "Lazkaoko baserriak: aurreko, oraingo eta etorkizuneko egoera"

Proiektu horiek epaitzeko hiru epaimahaikide aukeratu genituen:

- Kike Amonarriz Gorria, Soziolinguista.
- Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, Ingeniaria, Hizkuntzalaria eta EHUko Irakasle Emeritua.
- Joseba Intxausti Rekondo, Historialaria.

Aho batez hartu zuten erabakia eta saritua izan zen proiektua ikerlan bihurtuta eta argitaratuta duzu eskuartean:

**"Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegietakako ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa"**. Egilea: Maite Otegi.

Goierriko eta Goierriara datozen euskara ikasleek emandako datuak aztertu ditu Maite Otegi ikertzaileak, datu horiek izan ditu bere ikerlanak oinarri. Dena dela, Euskal Herriko Euskaltegiek etekina aterako diote Maitek lortutako informazioari, beste eskualdeetan ere, nahiz eta egoera soziolinguistikoko desberdinak izan, motibazioaren inguruan errepikatuko diren arrazoiak izango baitira.

Euskara ikasteko motibazioa euskalduntze prozesuaren giltzarri da: bertan jaiotzen baina erdal familietan hazi eta hezitakoek, nahiz kanpotik etorriek gogo onez euskara ikastea garrantzitsua da.

Jose M<sup>a</sup> Sanchez Carrion, "Txepetxen" teorian ("Un futuro para nuestro pasado"; Donostia, 1991) motibazioaren ondoan agertzen diren kontzeptuak dira ezagutza eta erabilera. Motibazioa behar dugu 2. hizkuntza ikasteko eta motibazioa ikasitakoa erabiltzeko. Motibazioa ez da nahikoa, ordea, ez ikasten jarduteko, ez erabiltzeko. Beharrik sentitzen ez badugu, euskaraz hitz egin beharrik sentitzen ez badugu, euskararik gabe ondo baino hobeto bizi bagaitezke, nekez ekingo diogu euskara ikasteari.

Sakon eta zorrotz aztertu ditu motibazioaren inguruko aldagaiak Maite Otegi ikertzaileak eta egin duen lanagatik zorionak eman nahi dizkiogu. Zorionak eta eskerrik asko Gerriko Ikerlan Bekako liburuen bildumari hain gai interesgarria eta mamitsua eransteagatik.

Goierritarrok, euskaldunok eta euskaltzaleok oro, geure burua gehiago ezagutzeko eta euskalduntze prozesuan gure jarduna ondo bideratzeko informazio baliagarria dugu liburuan datorkiguna.

Epaimahaiko kideak eta Ikerlan Sariketa sortu genuenetik, Beka bihurtu dugun arte, edizio guztietan hutsik egin gabe, Zuzendari Zientifiko izan dugun Joxemartin Apalategi Begiristain, antropologo eta EHUKo irakaslea, Koordinatzaile lanetan ari den Mari Joxe Madariaga Irastortza, hizkuntza zuzentzaile dugun Dionisio Amundarain Sarasola eta hiru erakunde antolatzaileok talde-lanean aritu gara, bakoitza geure lanaz arduratuta.

Sarrera honetan aipatu beharra daukagu hil berri zaigula Joxemartin Apalategi Begiristain, antropologoa, EHUKo irakaslea eta Gerriko Ikerlan Bekako Zuzendari Zientifikoa. Sariketaren lehenengo edizioan, 1989an, epaimahaikide izan zen eta ondorengo guztietan bidelagun eta laguntzaile nekaezina izan dugu Joxemartin, 2006ko otsailaren 8an hil den arte. Zuzendaritza, gidaritza eta aholkularitza alorreko lanak egin ditu gurean eta hutsune handia utzi badigu ere, berari egin genezaiokeen omenik onena ikerlanak argitaratzea eta ikertzaileak laguntzea denez, berak erakutsitako bideari jarraipena emango diogu.

Maite Otegi ikertzailea, Kike Amonarriz, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegia" eta Joseba Intxausti epaimahaikideak, Joxemartin Apalategi Zuzendari Zientifikoa, Dionisio Amundarain hizkuntza zuzentzailea, Mari Joxe Madariaga koordinatzailea eta hiru erakunde antolatzaileok talde-lanean aritu gara, bakoitza geure lanaz arduratuta.

Aipatu dugun talde-lan horretan partaide diren erakunde batzuk ere izendatu nahi ditugu sarrera hau bukatzerako. Aipatu eta eskerrak eman, halaber, dirulaguntza eman digutenei, ezinbestekoa baita ikerlanen bilduma osatzerakoan: eskerrik asko Gipuzkoa-Donostia Kutxa Fundazioari eta Euskadiko Kutzari.

Bukatzeko, liburu hau Joxemartin Apalategi Begiristaini, antropologo, irakasle, Gerriko Ikerlan Bekako Zuzendari Zientifiko eta, batez ere, laguna izan dugunari eskaini nahi diogu.

Eta zuri, irakurle, on dagizula irakurketak!

**ANDONI SARRIEGI,**

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteko Lehendakaria.

**MARIAN BIDEAIN,**

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria.

**XABIER ARRASATE,**

Lazkaoko Udaleko Euskara Batzordeburua.

## EPAIMAHAIKOEN SARRERA

Lazkao erreferentzia gune garrantzitsua izan da eta da gaur egun ere, euskal kulturarentzat. Horren adibide, Beneditarren artxiboa —historia garaikidea aztertu nahi duen ororentzat, pausaleku liluragarri—, Maizpide, Euskal Herri guztian zehar hegaldatu diren hamaika euskaldun berriren habia eta hiztunen sorleku edo “*Gerriko Ikerlan Beka*” hau berau sustatzen duen Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.

Lazkaotik kanpo, bertako euskalgintzaren irudia, euskalduntze-alfabetatze mugimenduarekin lotuta ageri da.

Gerra ondorengo kontuetara mugatuta, “*Argitara beharrekoa: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea-ren historia Gipuzkoan*” liburuan irakur dezakegunez, 1964. urtean arbaso lazkaotarrak zituen Elbira Zipitria andereñoak zenbait saio eman zizkien monasterioko gazte batzuei beneditarren komentuan.

Ereindako lehen hazi haiek, ugari emango zituzten fruituak urte gutxitara. Andoni Sarriegik “*Alfabetatzearen hastapenak Goierrin*” liburuan dioenez, mugimendu hau, 1966-67. ikasturtean abiatu zen Lazkaon eta Goierrin, Rikardo Arregiren eta Jon Oñatibiaren bisiten ondoren.

1975. urtean, berriz, “Goiherriko Euskal eskola” (garai hartako *h* eta guzti) sortu zen eta hasieratik beretik erreferentzia-une garrantzitsu bihurtu zen, euskalduntze-alfabetatzearen mugimenduan. Ondoren Maizpide Euskaltegia izango zen bezala. Askotariko ekarpenak egin dizkio Lazkaok euskalduntze-alfabetatzeari: metodologian, testugintzan, azpiegituretan... eta profesionalak sortuz.

Zerbaitegatik jaso zuen Dionisio Amundarainek Anton Abbadia saria 2001. urtean! Gipuzkoako Foru Aldundiak egun hartarako argitaratu zuen biorrikoak ongi laburtzen du zer izan den Lazkao urte hauetan guztietan: “*Goierritarrak, eta lazkaotarrak bereziki, euskaldun berrien adiskide, laguntzaile eta sendiko bihurtu ditu Dionisiok: familia gehienetan hartu izan dute, noiz edo behin, mintza praktikarako ikaslerik... Zenbait garaitan, herri osoa euskaltegi bihurtuta ezagutu izan da Lazkao.*”

Militantismoz, borondatez eta ia baliabiderik eta ezagupenik gabe hasitako euskalduntze-alfabetatzearen bidea, profesionalizatzen eta egonkortzen joan da. Bide zail eta luzea izan da, hala ere, ordeka gutxi ezagutu dituen. Ilusioz, kezka, eztabaidaz, ekimenez, liskarrez eta ekarpenez gainezka egiten du euskalduntze-alfabetatzearen historiak.

Euskalduntze-alfabetatzearena, ordea, hizkuntza normalizazio prozesuaren ardatz estrategikoetako bat da. Eta eragin sozial handikoa. Ba ote da Europa osoan, pertsonako horrenbeste ikasketa-ordu bildu duen helduen hezkuntza mugimendurik?

Horregatik guztiagatik interes handiz hartu genuen XI. Gerriko Ikerlan-Bekaren epai-mahaikideok Maite Otegik aurkeztutako *“Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegiatiko ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa”* proiektua.

Ez zen aukeraketa erraza izan, interes handiko proiektuak bildu zirelako mahaiaren bueltan. Bakarra aukeratu behar ordea eta besteen artean honako hau lehenetsi zen: gaia ongi zentratuta aurkeztu zen, oinarri teorikoak ongi adierazita eta, era berean, metodologiaz ere zertzelada garbiak eman izana nabarmendu genuen. Baita, Goierriko euskalduntze prozesuan izan zezakeen eragin praktikoa eta erabilgarritasuna ere.

Ikerketa honetan jarriak genituen itzaropenak aise gainditu ditu Maite Otegi ikerlariak. Lan bikaina, zabala eta sakona burutu du. Goierriko mugak gainditzen ditu eta euskararen normalizazioan, eta, zer esanik ez, euskalduntze-alfabetatzean interesaturik dagoen ororentzat, ezinbestean irakurri beharreko liburua da.

Hiru zati ongi bereziak biltzen ditu:

a) Sarrera teorikoa, motibazio teorien, jarrerren eta bigarren hizkuntzaren eskurapenaren arloaren inguruko teorien inguruan. Gai hauei buruz azken urteotan argitaratu den bibliografiarik interesgarrienaren berri ere ematen du.

b) Ikerketa bera. Lanean hasterako, Otegik hipotesi batzuen zerrenda osatu zuen. Ikerketa, hipotesi horien inguruan eratu du, batzuk baieztatuz eta beste batzuk ezeztatuz (eta hauen artean, badira ezustean irakurri ditugunak).

Erabili duen lagina oso zabala izan da: Beasaingo Udal Euskaltegiko, Goiztiri-AEK-ko eta Maizpide Euskaltegi-Barnetegiko 251 ikasleren erantzunak jaso ditu eta hainbat elkarrizketa ere burutu du. Ukitu eta aztertu diren gaiak berebiziko interesa dute euskalgintzaz arduratzen den edozeinentzat: ikas-prozesuari, taldeko giroari eta irakasleei nahiz baliabideei buruzko iritziak, hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak, ikastearen kostu psikologikoa, akatsak egiteko beldurra, identitatea, jarrerak, euskararen balio orokorra, euskara ikasteko motibo nagusiak...

c) Ondorioak eta proposamenak. Ondorioekin batera, aurrera begirako motibazio-estrategiak landu eta hobetzeko pista interesgarriak aurkezten ditu egileak liburua-aren amaieran.

Orain arte, euskararekiko motibazioaz asko hitz egin bada ere, gaia oso gutxi ikertu da. Horregatik, espero dezagun, Maite Otegik burutu duen lan zabal eta sakon honek merezi duen oihartzuna jasotzea, aurkezten dituen ondorio eta proposamenen bidetik eragina izatea eta zabaldu duen ikerketa bideak jarraipena izatea.

Zorionik beroenak berari eta ikerketa hau burutzea posible egin duten guztiei.

Kike Amonarriz Gorria

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia

Joseba Intxausti Rekondo



# **zergatik euskaraz**

**goierriko euskaltegietako ikasleen motibazioak**

**IKERKETA PSIKOSOZIOLINGUISTIKOA**

**Maite Otegi Jauregi**

*Gure amari eskainia,  
motibatzaile bikaina izan baita*



## AURKIBIDEA

<b>ESKER ONA</b> .....	17
<b>SARRERA</b> .....	19
<b>I. IKERLANAREN OINARRI TEORIKOAK</b> .....	21
1.1. Motibazio teoriak.....	21
1.1.1. Aniztasun teorikoa.....	22
1.1.2. Motibazio teoriaren aplikazioa bigarren hizkuntza eskuratzeko orduak .....	24
1.1.2.1. Planteamendu psikologiko soziala .....	24
1.1.2.2. 1990eko hamarkadako planteamendu berriak.....	26
1.2. Nortasun sozio-kulturalaren oinarriak: identitatea, kulturazioa eta sare soziala.....	30
1.2.1. Identitatea .....	30
1.2.2. Kulturazioa .....	31
1.2.3. Sare soziala .....	32
1.3. Jarrerak .....	32
1.4. Hizkuntzaren inguruko irudipen eta portaerak: bizitasun etnolinguistikoa, ukipen egoeran dauden hizkuntzen erabilera eta egokitzen linguistikoa .....	33
1.4.1. Bizitasun etnolinguistikoaren teoria .....	33
1.4.2. Ukipen egoeran dauden hizkuntzen erabilera-maila .....	34
1.4.3. Egokitzen linguistikoaren teoria .....	35
<b>II. IKERKETAREN DISEINUA</b> .....	37
2.1. Helburuak .....	37
2.2. Hipotesiak .....	37
2.3. Metodologia .....	40
2.3.1. Azterketa kuantitatiboa.....	40
2.3.1.1. Lagina .....	40
2.3.1.2. Neurribideak .....	40
2.3.1.2.1. Aldagai demolinguistikoak.....	40

2.3.1.2.2.	Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak .....	42
2.3.1.2.3.	Aldagai psikologikoak.....	42
2.3.1.2.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak .....	43
2.3.1.3.	Prozedura .....	48
2.3.2.	Azterketa kualitatiboa.....	48
<b>III.</b>	<b>AZTERKETA KUANTITATIBOAREN EMAITZAK.....</b>	<b>49</b>
3.1.	Aldagai demolinguistikoen deskribapena .....	49
3.1.1.	Sexua .....	49
3.1.2.	Adina .....	50
3.1.3.	Jaiolekua .....	50
3.1.4.	Bizilekua.....	51
3.1.5.	Euskararen ezagutza maila .....	52
3.1.6.	Hautzaroko hizkuntza.....	53
3.1.7.	Ikasketetan jarraitutako hizkuntza eredu .....	54
3.2.	Ikas-prozesuari dagozkion aldagaien deskribapena .....	56
3.2.1.	Euskara maila, euskaltegian ikasteari ekitean .....	56
3.2.2.	Adina, euskaltegian ikasteari ekitean .....	57
3.2.3.	Euskaltegian ikasten jarduniko denbora .....	57
3.2.4.	Euskaltegian aurreratutako urratsak .....	58
3.2.5.	Ikas-prozesuaren erritmoa .....	58
3.2.6.	Ikasketen jarraitutasuna .....	59
3.2.7.	Ikastaroaren balorazioa.....	60
3.2.8.	Taldeko giroa .....	62
3.2.9.	Irakasleei buruzko balorazioa .....	62
3.2.10.	Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak.....	66
3.3.	Aldagai psikologikoen deskribapena.....	68
3.3.1.	Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna .....	68
3.3.2.	Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak.....	70
3.3.3.	Lortzeko igurikapena .....	72
3.3.4.	Autodeterminazio maila .....	73
3.3.5.	Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra .....	74
3.3.6.	Ikastearen kostu psikologikoa .....	75
3.3.7.	Emaitzen balorazioa .....	77
3.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoen deskribapena .....	78
3.4.1.	Identitatea .....	78
3.4.2.	Euskararekiko eta euskaldunekiko jarrerak.....	81
3.4.3.	Sare sozialean hautemaniko erabilera .....	82
3.4.4.	Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna .....	85
3.4.5.	Euskalduntzat hartzeko baldintza linguistikoei emandako .....	103
3.4.6.	Euskararen balioa gizartean: balio sinbolikoa eta balio praktikoa .....	104
3.4.7.	Motibazioaren orientazio nagusia .....	105
3.4.8.	Euskara ikasteak norberarentzat duen balio integratzaile eta instrumentala.....	107

3.4.9.	Lorturiko ondorioen orientazioa.....	108
3.4.10.	Motibazio-maila.....	108
3.4.11.	Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea.....	109
3.4.12.	Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak .....	111
3.4.13.	Euskararekiko leialtasuna.....	113
3.4.14.	Erdaldunen aurrean euskaraz hitz egiteko eskubidea duelako ustea .....	117
3.5.	Eragile integratzaileak gainerako aldagaiekin dituen erlazioak	117
3.5.1.	Aldagai demolinguistikoak eta eragile integratzailea .....	117
3.5.2.	Euskararen ikas-prozesua eta eragile integratzailea.....	118
3.5.3.	Aldagai psikologikoak eta eragile integratzailea .....	119
3.5.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak eta eragile integratzailea .....	120
3.6.	Eragile instrumentalak gainerako aldagaiekin dituen erlazioak	122
3.6.1.	Aldagai demolinguistikoak eta eragile instrumentala .....	122
3.6.2.	Euskararen ikas-prozesua eta eragile instrumentala.....	122
3.6.3.	Aldagai psikologikoak eta eragile instrumentala .....	123
3.6.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak eta eragile instrumentala.....	124
3.7.	Lortzeko igurikapenak gainerako aldagaiekin dituen erlazioak	126
3.7.1.	Aldagai demolinguistikoak eta lortzeko igurikapena.....	126
3.7.2.	Ikas-prozesua eta lortzeko igurikapena .....	126
3.7.3.	Aldagai psikologikoak eta lortzeko igurikapena.....	127
3.7.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak eta lortzeko igurikapena.....	128
3.8.	Motibazio-mailak gainerako aldagaiekin dituen erlazioak .....	130
3.8.1.	Aldagai demolinguistikoak eta motibazio-maila.....	130
3.8.2.	Ikas-prozesua eta motibazio-maila .....	130
3.8.3.	Aldagai psikologikoak eta motibazio-maila.....	131
3.8.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak eta motibazio-maila .....	132
3.9.	Euskararako gaitasunak gainerako aldagaiekin dituen erlazioak	134
3.9.1.	Aldagai demolinguistikoak eta euskararako gaitasuna .....	134
3.9.2.	Ikas-prozesua eta euskararako gaitasuna.....	135
3.9.3.	Aldagai psikologikoak eta euskararako gaitasuna .....	136
3.9.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak eta euskararako gaitasuna .....	137
3.10.	Norberaren emaitzen balorazioak gainerako aldagaiekin dituen erlazioak.....	138
3.10.1.	Aldagai demolinguistikoak eta norberaren emaitzen balorazioa	138
3.10.2.	Ikas-prozesua eta norberaren emaitzen balorazioa.....	139
3.10.3.	Aldagai psikologikoak eta norberaren emaitzen balorazioa .....	140
3.10.4.	Aldagai psikosoziolinguistikoak eta norberaren emaitzen balorazioa.....	141

#### **IV. AZTERKETA KUALITATIBOAREN EMAITZAK.....** 143

4.1.	Ikasteko arrazoiak.....	143
4.2.	Ikas-prozesua .....	147
4.3.	Erabilera.....	150
4.4.	Euskararekiko jarrerak.....	153

<b>V. ONDORIOAK</b> .....	155
5.1. Hipotesiei buruzko ondorioak .....	155
5.2. Ikasitakoa erabiltzeko zailtasuna eta oztopoak .....	163
5.3. Etorkizunari begira .....	164
5.3.1. Euskararen irakaskuntza motibatzailea sustatzeko aholkuak....	167
5.3.2. Etorkizunerako ikerketa ildoak eta gogoeta bideak .....	171
I. eranskina: Goierriko euskaltegiak .....	173
II. eranskina: erabilitako galde-sorta .....	177
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	187

## ESKER ONA

Eskerrak eman nahi dizkiet ikerlan hau egiten lagundu didaten guztiei. Bereziki eskertzen ditut Jose Valencia irakasleak emandako aholkuak, baita antolatzaile eta epaimahaikoek egindako gomendio eta iradokizunak, laguntza itzela eman didatelako hasierako nire proiektua osatzen eta gauzatzen. Eskerrik beroenak Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi", Kike Amonarriz eta Joseba Intxaustik osatutako epaimahaiari, eta mila esker antolatzaile lanetan diharduten Andoni Sarriegi, Dionisio Amundarain, Joxemartin Apalategi, Marian Bidegain, Xabier Arrasate eta Mari Joxe Madariagari.

Euskaltegietan jaso dudana laguntza ere eskertu nahi dut, Maizpideko Marian Bidegain, Goiztiri AEK Euskaltegiko Aitor Calvillo eta Beasaingo Udala Euskaltegiko Gurutze Sukiak emandako laguntzari esker burutu baita ikerlan honetarako erabili ditudan datuen bilketa. Eskerrak baita ere eztabaida-taldeetan parte hartu duten ikasle eta irakasleei, eta galde-sortei erantzuteko pazientzia izan duten ikasle guztiei.





## SARRERA

Euskararen erabilera hedatzeko hiru bide teoriko aipatzen ditu Txillardegik bere eredu matematikoan: elebidunen euskararekiko leialtasuna handitzea, anisotropia gehitzea (euskaldunek euskaldunekiko harreman sozialak gehitzea eta erdaldunek erdaldunekikoak) edota elebidunen kopurua handitzea (Alvarez Enparantza, 2001). Hiru bide hauetatik bat aukeratzekotan hirugarrena iruditzen zait sozialki desiragarriena, elebidunen kopurua handituz euskarak duen oztupo itzel bati aurre egiten baitzaio, egungo euskararen erabilera baldintzatzen duten muga matematikoak gaindituz. Jakina da euskalduntzen direnek euskara erabiltzeko ahalmena eskuratzten dutela, eta hori garrantzitsua da, baina honetaz gain baloratu behar da euskara ikasten dutenek euren inguruko euskaldunei ere euskara erabiltzeko aukera ematen dietela aldi berean. Izan ere, erdaldunek erdara ezartzen dute euren inguruan, eta elebidunen kopurua handitzen den heinean inposizio hori desegiteko urratsak ematen dira.

Euskararen ezagutzak bilakaera positiboa izan du azken hamarkadetan Hego Euskal Herri osoan, gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan, eta bereziki Gipuzkoan. Gazteen artean handitu da batez ere euskaldunen kopurua, batik bat eskolaren eraginaz, baina baita helduen euskalduntzearen bidez ere.

euskararen irakaskuntzan emandako lehen urratsak gerra aurrekoak dira:

*"...1936ko maiatzean, Euskal Gramatikazko klaseak eman zizkien lehen aldiz orduko Beasaingo Batzokian On Pedro Mari Usabiaga apaiz mutrikuarak lauzpabost euskalduni." (Sarriegi Eskisabel, 1999:16)*

Ordutik hona lan ugari egin da Goierriin, eta gaur egun hiru euskaltegiak –Maizpide, Goiztiri AEK eta Beasaingo Udal Euskaltegia– eta hainbat udalek antolaturiko taldeak dira helduen euskalduntze-alfabetatzearen ardura dutenak. Goierritar askok ikasi dute euskara euskaltegi hauetan, eta kanpotarrek ere bai, Euskal Herriko beste lurraldeetako nahiz atzerriko ikasleak baitituzte Maizpide Barnetegian.

Euskalduntze prozesu honen emaitzei begira, euskaldun berriak Goierriko biztanlegoaren %12 osatzen dute jadanik, eta erdizka euskaldundu direnak beste %9 dira (Eustat, 2001). Bada zerbait, baina ondorengo urteetan prozesu horri jarraipena eman nahi bazaio, euskara ikasten ari direnen (eta oraindik ikasten ari ez direnen) motibazioak aztertu eta lantzea baliagarria izan daiteke etorkizuneko emaitzak hobetzeko, eta horretan laguntzea da, hain zuzen ere, ikerlan honen azken xedea.

# I. IKERLANAREN OINARRI TEORIKOAK

Bigarren hizkuntzaren jabeakuntza aldagai sozial eta psikologikoekin zerikusia duen fenomeno konplexua da. Diziplina ezberdinetako ikertzaile askok aztertu du prozesu hau, eta eredu ugari proposatu dituzte bigarren hizkuntzaren jabeakuntza azaltzeko. Ereduak ezberdinak izanik ere, hauetariko askok elementu mankomunak dituzte, eta garrantzitsuenetako bat motibazioa da.

Ikertzaileen arabera, bigarren hizkuntzaren jabeakuntza-prozesuaren gakoa motibazioan datza: “gehien-gehienetan motibazio nahikoa daukaten ikasleek bigarren hizkuntzaren ezagutza praktikoa lor dezakete, hizkuntzetarako duten gaitasuna eta bestelako ezaugarri kognitiboak edozelakoak direla ere. Motibazio nahikoa izan ezean, ordea, ikaslerik bikainenek ere ez diote eutsiko ikasteari, benetan balioko dien hizkuntzaren ezagutza lortzeko bezain luze.” (Dörnyei, 2003:13).

Motibazioa prozesu konplexua da, eta prozesu hori azaltzen duten teoria nagusiak biltzen dira atal honetan. Motibazio teoria ezberdinen aipamenaz gain, nor-tasun sozio-kulturala, jarrerak eta hizkuntzarekin zerikusia duten portaera eta irudipenei buruzko azalpenak ere baliagarriak izango dira, bigarren hizkuntza ikasteko motibazioan eragiten duten giltzarritzko aldagaien berri ematen baitute.

## 1.1. MOTIBAZIO TEORIAK

“Motibazioa” kontzeptu abstraktu eta hipotetikoa da, hizkuntza arruntan ere gero eta sarriago erabiltzen dena, eta ia edozer gauza azaltzeko balio ohi duena. Motibazioa, azken batean, portaeraren giltzarria da, eta pertsonak desiratzen duenarekin, hots, funtzio konatiboarekin zerikusia du, motibazioa ideiak eta emozioak *desio* bilakatzen dituen prozesua baita, eta haren azken ondorioa ekintza da.

Motibazioak gizakien portaera determinatzen du, eta motibazio teoriaren helburua prozesu hori nola gertatzen den argitzea da. Gaur egungo motibazioaren psikologian planteamendu kognitiboa da nagusi. Ikuskera honetan, gizabanakoa aktore helburuduna da, xede batzuei begira dago, etengabe ari da bere kalkuluak egiten, eta

erabakiak hartzen. Motibazioaren eragilerik garrantzitsuenen artean aipagarriak dira subjektuak ekintzaren balioaz dituen usteak, bere gaitasunaz egiten duen ebaluazioa (hots, ea bere ustez erronka horren aurrean neurria emango duen ala ez), inguruko jende eta erakundeetatik jaso lezakeen laguntza (ea bere ustez nahikoa izango den)... Kontuan hartu behar da giza portaeran eragina izan lezaketen faktoreen kopurua handia dela, eta kognizioari loturiko elementuez gain, bestelako aldagaiak ere (esate baterako, emozioei loturikoek) zerikusia dutela, planteamendu kognitibo moderatuak azaltzen duen ikuskeraren arabera.

### **1.1.1. ANIZTASUN TEORIKOA**

Gizakion jokaeran eragin lezaketan aldagaiak hainbeste direnez, motibazioaren psikologoak faktore giltzarrizkoen kopuru txiki bat identifikatzen ahalegindu dira, eta adituak motibazioan eragiten duten aldagai nagusi horiek identifikatzen saiatzen diren heinean lehian dauden teoria ugari sortzen dira.

### Motibazio teoria orokorrak

TEORIA	FUNTSEZKO OSAGAIK	TEORIAREN OINARRIAK
<b>Lorpenen motibazio teoria</b> Atkinson eta Raynor (1974)	Lortzeko igurikapena. Balio pizgarriak. Lorpenen premia. Huts egitearen beldurra.	Elkarrekin gatazkan dauden bi joeren arteko lehia sortzen da. Positiboki eragiten dute arrakastarako antzemandako probabilitateak, ataza arrakastaz betetzearen balio pizgarriak eta lorpenen premiak. Eragin negatiboa dute huts egitearen beldurra, huts egitea saihestearen pizgarriak eta huts egiteko probabilitateak.
<b>Igurikapen eta balioen teoria</b> Eccles eta Wigfield (1995) Brophy (1999)	Lortzeko igurikapena. Ataza arrakastaz burutzeari atxikitako balioa.	Atazei ekiteko motibazioa giltzarriko bi faktoreen emaitza da: pertsonak ataza hori arrakastaz burutzeko duen itxaropena, eta pertsona horrek ataza jakin hori arrakastaz betetzeari atxikitzen dion balioa. Zenbat eta handiagoak izan lortzeko igurikapena eta xedeari emandako balioa, orduan eta motibazio positibo handiagoa izango du pertsonak.
<b>Egozpen-teoria</b> Weiner (1992)	Iraganeko arrakasta eta huts egiteei buruzko egozpenak.	Norberak bere iraganeko arrakasta eta huts egiteak esplikatzeko emandako azalpenek eragina dute pertsona horrek etorkizunean beste ekintza batzuei ekiteko eta eusteko motibazioan. Huts egitea norberaren gaitasun eskasari egozten bazaio, etorkizuneko errendimendu-portaera gehiago trabatzen da; ahalegin txikiegia iragaztutako huts egiteak, aldiz, ez du hainbeste eragotzen etorkizuneko portaera, hurrengoan gehiago saiatzea norberaren esku geratzen baita.
<b>Norberaren eraginkortasunaren teoria</b> Bandura (1993, 1997)	Norberaren eraginkortasunari buruzko ustea.	Pertsona batek bere ustez ataza jakin batzuk burutzeko dituen ahalmenen arabera erabakiko du zein zeregin ekingo dion, zenbaterako ahalegina egingo duen eta zenbat denboran saiatuko den.
<b>Norberaren balioaren teoria</b> Covington (1998)	Norberaren balioari buruzko ustea.	Pertsonak oso motibatuta egoten dira euren balio eta merezimenduen sentimendua areagotuko dieten moduetan jokatzeko. Sentimendu horiek arriskuan daudenean, beroriek babesten ahalegintzen dira, norberaren balioari buruzko usteak mantentzea ahalbidetuko duten jokabide-egiturak antolatuz.
<b>Helburuak ezartzearen teoria</b> Locke eta Lathman (1990, 1994)	Helburuen ezaugarriak: zehaztasuna, zailtasuna eta konpromisoa.	Xedeek eragiten dituzte gizakien ekintzak, eta ekintza bat gertatuko bada pertsonak helburuak ezarri behar izaten dituzte eta beroriek lortzen saiatu. Helburuak zehatzak eta zailak direnean (arrazoizko mugen barruan) pertsonak gehiago saiatzen dira, baldin eta xedearekiko konpromisoa badute.
<b>Helburu-motaren teoria</b> Ames (1992)	Edukiak menderatzeko helburuak eta performantzia helburuak.	Edukiak menderatzeko helburuak (ikasteari begira daudenak) hobeak dira performantzia helburuak (trebezia erakustea, nota onak lortzea...) baino. Edukiak menderatzeko helburuek dakartzate eronka den lanerako preferentzia, ikas-jarduerari buruzko berezko interesa eta ikasteko jarrera positiboak.
<b>Burujabetzaren teoria</b> Deci eta Ryan (1985) Vallerand (1997) Noels, Pelletier, Clément eta Vallerand (2000)	Motibazio eragileak continuum batean kokatuak, barruko motibazioaren eta kontrolatutako (kanpoko) motibazioen artean.	Motibazio intrintsekoen eta estrintsekoen arteko dikotomia gainditzeko saialdia. Barneko motibazioaz gain, beste lau motibazio mota bereizten dira, continuum batean kokaturik: kanpotik ezarritakoa, barneratua, identifikatua eta integratua (norberaren balore eta beharrekin gutziz bat datorrena).
<b>Motibazio sozialaren teoria</b> Weiner (1994) Wentzel (1999)	Ingurunearen eraginak.	Gizakien jokaeran eragiten duten motibazioetarako asko ingurune soziokulturaletik sortzen dira, eta ez gizabanakoagandik.
<b>Ekintza arazoituaren teoria</b> Ajzen eta Fishbein (1980)	Intentzioa eta portaera. Jarrerak. Arau subjektiboak. <i>Arau Modal Gorena.</i>	Jokabidea intentzioak mugatzen du, eta intentzian jarrerak eta arau subjektiboek eragiten dute. Jarreraren onarriak bi dira: jokabideak ondorio jakin batzuk izango dituela uste izatea, eta ondorio horietaz egiten den ebaluaketa. Arau subjektiboak bi ardatzen inguruan egituratzen da: besteen igurikapenei buruzko usteak eta besteen onspena norberak zenbateraino ebaluatzen duen. Usteen jatorria soziala da: ekintza desberdinek dituzten ondorioei buruzko usteak talde sozialak partekatzen ditu, eta bada portaera gidatzen duen <i>Arau Modal Gorena</i> ere.
<b>Ekintza planifikatuaren teoria</b> Ajzen eta Madden (1986) Ajzen (1988)	<i>Ekintza arazoituaren teoriaren</i> egokitzapena, beste aldagai bat erantsiz: hautemandako kontrola	Jarrerak, arau subjektiboek (pertsonak antzematen dituen presio sozialek) eta portaera kontrolatzeari buruzko usteek (pertsona batek portaera jakin bat izateko bere ustez dituen erraztasun edo zailtasunak) jokabidea egituratzen dute.

### **1.1.2. MOTIBAZIO TEORIEN APLIKAZIOA BIGARREN HIZKUNTZA ESKURATZEKO ORDUAN**

Motibazioaren teoria guztiek zentzudunak dira, baina bakoitza aldagai zehatz batzuetan oinarritzen da, gainerakoei erreparatu gabe. Bigarren hizkuntza eskuratzekoan ikasleek jokatzeko duten moduan zergatik jokatzeko, teoria hauetako bakoitzak ikuspegi mugatua eskaintzen du, eta prozesuaren konplexutasuna kontuan hartuz, ikuspegi anitz aintzat hartzea komenigarria izan daiteke. Ildo horri heldu diote gaur egun bigarren hizkuntza eskuratzearen alorrean nagusitu diren planteamenduek, eta prozesuaren nondik norakoak azaltzeko aldagai anitzen eragina jasotzen duten konstruktoak erabiltzen dira.

#### **1.1.2.1. PLANTEAMENDU PSIKOLOGIKO SOZIALA**

Hizkuntza bat ikastea prozesu soziala da, eta bigarren hizkuntzaren kulturako elementu ugari bereganatzea eskatzen du. Hau kontuan hartuz egiten dira bigarren hizkuntza ikasteko motibazioaz burututako lehen ikerketak. 1960ko hamarkadan ekin zitzaion ikerbide honi, eta batez ere Kanadan garatu zen. Wallace Lambert, Robert Gardner eta Richard Clément dira ikertzailearik aipagarrienak.


Planteamendu psikologiko sozialaren funtsezko postulatuetakoa bat hau da: Bigarren hizkuntzako komunitateari buruzko jarrerak eragin handia dutela bigarren hizkuntzaz jabetzeko orduan. Jarrera positiboek bigarren hizkuntza ikastera bultzatzen dute, eta jarrera negatiboek ikasketa oztopatzen dute.

Gainera, teoria honen arabera, hizkuntza ikasleak helburuei dagokienez bi multzo nagusietan bana daitezke:

- Joera integratzailea dutenak: Ikasle hauek jarrera positiboa dute bigarren hizkuntzako taldearenganako. Komunitate horretako kideak baloratzen dituzte, beraiekiko harremanak izatea (edo harreman hauetan sakontzea) dute helburu, talde horretako kideen antzeko bihurtzea gogoko dute, eta azken batean komunitate horretako partaide izan nahi dute.
- Joera instrumentala dutenak. Ikasle hauentzat bigarren hizkuntza ikastea lotua dago hizkuntzaren gaitasuna lortzeak ekarri ditzakeen etekin pragmatikoeekin, esate baterako lanpostu hobea lortzeko edo ikasketak burutu ahal izateko.

Psikologo sozialek bigarren hizkuntza eskuratzeari egindako ekarpenen artean Gardner-en teoriak izan du eraginik handiena, eta bereziki aipagarria da ikertzaile honen motibazio integratzailearen kontzeptua. Osagai anitz biltzen dituen konstrukto konplexua da: integratzailetasuna, ikas-egoerari buruzko jarrerak (prozesuaren ebaluazioa), bigarren hizkuntza ikasteko gogoia, motibazioaren intentsitatea, eta bigarren hizkuntza ikasteari buruzko jarreraren arteko erlazioak planteatzen ditu.

*Motibazio integratzailea, Gardner-en kontzeptualizazioaren arabera*



Richard Clément-ek, Gardner-en motibazioaren ereduari ekarpen garrantzitsua egin dio: *norberaren ziurtasun linguistikoaren* kontzeptua (Clément, 1980; Clément, Dörnyei eta Noels, 1994). Egungo ikerketa psikologikoaren korrante nagusiek nor bere eraginkortasunaz jabetzeari ematen dioten garrantzia ikusirik, Clément eta bere lankideen ekarpena kontuan hartzekoa da.

Planteamendu psikologiko sozialak jarraitzaile asko izan ditu, eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren ikerbide eragingarrietakoa da. Azken urteetan beste teoria berritzaileak agertu diren arren, oraindik ere oso kontuan izan beharrekoa da korrante hau.

### 1.1.2.2. 1990EKO HAMARKADAKO PLANTEAMENDU BERRIAK

XX. mendeko azken hamarkadan, hainbat ikertzailek hezkuntzaren psikologian oro har erabiltzen diren motibazioaren teoriak eta bigarren hizkuntzaren arloko motibazioaren teoriak uztartzeko ahalegina egiten dute. Alderdi soziokulturalaren garrantzia ez da inolaz ere zalantzan jartzen, baina, alderdi sozialari horrenbeste erreparaturik, motibazioaren beste alderdi batzuei zor zaien baino arreta gutxiago eman zaiela aldarrikatu dute ikertzaile askok. Egoera bideratzeko asmoz, bigarren hizkuntzaren arloko motibazioaren konstruktio berri eta zabalago batzuk proposatu dituzte, osagai zahar eta berrien nolabaiteko sintesia eginez.

Planteamendu berrien artean, Dörnyei-ren ekarpena aipagarria da. Haren planteamendua (Dörnyei, 1994) eta Ottó-rekin batera proposaturiko prozesuzko ereduak (Dörnyei eta Ottó, 1998) 90eko hamarkadako berrikuntzaren adierazle argiak dira.

#### *Dörnyei-ren planteamendua*

Zoltán Dörnyei-ren planteamenduak hiru mailatan kontzeptualizatzen du bigarren hizkuntza ikasteko motibazioa (Dörnyei, 1994):

- *Hizkuntzaren maila*. Bigarren hizkuntzarekin zerikusia duten hainbat osagai biltzen ditu: kultura eta komunitatea, hizkuntzari loturiko onurak, eta baita balio intelektual eta pragmatikoak ere. Maila honetan kokatzen dira joera integratzailearekin eta joera instrumentalarekin zerikusia duten bigarren hizkuntza ikasteko motibazio-elementu tradizionalak.
- *Ikaslearen maila*. Ikasleak ikas-prozesura daramatzan ezaugarri indibidualak biltzen ditu: bakoitzak duen lorpenen beharra, eta bereziki *norberaganako konfiantza*, ondorengo aldagaiak neurtzen direlarik: hizkuntza erabiltzeak eragindako antsietatea, bakoitzak bigarren hizkuntzako bere gaitasunaz dituen usteak, kausa egozpenak (aurreko esperientzien arrakasta edo porrotaren arrazoiak baloratzean) eta norberaren eraginkortasuna.
- *Ikas-egoeraren maila*. Bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan eragiten duten motibazio osagai desberdinak:
  - a) Ikastaro bakoitzeko motibazio osagaiak: ikastaroak duen interesa, ikastaroak norberaren beharretarako duen pertinentzia, arrakastarako itxaropenak eta norberaren emaitzekiko poztasuna.
  - b) Irakasle bakoitzari lotutako motibazio osagaiak: afiliazio motibazioa (irakaslea pozik edukitzea), irakaslearen agintzeko modua (kontrolatzen du ala autonomia bultzatzen du?) eta motibazioaren sozializazio zuzena (ereduak ematean, atazak aurkezteko moduan, feedback-ean).
  - c) Talde bakoitzari lotutako motibazio osagaiak: helburuei begira edo ez, arau eta sarien sistema, taldearen batasuna, taldeen egitura helburuei dagokienez (lan-kidetzakoa, lehiakorra edo indibidualista).



*Ikasteko motibazioa bigarren hizkuntzako ikasgelan: prozesuzko eredu*

(Dörnyei, 2003:33)

<b>Ekintzaren aurreko etapa</b>	<b>Ekintza etapa</b>	<b>Ekintzaren osteko etapa</b>
<p>AUKERATZEKO MOTIBAZIOA</p> <p>→</p> <p><b>Motibazio funtzioak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Helburuak ezartzea</li> <li>· Asmoak hartzea</li> <li>· Jardunean hastea</li> </ul> <p><b>Motibazioan eragina duten faktore nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Helburuen ezaugarriak (adib. helburuen pertinentzia, zehaztasuna eta hurbiltasuna)</li> <li>· Ikas-prozesuarekin berarekin eta haren emaitza eta ondorioekin zerikusia duten balioak</li> <li>· Bigarren hizkuntzari eta beraren hiztunei buruzko jarrera</li> <li>· Arrakasta-itxaropenak eta norberak egoerari aurre egiteko daukan ahalmenari buruzko usteak</li> <li>· Ikaslearen sineste eta estrategiak</li> <li>· Inguruaren laguntza eta oztipoak</li> </ul>	<p>MOTIBAZIO ERAGILEA</p> <p>→</p> <p><b>Motibazio funtzioak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Azpiatazak sortu eta burutzea</li> <li>· Bitartean goraiapamena jasotzea (norberaren lorpenena)</li> <li>· Ekintzaren kontrola (autoerregulazioa)</li> </ul> <p><b>Motibazioan eragina duten faktore nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Ikas esperientziaren nolakoa (atsegingarritasuna, norberaren beharretarako pertinentzia, egoerari aurre egiteko ahalmena, norberaren irudia norberaren eta gizartearen aurrean)</li> <li>· Autonomia sentimendua</li> <li>· Irakasleen eta gurasoen eragina</li> <li>· Ikasgelako bertako sariak eta helburu egitura (adib., lehiakorra edo lankidetzazkoa)</li> <li>· Taldearen eragina</li> <li>· Autoerregulazio estrategiak ezagutu eta erabiltzea (adib., helburuak ezartzea, ikasteko eta automotibatzekeo estrategiak erabiltzea)</li> </ul>	<p>ATZERA BEGIRAKOA</p> <p>→</p> <p><b>Motibazio funtzioak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Arrazoiak egozte</li> <li>· Mailak eta estrategiak eratz</li> <li>· Asmoak eta geroko planak bertan behera uztea</li> </ul> <p><b>Motibazioan eragina duten faktore nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Egozpenari lotutako faktoreak (adib., egozpen estiloak eta aurreiritziak)</li> <li>· Autokontzeptuari lotutako usteak (adib., norberaren-ganako konfiantza eta norberaren balioa)</li> <li>· Jasotako feedbacka, goraiapamena, notak</li> </ul>

***Hizkuntzak ikasteko motibazioaren prozesuzko eredu***

Dörnyei eta Ottó-k planteatzen duten ereduaren berritasuna prozesuari begira dagoen planteamendu batean oinarritua egotean datza (Dörnyei eta Ottó, 1998; Dörnyei, 2003).


Eredu honek motibazioaren ikuskera dinamikoa du: motibazioaren denboran zehar gertatzen diren aldaketak azaltzen ditu. Hizkuntza bat ikastea prozesu luzea da, eta ezin daiteke pentsa denbora horretan guztian motibazioak berdin irauten duenik. Ikasleen motibazioak gorabeherak izaten ditu, batzuetan berotzen da eta besteetan hozten.

Prozesuzko ereduaren oinarrian dagoen uste nagusiaren arabera, motibazioan fase desberdinak bereiz daitezke:

1. Motibazioa, lehenik eta behin, sortu egin behar da. Hasierako fase horretako motibazioari *aukeratzeko motibazio* deitzen zaio prozesuzko ereduari, sortutako motibazio horrek burutu nahi den helburu edo ataza aukeratzera bultzatzen duelako.

2. Sortutako motibazio hori modu aktiboan elikatu eta babestu behar izaten da. Motibazioaren alderdi honi *motibazio eragile* deitu izan zaio.
3. Atzera begiratzean, egindako gauzen ebaluazioa egiten du ikasleak, bere esperientziak prozesatzen ditu, eta aldi berean etorkizuneko motibazioak finkatzen.

Zoltán Dörnyei-k *Motibazio-estrategiak hizkuntza ikasgelan* liburuan (HABE-k euskaraz argitaratua) bigarren hizkuntzaren irakaskuntza motibatzailearen osagaien arteko harremanen berri ematen du modu grafikoan (Dörnyei, 2003:40):



*Motibazio teorien aplikazioa bigarren hizkuntzaren jabekuntzan*

<b>EREDUA</b>	<b>ONARRIAK</b>
<b>Eredu psikosoziologikoa</b> Lambert (1974)	Bigarren hizkuntzaren jabekuntzak identitatean eragiten du eta, aldi berean, identitateak elebitasunaren garapenean eragiten du.
<b>Akulturazio eredia</b> Schumann (1978)	Bigarren hizkuntzaren jabekuntza akulturazioaren aspektu bat da, eta gehien eragiten duten faktoreak sozialak eta afektiboak izaten dira.
<b>Hizkuntza-ikasle onaren eredia</b> Naiman, Frohlich, Stern eta Todesco (1978)	Faktore eragileen taxonomia: 1) Hiru aldagai-multzo (kausalak): irakaskuntza, ikaslea eta testulngurua; 2) Laugarren aldagai-multzoa: ikaskuntza (aurrekoen ondorio, eta bosgarren aldagai-multzoaren kausa), eta 3) Bosgarren aldagai-multzoa: emaitzak.
<b>Testuinguru sozialaren eredia</b> Clément (1980)	Ingurune kulturalak eta hizkuntza komunitateen bizitasun erlatiboak duten garrantzian oinarrituriko eredia.
<b>Monitore eredia</b> Krashen (1982)	Afektibitatearen filtro-prozesuak (motibazioa, autokonfiantza, enpatia eta irakasle nahiz eskolarekiko jarrerak) eragin zuzena du bigarren hizkuntzaren jabekuntza-prozesuan.
<b>Talde arteko eredia</b> Giles eta Byrne (1982)	Identitate eta autokontzeptuak, jarrerak, motibazioak eta hizkuntzekiko intentzioak eragiten dute hizkuntzaren jabekuntzan.
<b>Eredu psikosoziala</b> Hamers eta Blanc (1983)	Balio sozialen barneratzearekin gertatzen den sozializazio-prozesuak identitate soziala, jarrerak eta motibazioa eratzen ditu.
<b>Eredu soziohezitzailea</b> Gardner (1985)	Hizkuntzaren jabekuntzarekin batera komunitate etnolingüistiko baten elementu sinbolikoak eskuratzen dira.
<b>Bigarren hizkuntza minorizatuen eskuratzeko natural eta kulturalaren eredia</b> Sánchez Carrión "Txepetx" (1987)	Hizkuntzen bi jabekuntza mota bereizten dira: 1) Ikaskuntza naturala, erabilpenetik ablatzen dena, eta 2) Ikaskuntza berantiarra, motibaziotik abiatzen dena, nahikoa izanez gero erabilpena ahalbidetuko duen ikaskuntza bultzatzen duena.
<b>Ezberdintasun indibidualen eredia</b> Skehan (1989)	Aztertu beharreko aldagaiak bi multzotan banatzen ditu eredu honek: 1) Gizabanako bakoitzari loturiko aldagaiak, eta 2) Testuinguruari loturikoak.
<b>Bizitasun etnolingüistikoaren eta elebitasunaren garapen eredia</b> Landry eta Allard (1990)	Bizitasun etnolingüistikoak, sare sozialak eta subjektuaren barneko aldagaiak eragiten dute elebitasun batzaile eta kentzailean ( <i>bilinguisme additif et soustractif</i> ).
<b>Hizkuntza minorizatuen egoera aldaketaren eredia</b> Fishman (1991)	Elebitasun diglosikoa helburutzat hartuz, zortzi urratsetan mamitutako plangintza proposatzen du hizkuntza minorizatuen egoera aldatu ahal izateko ( <i>Reversing Language Shift</i> ).
<b>Jarrera eredu globala</b> Baker (1992)	Gubxiengotuak diren hizkuntzekiko jarrerak eragin zuzena du bai gizarte-mailan (hizkuntza mantendu ahal izateko), bai jabekuntza indibidualan ere.
<b>Hezkuntzazko planteamendua</b> Dörnyei (1994)	Motibazioaren osagaiak: Hizkuntzaren mailakoak, ikaslearen mailakoak eta ikas-egoeraren mailakoak.
<b>Jarreraren eraginaren eredia</b> Tremblay eta Gardner (1995)	Jarrerak motibazioan eragiten du, eta motibazioa da ikas-prozesuaren eragile garrantzitsua.
<b>Talde arteko komunikazioaren eredia</b> Clément eta Noels (1996)	Ukipen-egoeran dauden hizkuntzen kasuan, bigarren hizkuntzaren jabekuntza prozesua ukipenezko hizkuntzen erabilerari loturik agertzen da.
<b>Identitate etnosoziala eta taldeen arteko portaeren eredia</b> Azurmendi Ayerbe, Romay Martínez eta Valencia Garate (1996)	Ukipen egoeran dauden hizkuntzen eta hiztun taldeen artean ematen diren prozesu eta portaerak azaltzeko eraikitako eredia, diziplinar-teko ikuspegiaren arabera.
<b>Barruko/kanpoko eragin motibatzaileen eredia</b> Williams eta Burden (1997)	Bi motatako eragin motibatzaileak ezberdintzen dira: gizabanakoaren barrukoak (jarduerari emandako balioa, jarrerak, norberari buruzko iritziak...) eta kanpokoak (testuingurua...).
<b>Hizkuntzak ikasteko motibazioaren prozesuzko eredia</b> Dörnyei eta Ottó (1998)	Motibazioak fase ezberdinak ditu: 1) Aukeratzeko hasierako motibazioa, 2) Motibazio eragilea, eta 3) Atzera begiratzea.

## 1.2. NORTASUN SOZIO-KULTURALAREN OINARRIAK: IDENTITATEA, KULTURAZIOA ETA SARE SOZIALA

### 1.2.1. IDENTITATEA

Identitatearen ikerketan bi dimentsio nagusi bereiz daitezke: bata pertsonala eta bestea soziala. Identitate pertsonalaren teorian gizabanakoaren identitatean eragina duten ezaugarriak nortasunarekin lotzen dira; identitate sozialaren teorian, berriz, kategoria sozialekin.

Gizabanakoen prozesu eta portaera psikosozialak azaltzeko identitate pertsonalaren teoriak dituen mugapenen ondorioz, identitate sozialaren teoria sortzen da. Honela, gizakiek dituzten talde arteko harremanei garrantzia ematen zaie, eta ez bakarrik gizabanakoen arteko harremanei (Tajfel, 1972, 1978).

Egungo gizarte psikologian, bereziki europar tradizioan, identitate sozialaren teoriak toki berezia du, eta horretarako zenbait arrazoi aipa daitezke:

- Identitatearen konfigurazioan prozesu ezberdinek parte hartzen dute (kognitiboe-  
ek, jarrera eta balorazioekin lotzen direnek eta motibazionalak).
- Gizabanakoak definitu eta sozialki kokatzen ditu.
- Beste teoria psikosozialekin ongi erlazionatzen da, batez ere talde arteko harre-  
manen mailakoekin eta aplikaziozkoekin (estereotipoak, irudikapen sozialak,  
sinesmenak, egozpen soziala...).
- Pertsonen nahiz taldeen portaerak esplicitatzeko baliagarria da.

Identitate sozial eta talde arteko harremanen azterketaren eskutik, identitate etni-  
koaren kontzeptua sortu da. Identitate etnikoan formatzen diren ezaugarriak katego-  
ria etnikoak dira, eta kategorizazioa ahalbidetzen duen oinarrietako bat taldeko par-  
taide izatearen sentimendua da, ezaugarri hau ezinbestekoa delarik talde etnikoaren  
sorrerarako eta mantenturako.

Gizarte zientzietan, hizkuntza arruntean gertatzen den modu berean, etnikotasu-  
naz hitz egitean, berehala elkartzen da kontzeptu hau talde minoritarioekin edo talde  
menperatuekin. Baina kontuan hartu behar da talde menperatuen izaera talde men-  
peratzaileen izateari loturik dagoela, eta batzuk zein besteak talde etnikoak direla.

Identitate etnikoa aztertzean, ukipen egoerak ikertu dira batez ere, ondorio nagu-  
sienetako bat gabezia erlatiboaren teoriaren garapena delarik. Teoria honetan, talde  
arteko gatazka eta soluzioa, diskriminazioa, mugimendu sozialak, etab. ikertzen  
dira, identitate soziala, talde arteko konparazioak eta kausa egozpenak bezalako  
prozesuak kontuan hartuz (Guimond eta Tougas, 1996).

Hego Amerikan egiten den psikologia sozial alternatiboak proposamen berezi  
bat egiten du: ohiko etnozentrismo kontzeptuari “alterzentrismo” kontzeptua kon-

trajartzen dio (Montero, 1996; Salazar, 1996; Azurmendi Ayerbe, Romay Martínez eta Valencia Garate, 1996). Alterzentrismoaren ikuspegitik, endotaldearen identitate sozialaren definizioan exotaldea da erreferentzia nagusia, garapen historiko-sozialak horretarako baldintzak sortu dituelarik.

Alterzentrismorako joera duten taldeetan aurki daitezken ezaugarrien artean, honako hauek dira esanguratsuenak: norberaren etniaren irudikapen eta irudien anbibalentzia, menperatzaileen eta menperatuen arteko harreman asimetrikoen justifikazio ideologikoa, egoerarekiko konformismoa, fatalismoa, sumisioa, apatia...

Talde etnikoen ezaugarri nagusienetako bat hizkuntza izaten da sarritan, eta kasu horietan identitate etnolinguistikoaren kontzeptua ere erabiltzen da, honen inguruko teoriak sortu direlarik.

Identitate sozialaren teoriaren garapenean identitate etnolinguistikoaren teoriak eginiko ekarpenak esanguratsuak dira, garai batean ikuspegi soziologikotik ikertuak izan ziren fenomenoen berrinterpretazio psikosoziala egiten baitu identitate etnolinguistikoaren teoriak (Fishman, 1991; Azurmendi Ayerbe, 1999).

Mugimendu sozialak, boterearen teoriak, gatazka soziala, gabezia erlatibo objektiboa, nazionalismoa, etab. gaur egun identitatearekin lotzen dira, bereziki identitate etniko eta etnolinguistikoarekin, eta ikuspegi honetatik aztertzen dira.

## 1.2.2. KULTURAZIOA

Aldagai kulturalak eragin nabarmena dute giza portaeran. Kulturazio teorian bi kulturen arteko ukipen egoerak sorturiko fenomenoak dira batez ere aztergai, eta aldagai indibidualak, taldekoak eta instituzionalak hartzen dira kontuan. Bi ukipen egoera ezberdin bereizten dira: tradizionalak (mendeetan zehar iraun duten ukipen egoerak) eta berriak (azken hamarkadetan sortuak). Hirugarren eredu bat ere aipa daiteke, ukipen egoera mistoa, hots, antzinatik datorrena, baina etorkinen mugimenduagatik azken hamarkadetan areagotu dena.

Etorkin taldeen joerak aztertzerakoan, bi faktore nagusi hartzen dira kontuan: jatorrizko kultura mantentzeko desioa, batetik, eta testuinguru berriko kultura bereganatzeko desioa, bestetik. Bi aldagai hauek gurutzatuz, lau kulturazio eredu sortzen dira: asimilazioa, integrazioa, banaketa eta marginazioa (Berry, 1989).

Aipaturiko tipologiak balio du harrera taldeak etorkinen taldeak baino indar handiagoa duenean, baina kontrako egoera ere gerta daiteke. Kasu horretan, garrantzitsuena ez da zein den etorkin taldea eta zein harrera taldea, baizik eta botere egoera. Honen arabera etorkin eta harrera taldeen estrategiak sailkatu beharrean, menpeko taldearen eta talde menperatzailearen estrategiak aipatu beharko liriateke. Ildo honetatik doaz, hain zuzen ere, Azurmendi Ayerbe, Romay Martínez eta Valencia Garatek (1996) proposaturiko identifikazio etnosoziala eta kulturazioaren eredia. Proposamen honetan bizitasun etnolinguistikoaren eta identitate etnikoaren teoriak

kontuan hartzen dira eta bost kulturazio modu prototipiko aurkezten dira: bikulturala (integrazioari lotua), exokulturala (asimilazioari lotua), endokulturala (banaketa eta segregazioarekin zerikusia duena), akulturazioa (anomia eta esklusioari lotua) eta jarrera indibiduala.

### 1.2.3. SARE SOZIALA

Sare sozialak gizabanakoen maila mikrosoziala eta talde arteko maila makrosoziala lotzen ditu, eta sare sozialeko pertsonekin egindako interakzioaren bitartez, gizabanakoak bere komunitatearen balore eta arauak barneratzen ditu, talde horren kide gisa definitzen duen identitate soziala garatuz.

Psikosoziolinguistikaren ikuspegitik, sare soziala elkarreragintzarako topagune nagusia da, eta bertan sortzen dira gizarteko arau sozialak, talde arteko harremanak, identitate soziala eta pertsonala, portaera sozialak, etab.

Gurasoek, bikoteak, seme-alabek, senideek, lagunek, bizilagunek, lankide, ikaskide eta ezagunek gertuko sarea osatzen dute. Kanean, dendetan, jaietan, zerbitzuetan, kirolean, aisialdian... egunerokoak ez diren harremanetan topaturiko ezezagunek urrutiko sarea osatzen dute.

Sare sozialaren egitura eta hizkuntza portaera erlazionaturik daude (Blom eta Gumperz, 1972): sare sozial sendo eta itxiak talde zehatz baten arauen gauzatzea indartzen du, baita hizkuntza portaerarena ere; sare irekietan, berriz, arau estandarrekin ados ez dagoen jokabidea bultzatzen da (Romaine, 1996). Gainera, hizkuntzaren erabilera eta sare sozialen dentsitatearen eta anizkoiztasunaren artean koerlazio positiboa dago (Milroy, 1980).

### 1.3. JARRERAK

Jarrerak, oro har, portaerak azaltzeko garrantzi handia izan dute, eta gizarte psikologian etengabe ikertu dira. Jarrerak gizabanakoa inguru sozialera egokitu behar diren ondorioz sortzen dira. Beraz, jarrera objektuarekin izandako esperientziaren emaitza da, prozesu kognitibo, afektibo eta portaeren ondorioa da.

Jarreraren hiru osagaiak (portaerazkoa, kognitiboa eta afektiboa) era bateratu eta koherentean agertzea espero badaiteke ere, ez da beti horrela gertatzen. Kontsistentzia eza ager daiteke, anbivalentzia eta disonantzia kognitiboa sortuz eta sarritan jarrerak ahulduz.

Jarreraren funtzio nagusiei dagokienez, Katz eta Stotland-ek honako sailkapena egiten dute:

- *Funtzio ego-babeslea*: autoirudi positiboak eraikitzeko.
- *Balio-adierazpen funtzioa*: bakoitzaren arau eta sinesmenak adierazteko.

- *Funtzio instrumentala*: ahalik eta etekin handiena lortzeko.
- *Ekonomia kognitiboaren funtzioa*: errealitatea ulertzeko.

Etnia ukipenen egoeratan, hizkuntzaren eta jarrerren arteko harremanak ikertu dira (Gardner eta Clément, 1990; Giles eta Coupland, 1991; Azurmendi Ayerbe, 1999). 80ko hamarkadaren erdi alde arte jarrerren eta hizkuntzaren arteko erlazioen ikerketan gizabanakoen ezaugarriak azpimarratzen baziren –nortasun ezaugarriak eta ezaugarri soziodemografikoak–, azken urteetan, interakzio kontestutik eratoritzen diren ezaugarriei ematen zaie garrantzia: gizabanakoen zeregin soziala, egoera formala/ez-formala, interakzio publikoa/pribatua, eta taldeko izatea.

#### **1.4. HIZKUNTZAREN INGURUKO IRUDIPEN ETA PORTAERAK: BIZITASUN ETNOLINGUISTIKOA, UKIPEN EGOERAN DAUDEN HIZKUNTZEN ERABILERA ETA EGOKITZAPEN LINGUISTIKOA**

##### **1.4.1. BIZITASUN ETNOLINGUISTIKOAREN TEORIA**

Bizitasun etnolinguintikoaren teoria Tajfel-en inguruan sorturiko Bristolgo Eskolaren baitan eratzen da 70eko hamarkadan. Giles, Bourhis eta Taylor (1977) izan ziren teoria honi buruzko lanak argitaratu zituzten lehenak eta, ikuspegi psikosozialetik, ukipen egoeran dauden hizkuntzen osasuna neurtzen ahalegindu ziren, aldagai sozioestrukturalek duten garrantzia kontuan hartuz. Teoria honen arabera, ukipen egoeran dauden taldeek bizitasun etnolinguintiko erlatibo ezberdina dute eta, ondorioz, talde arteko harreman asimetrikoak sortzen dira.

Bizitasun etnolinguintikoaren baitan hiru egitura-dimentsio bereizten dira:

- Demografia.
- Euskarri eta kontrol instituzionala.
- Estatusa.

Hiru dimentsio hauek talde arteko harremanak ikertzeko erabiltzen diren hiru dimentsioetatik eratorritzen dira (taldeen tamaina, boterea eta estatusa). Aldagai hauen arteko koerlazio positiboa ikus daiteke kasu batzuetan, baina ez beti. Koerlazio positiborik ez dagoenean, egoera konplexuago baten aurrean aurkitzen gara, eta aldagaien hierarkia moduko bat bereiz daiteke: lehentasuna duen aldagaia boterea da, ondoren estatusak izango du garrantzia, tamaina izango delarik indar gutxien duen aldagaia.

Bizitasun etnolinguintikoaren kontzeptua, hasiera batean, datu objektiboen bilketan oinarritzen zen. Baina norberaren hautemateek eta irudikapen kognitiboek talde arteko portaera baldintzatzen dutenez, bizitasun etnolinguintiko subjektiboaren kontzeptua sortzen da (Bourhis, Giles eta Rosenthal, 1981).

Bizitasun etnolinguistikoaren alderdi objektiboak eta subjektiboak elkarrengandik urrun egon daitezke. Esate baterako, euskararen eta gaztelaniaren bizitasuna neurtzerakoan, adierazle objektiboen arabera gaztelaniaren nagusitasuna nabarmena da; bi taldeetako subjektu askoren hautemateen arabera, ordea, kontrako egoera ematen da: euskarak indar handiagoa du.

Paradoxa honen zergatia bilakaera historikoan aurki daiteke: duela urte batzuk gaztelania zen, argi eta garbi, hizkuntza menperatzailea; baina euskara indartzen ari da, eta nahiz eta gaur egun bi hizkuntzen egoera parekoa izatera ere ez iritsi, bakoitzaren bilakaera ikusi eta etorkizunerako proiektzio moduko bat egiten da (euskarak, “abiadura” biziagoa duenez, gaztelania atzean utziko du) eta proiektzio hori orainaldira ekartzen da. Beraz, subjektu horiek egungo egoeran euskararen nagusitasuna hautematen dute, nahiz eta adierazle objektiboek kontrakoa esan.

Jakina da errealitate *objektiboak* bere ondorioak dituela, baina errealitate *subjektiboak* ere gizakien pentsaeran eta jokaeran eragiten du, eta azken batean objektiboa deritzogun errealitate hori ere aldatzeko ahalmena du.

#### 1.4.2. UKIPEN EGOERAN DAUDEN HIZKUNTZEN ERABILERA MAILA

Hizkuntza gutxiagotuen erabileraren auzia ebazteko, Alvarez Enparantza “*Txillardegi*”-k eredu matematikoa garatu du (Alvarez Enparantza, 1984, 2001; Alvarez Enparantza eta Isasi Balantzategi, 1994). Eredu honen abiapuntuan hizkuntza gutxiagotuaren erabilera maila hiru osagaien zuzeneko ondorioa dela planteatzen da: elebidunen proportzioa, mintzalari taldearen tamaina eta hizkuntza gutxiagotuarekiko leialtasuna.

Hizkuntza gutxiagotuen kasuan, ia hiztun guztiek A hizkuntza (gure kasuan, gaztelania da A hizkuntza) ezagutzen dute, eta erabiltzeko gai dira. Hiztun horietariko batzuek B hizkuntza (gure kasuan, euskara da B hizkuntza) ere ezagutzen dute, eta erabiltzeko gai dira. Azken hauek elebidunak dira (gure kasuan euskaldunak). B hizkuntzako hiztun elebakar multzo esanguratsurik ez dago.

Orokorrean, kontrakoa frogatu ezean, gizartea linguistikoki isotropikoa da, hots, hiztun bakoitzak beste hiztunekin elkarrizketan biltzeko dituen probabilitate estatistikokoak zorizkoak dira, biztanle guztien arteko hitzezko harremanak gertagarriak dira, eta B hizkuntza (kasuan, euskara) soilik erabil daiteke solaskideak euskaldunak direnean. Euskal Herrian euskarak, pertsona gutxi batzuen hizkuntza den heinean, erabilera mugatua izan behar du halabeharrez, eta elkarrizketan parte hartzen duten mintzaideak zenbat eta gehiago izan, orduan eta euskara erabiltzeko probabilitate gutxiago, tartean erdaldunen bat izatea errazagoa baita.

Hizkuntza egoera isotropikoan eta euskaldunen arteko harreman posible guztietan euskaraz egingo balute, hau da, leialtasuna %100ekoa izanik, erraza izango litzateke erabileraren goren muga zein den kalkulatzeko. Baina, kaleko erabileraren



neurketen arabera, Euskal Herriko udalerrri gehienetan muga hori gainditzen da, eta euskararen erabilera maila estatistikoki aurreikus daitekeen handiena baino handiagoa da. Hau matematikoki onartezina izango litzateke isotropia egoeran; beraz, bestelako egoera batean bizi garela adierazten dute behatutako datuek: Euskal Herriko kaleko harremanetan ez dago isotropiarik, baizik eta anisotropia. Hots, euskaldunek gehienbat euskaldunekiko harremanak izateko joera dute, eta erdaldunek batez ere erdaldunekiko harremanak dituzte. Beraz, hizkuntza bateko eta besteko hiztunak (edo hiztunetariko batzuek) bi talde bereiztuetan banaturik bizi direla adierazten dute kaleko erabileraren neurketek.

Txillardegiren ereduari jarraiki, euskararen erabilera –behagarria–, edo erabilera publikoa, oro har, hiru faktoreen menpekoea da: euskaldunen kopuruaren, euskaldunen banaketaren eta euskararekiko leialtasunaren menpekoea (Isasi Balantzategi eta Iriarte, 1998).

Isasi Balantzategi eta Iriartek azaltzen dutenaren arabera, euskararekiko leialtasuna, ez faktore bakar bezala, baizik eta faktore multzo gisa ulertu behar da. Hizkuntzarekiko atxikimendua, printzipioz, norbanakoari badagokio ere, aldagai askoren eraginpean dago, faktore horiek psikologikoak, linguistikoak eta sozialak direlarik (Isasi Balantzategi eta Iriarte, 1998).

Euskararekiko atxikimendu edo leialtasuna zuzenean neurtzea zaila izango litzateke, baina euskararen kaleko erabilera neurtuz, lehenengo bi faktoreak (euskaldunen kopurua eta banaketa) ezagutzeko modua dago eta, *eredu matematikoa* aplikatuz, anisotropia mailaren eta euskararekiko leialtasunaren eragina ere kalkula daiteke.

Txillardegik euskararen erabilera handitzeko hiru bide teoriko aipatzen ditu: anisotropia handitzea, euskararekiko elebidunen leialtasuna handitzea eta elebidunen kopurua handitzea.

### 1.4.3. EGOKITZAPEN LINGUISTIKOAREN TEORIA

Teoria hau hizkuntzaren psikologia sozialaren ekarpen nagusienetakoa da, eta beste diziplinek (linguistikak, soziolinguistikak, antropologiak, psikologia kulturak...) ere oso erabilgarritzat dute. Talde arteko harremanen ikerketaren-testuinguruan sortzen da egokitzapen linguistikoaren teoria, talde etnikoen ikerketari loturik (Giles, Taylor eta Bourhis, 1973). Teoria honen helburua psikolinguistikak eta soziolinguistikak dituzten ikuspegi mugatuak gainditzea eta integratzea da.

Egokitzapen linguistikoaren teoriaren arabera, ukipen egoeran egiten den hizkuntza aukeraketak portaera linguistiko ezberdinak dakartza:

- Portaera bateragarria (konbergentea): solaskidearen hizkuntza aukeratu.
- Portaera urrunkorra (dibergentea) : solaskidearearena ez den hizkuntza aukeratu.

- Mantenuzko portaera: Nork bere aukera egin, solaskidearen hizkuntzari erreparatu gabe.

Kontuan hartu behar da, ordea, benetako konbergentzia psikosoziala lortzeko, portaera linguistiko paradoxikoak erabiltzen direla sarritan. Adibidez, konbergentzia psikosoziala lortzeko, estrategia linguistiko konbergenteez gain, dibergentzia linguistikoa adieraztea ere komenigarria izan daiteke zenbait kasutan, solaskidearen ikuspegitik jokabide honek gure portaerari sinesgarritasun handiagoa ematen baitio; erabateko konbergentzia linguistikoa, berriz, susmagarria edo iraingarria gerta daiteke kasu batzuetan (Thakerar, Giles eta Cheshire, 1982).

Beraz, ez dago derrigorrezko zuzeneko koerlazorik konbergentzia/dibergentzia linguistikoaren eta konbergentzia/dibergentzia psikosozialaren artean, portaeraren zergatia aztertu behar baita, horren atzean emandako prozesuak horretarako argibide direlarik.

Egokitzapen linguistikoaren teoriaren azken birformulazioak (Giles eta Coupland, 1991) kontestuaren garrantzia azpimarratzen du eta haren malgutasun eta aplikagarritasunak komunikazio prozesuaren azterketa sakona ahalbidetzen du, ondorengo aspektuak kontuan hartzen dituelarik:

- Interakzioaren ondorio sozialak.
- Faktore ideologiko eta makro-sozialak.
- Talde arteko prozesuak.
- Berezko egoeretan ematen diren praktika diskurtsiboak.
- Gizabanakoengan eta taldeengan ematen diren aldaketa linguistikoak.

## II. IKERKETAREN DISEINUA

### 2.1. HELBURUAK

- I. Goierriko euskaltegietako ikasleen euskalduntze prozesuan eragiten duten aldagai demolinguistiko, aldagai psikologiko, aldagai psikosoziolinguistiko eta ikas-prozesuari dagozkion aldagaiei buruzko ikerketa deskribatzailea egitea.
- II. Motibazioaren orientazioak, lortzeko igurikapenak, motibazio mailak, euskararako gaitasunak eta norberaren emaitzen balorazioak aldagai demolinguistiko, aldagai psikologiko, aldagai psikosoziolinguistiko eta ikas-prozesuari dagozkion aldagaiekiko dituzten erlazioak argitzea.
- III. Euskararen ikas-prozesuan lorpena azaltzen duen eredu bat proposatzea, aurretik egindako ikerketetan oinarrituz, eta ikerlan honek emandako emaitzen arabera.
- IV. Euskaltegietako ikasleek euskara ikasi eta erabiltzeko dituzten oztopoak aurkitzea eta, bide batez, zailtasun horiek arindu eta euskararen erabilera sustatzen laguntzeko aholkuak luzatzea Goierriko eragile sozialei.

### 2.2. HIPOTESIAK

Lehenengo helburuari dagokionez eta aurretik egindako ikerketetan oinarrituz (Perales, 1989; SIADECO, 1996; Arratibel Insausti, 1999) ikasleak ondorengo ezaugarriak izatea aurreikusten da:

1. Euskaltegietako ikasleen artean eragile nagusia integratzailea izatea aurreikusten da.
2. Euskararekiko jarrerak eta portaera asmoak berreskuratze eta normalizatzearen aldekoak izatea aurreikusten da.
3. Ikasleen gehiengoak etorkizunean euskara indartuz joango dela uste izatea aurreikusten da.

4. Euskarari emandako balio nagusia sinbolikoa izatea aurreikusten da, eta ez pragmatikoa.
5. Identitea nagusiki kulturabiduna izatea aurreikusten da. Bigarren helburuari dagokionez, ondorengo hipotesiak garatu dira:

Bigarren helburuari dagokionez, ondorengo hipotesiak garatu dira:

1. Euskara ikasteko eragile integratzaile eta instrumentalak gainerako aldagaiekin koerlazio bereiztuak izatea aurreikusten da.

#### *Azpihipotesiak*

- 1.1. Barnetegiko ikasleen artean eragile instrumentala sendoagoa izatea aurreikusten da.
- 1.2. Ikasle gazteenen artean eragile instrumentala sendoagoa izatea aurreikusten da.
- 1.3. Norberak lortutako ondorioen balorazioa egitean aspektu integratzaileak nagusitzea aurreikusten da.
- 1.4. Identitate euskaldun altua duten ikasleen artean eragile integratzailea sendoagoa agertzea aurreikusten da.
- 1.5. Euskaldun izateko bete beharreko baldintzen artean ezaugarri linguistikoak aipatzen dituzten ikasleen artean eragile integratzailea sendoagoa agertzea aurreikusten da.
- 1.6. Euskarari eta euskaldunei buruzko jarrera positiboak dituzten ikasleen artean eragile integratzaile sendoagoa agertzea aurreikusten da.
- 1.7. Goierrin bizi diren ikasleen artean, biztanle elebidunen proportzio handiagoa duten herrietako ikasleek eragile integratzailea sendoagoa izatea aurreikusten da.
- 1.8. Eragile integratzailea euskarari hautemaniko balio sinboliko altuarekin erlazionaturik agertzea aurreikusten da.
- 1.9. Eragile instrumentala euskarari hautemaniko balio pragmatiko altuarekin erlazionaturik agertzea aurreikusten da.
- 1.10. Euskarari hautemaniko bizitasuna eragile integratzaile nahiz instrumental sendoago batekin erlazionaturik agertzea aurreikusten da.
- 1.11. Euskaltegian aurreratutako urratsen kopurua eragile integratzaile nahiz instrumentalekin koerlazionaturik agertzea aurreikusten da.
2. Lortzeko igurikapena euskara ikasteari hautemaniko zailtasunarekin, nor bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasunarekin eta ikas-prozesuaren emaitzekin erlazionaturik agertzea aurreikusten da.

### *Azpihipotesiak*

- 2.1. Euskarari zailtasun handia hautematen dioten ikasleen artean lortzeko igurikapen urriagoa agertzea aurreikusten da.
  - 2.2. Nork bere buruari ikasteko gaitasun altua hautematen dioten ikasleen artean lortzeko igurikapen handiagoa agertzea aurreikusten da.
  - 2.3. Lortzeko igurikapen altua ikas-prozesuaren erritmo biziagoarekin koerlazonaturik agertzea aurreikusten da.
3. Motibazio-maila norberak euskara ikasi eta erabiltzeko dituen asmoekin, euskararako gaitasunarekin eta irakasleei hautemaniko motibazioarekin erlazonaturik agertzea aurreikusten da.

### *Azpihipotesiak*

- 3.1. Motibazioaren intentsitate handia duten ikasleen artean euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak sendoagoak izatea aurreikusten da.
  - 3.2. Motibazioaren intentsitate handia duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa izatea aurreikusten da.
  - 3.3. Irakasleengan motibazio maila altua sumatzen duten ikasleen artean motibazioaren intentsitate handiagoa agertzea aurreikusten da.
4. Euskararako gaitasuna ikasi eta erabiltzeko norberak dituen asmoekin, euskal identitatearekin, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatearekin, euskarari hautemaniko bizitasunarekin, autodeterminazio mailarekin eta eragile integratzaile nahiz instrumentalarekin erlazonaturik agertzea aurreikusten da.

### *Azpihipotesiak*

- 4.1. Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoak dituzten ikasleen artean euskararako gaitasuna altuagoa izatea aurreikusten da.
- 4.2. Euskal identitate altua duten ikasleen artean euskararako gaitasuna altuagoa izatea aurreikusten da.
- 4.3. Euskararen eta euskaldunen egoeran positiboki eragiteko borondate sendoa duten ikasleen artean hizkuntza gaitasuna altuagoa izatea aurreikusten da.
- 4.4. Hizkuntza gaitasun apalagoa duten ikasleen artean euskarari bizitasun handiagoa hautematea aurreikusten da.
- 4.5. Autodeterminazio maila altua duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa izatea aurreikusten da.
- 4.6. Euskararako gaitasuna eragile integratzaile nahiz instrumentalarekin koerlazonaturik agertzea aurreikusten da.

5. Norberaren emaitzen balorazioa bakoitzak bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasunarekin eta euskararen zailtasunari buruzko usteekin erlazionaturik agertzea aurreikusten da.

#### *Azpihipotesiak*

- 5.1. Norberaren emaitzen balorazio positiboa egiten duten ikasleen artean nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna handiagoa izatea aurreikusten da.
- 5.2. Norberaren emaitzen balorazio negatiboa egiten duten ikasleen artean euskararen zailtasunari buruzko uste sendoagoak agertzea aurreikusten da.

### **2.3. METODOLOGIA**

Ikerlan honen lehenengo, bigarren eta hirugarren helburuak betetze arren, ikerketa kuantitatiboa burutu da, eta laugarren helburua lortzeko azterketa kualitatiboa oinarrituriko ikerketa egin da.

#### **2.3.1. AZTERKETA KUANTITATIBOA**

##### **2.3.1.1. LAGINA**

Goierri euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten hiru euskaltegietako ikasleek osatzen dute lagina. 2004ko maiatzean eta ekainean Beasaingo Udal Euskaltegian, Goiztiri AEK Euskaltegian eta Maizpide Barnetegi-Euskaltegian ikasten ari ziren talde guztietan burutu zen galdeketa, eta guztira 251 ikasleren erantzunak bildu ziren. Hauetatik %47 barnetegiko ikasleak ziren (aste osoan, astelehenetik ostiralera bitartean, Maizpiden euskara ikasten zutenak) eta beste %53 aipaturiko hiru euskaltegietako ordukako ikastaroetako ikasleak.

##### **2.3.1.2. NEURRIBIDEAK**

###### **2.3.1.2.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK**

*Sexua.* Sexuaren adierazle objektiboak erabili dira, gizonezkoak eta emakumezkoak bereiziz.

Itema: 97. galdera

*Adina.* Bost adin multzoetan banaturiko lagina: 1) 24 urtetik beherakoak, 2) 25 urtetik 34 urte bitartekoak, 3) 35 urtetik 44 urte bitartekoak, 4) 45 urtetik 64 urte bitartekoak, eta 5) 65 urtetik gorakoak.

Itema: 98. galdera

**Jaiolekua.** Euskararen kaleko erabileraren arabeko kategoriak bereizi dira: Goierrin, Gipuzkoako beste eskualdeetan, Bizkaian, Nafarroan, Iparraldean, Araban edo Euskal Herritik kanpo jaio diren hartu da kontuan.

Itema: 99. galdera

**Bizilekua.** Euskararen kaleko erabileraren arabeko kategoriak bereizi dira: Goierrin, Gipuzkoako beste eskualdeetan, Bizkaian, Nafarroan, Iparraldean, Araban edo Euskal Herritik kanpo bizi diren hartu da kontuan.

Gainera, Goierriko ikasleen bizilekua honako irizpideen arabera kategorizatu da:

**Euskaldunen proportzioaren arabera.**- Goierrin bizi diren ikasleak hiru kategoriatan banatu dira: 1) Euskaldunen proportzioa %60tik beherakoa den herrietan bizi direnak 2) Euskaldunen proportzioa %61-80 artekoa den herrietan bizi direnak, eta 3) Euskaldunen proportzioa %80tik gorakoa den herrietan bizi direnak.

**Euskaltegien presentziaren arabera.**- Goierrin bizi diren ikasleak bi multzotan banatu dira: 1) euren herrian euskaltea dutenak (beasaindar, lazkaotar eta ordiziarrek) eta 2) gainerako herrietako ikasleak.

Itema: 100. galdera

**Euskararen ezagutza maila.** Urratsen arabera.

Itema: 92. galdera

**Haurtzaroko hizkuntza.** Ondorengo irizpideen arabera:

**Lehen hizkuntza.** Euskara hiru urte bete aurretik ikasi izanaren arabera.

Itema: 88. galdera

**Etxeko hizkuntza nagusia haurtzaroan.** Lau kategoriatan banatu dira ikasleak: 1) hizkuntza nagusia euskara zutenak, 2) euskara eta gaztelania parekoak zituztenak, 3) hizkuntza nagusia gaztelania zutenak, eta 4) beste inolabaiteko hizkuntza egoera zutenak.

Itema: 89. galdera

**Ikasketetan jarraitutako hizkuntza eredia.** Haur eskolan, Oinarrizko Heziketa Orokorrean –edo plangintza berrian ikasi dutenen kasuan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan–, Batxillergoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean jarraitutako hizkuntza eredia, kategoria hauen arabera: 1) euskararik gabeko hezkuntza, 2) A eredia –gaztelaniaz jasotako hezkuntza–, “euskara” irakasgai soila delarik, 3) B eredia –hezkuntza elebiduna–, irakasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz, eta 4) D eredia –euskaraz jasotako hezkuntza–, “gaztelania” irakasgai soila delarik.

Itema: 90. galdera

### 2.3.1.2.2. IKAS-PROZESUARI DAGOZKION ALDAGAIK

*Euskararen ezagutza maila euskaltegian ikasteari ekitean.* Hasierako urratsaren arabera.

Itema: 91. galdera

*Adina euskaltegian ikasteari ekitean.* Bost adin multzoetan banaturiko lagina: 1) 24 urtetik beherakoak, 2) 25-34 urte bitartekoak, 3) 35-44 urte bitartekoak, 4) 45-64 urte bitartekoak, eta 5) 65 urtetik gorakoak.

Itema: 2. galdera

*Euskaltegian ikasten jarduniko denbora.* Ikasturte kopurua.

Itema: 93. galdera

*Euskaltegian aurreratutako urratsak.* Hasierako urratsetik egungo urratsera iristeko gáinditu diren mailen kopurua.

(egungo urratsa – hasierako urratsa)

*Ikas-prozesuaren erritmoa.* Zenbateko aurrerakada egin den, zenbat denboran. (aurreratutako urratsen kopurua / ikasturteen kopurua)

*Ikasketen jarraikitasuna (denboran eta espazioan).* Ikasketak jarraian egin diren ala etenik egon den; euskaltegi bakar batean egin diren ala bat baino gehiagotan.

Itemak: 94. eta 95. galderak

*Ikastaroaren balorazioa.* Ikastaroaren eta ikasmaterialen egokitasuna.

Itemak: 19., 20. eta 22. galderak

*Taldeko giroa.* Ikaskideen arteko giroaren balorazioa.

Itema: 21. galdera

*Irakasleak.* Irakasleei buruzko balorazioa.

Itemak: 27-32 bitarteko galderak

*Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak.* Euskaltegitik kanpo ikasteko aukerak zenbateraino erabiltzen diren.

Itemak: 16., 17. eta 18. galderak

### 2.3.1.2.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK

*Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna.* Norberak hautemaniko euskara ikasteko gaitasuna, hizkuntzak ikasteko abilezia eta ikasteko gaitasun orokorra neurtu dira.

Itemak: 12., 25. eta 26. galderak



**Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak.** Hizkuntzak ikastearen zailtasunari buruzko ustea, euskara ikasteari hautemaniko zailtasuna (beste hizkuntzen aldean), eta ikas-prozesuaren iraupen hautemana neurtu dira.

Itemak: 6., 8. eta 9. galderak

**Lortzeko igurikapena.** Euskara oso ondo ikasteko hautemaniko probabilitateak. Itema: 13. galdera **Autodeterminazio maila.** Vallerand-ek (1997) erabilitako eskala egokitu da ikasteko motibazioaren autodeterminazio maila zehazteko (ikasteko erabakia norberak hartua ala kanpotik eragindakoa ote den argitzeko). Burujabetza maila handienetik txikienera doan eskala honako hau da: 1) motibazio intrintsekoa (Erronkak atsegin ditudalako / Gauza berriak ikasteak interesgarria dudalako / Bizigarria dudalako eta ondo pasatzen dudalako), 2) motibazio integratua (Nire identitate eta baloreekin bat egiten duelako / Euskal Herrikoa naizelako), 3) motibazio identifikatua (Neure garapenean laguntzen didalako / Neure buruari jarri dizkiodan helburuak lortzeko behar dudalako), 4) motibazio barneratua (Ez badut ikasten gaizki sentituko naizelako / Neure ingurukoengatik: seme-alabengatik ...), 5) kanpotik ezarritakoa (Ikasketak egin eta lana topatu nahi badut euskara ikastea derrigorrezkoa dudalako / Behartu nautelako) eta 6) amotibazioa (Egia esan, ez dakit zertan ari naizen ...).

Itema: 1. galdera

**Ikastearen kostu psikologikoa.** Euskaraz hitz egitean jasaten den lotsa eta urduritasuna neurtu dira. Orokorrean eta ikasgelan.

Itemak: 14., 15. eta 24. galderak

**Akatsak egiteko beldurra.** Akatsak kentzeko zailtasun hautemana, eta akatsak kosta ala kosta ekidin behar diren ustea hartu dira kontuan.

Itemak: 10. eta 11. galderak

**Emaitzen balorazioa.** Ikas-prozesuaren emaitzekiko asebetetzea.

Itema: 23. galdera

#### 2.3.1.2.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLINGUISTIKOAK

**Identitatea.** Identitate nazionala eta kulturala neurtu dira. Identitate nazionalaren kategoriak honako hauek dira: 1) espainiarra, 2) funtsean espainiarra, baina baita euskalduna ere, 3) euskalduna eta espainiarra, biak neurri bertsuan, 4) funtsean euskalduna, baina baita espainiarra ere, 5) euskalduna, eta 6) besterik. Kultura ezberdinen eragina ere neurtu da: Goierriko, Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako kulturaren eragina kontuan hartu da.

Itemak: 84. eta 85. galderak

**Jarrerak.** Euskararekiko eta euskaldunekiko jarrerak, eta euskararen erabilera-  
rekiko jarrerak aztertu dira.

*Euskararekiko jarrerak* neurtzeko adjektibo antonimoak erabili dira: baliagarria/alferrikakoa, gertukoa/urruna, garrantzitsua/garrantzirik gabea, moderno/zaharkitua, erraza/zaila, integratzailea/diskriminatzailea, hirikoa/baserri girokoa, geurea/besterena. Hamasei adjektiboz osaturiko zerrendatik euskara definitzeko balio duten hiru garrantzitsuenak aukeratu dituzte ikasleek, eta aukeraketa honen arabera, hiru kategoriatan sailkatu dira: 1) ezaugarri negatiboak soilik aukeratzen dituztenak, 2) ezaugarri positibo eta negatiboak aukeratzen dituztenak, eta 3) ezaugarri positiboak soilik aukeratzen dituztenak.

*Euskaldunekiko jarrerak* neurtzeko ere adjektibo antonimoak erabili dira: langilea/alferra, jakintsua/ezjakina, aberatsa/pobrea, irekia/itxia, azkarra/tentela, taldekoa/indibidualista, partehartzailea/pasiboa, erreibindikatzailerak/konformista, bakezalea/biolentoa, atsegina/ezatsegina. Hogei adjektiboz osaturiko zerrendatik “euskalduna” (euskaraz hitz egiten duena) definitzeko hiru garrantzitsuenak aukeratu dituzte ikasleek, eta, aukeraketa honen arabera, hiru kategoriatan sailkatu dira: 1) ezaugarri negatiboak soilik aukeratzen dituztenak, 2) ezaugarri positibo eta negatiboak aukeratzen dituztenak, eta 3) ezaugarri positiboak soilik aukeratzen dituztenak.

*Euskararen erabilera-**rekiko jarrerak*** aztertzeko, ikasleak bost kategoriatan banatu dira: 1) ez erabiltzearen alde daudenak, 2) orain erabiltzen dena baino gutxiago erabiltzearen alde daudenak, 3) oraino neurrian erabiltzen jarraitzearen alde daudenak, 4) orain erabiltzen dena baino gehiago erabiltzearen alde daudenak, eta 5) euskara guztiok erabiltzearen eta Euskal Herrian lehentasuna duen hizkuntza izatearen alde daudenak.

Itemak: 57., 58. eta 76. galderak

***Sare sozialean hautemaniko euskararen erabilera.*** Etxean, lagunartean, lantokian/ikastetxean, eta ikus-entzunezko komunikabideen kontsumoan sumatutako euskararen erabilera (ehunekotan).

Itemak: 72-75 bitarteko galderak

***Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna.*** Euskarari norberak hautemaniko bizitasuna neurtzeko, ondorengo itemak erabili dira: euskaldunen proportzioa gaur egun, euskaldunen proportzioa 20 urte barru, euskararen egungo erabilera (etxean, kalean, lantokietan, ikastetxeetan, Administrazioan eta komunikabideetan), euskararen erabilera 20 urte barru (etxeetan, kalean, lantokietan, ikastetxeetan eta Administrazioan) eta euskara nola ikusia dagoen. Kasu guztietan galderak bikoitzak dira, Goierrin eta Euskal Herrian hautematen dutenari buruz, eta azken puntuaren kasuan Goierrin, Autonomia Erkidegoan, Euskal Herrian, Espainian eta nazioartean euskara nola kontsideratua dagoen planteatzen da.

Itemak: 62-71 bitarteko galderak

**Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia.** Euskaldun izateko baldintza hipotetikoek osaturiko zerrendatik (Euskal Herrian bizitzea / Euskal Herrian jaioa izatea / Gurasoak bertan jaioak izatea / Euskaraz zerbait hitz egitea / Euskaraz ondo hitz egitea / Euskaldun sentitzea / Euskaldun izateko borondatea / Euskal Herria maitatzea / Euskal kultura ezagutzea / Euskal kulturaren parte hartzea / Abizen euskaldunak izatea / Euskal nazioa defendatzea) hiru baldintza garrantzitsuenak eta garrantzi gutxiena duten hiru baldintzak aukeratu dituzte ikasleek. Honen arabera hiru kategoriatan sailkatu dira: 1) baldintza linguistikoetako bat –gutxienez– garrantzi gutxi dutenen artean aipatzen dutenak, 2) baldintza linguistikoak aipatzen ez dituztenak, eta 3) baldintza linguistikoetako bat –gutxienez– garrantzitsuenen artean aipatzen dutenak. Itemak: 86. eta 87. galderak

**Euskararen balio orokorra.** Euskarak gaur egungo gizartean dituen **balio sinbolikoa** eta **balio praktikoa** (bakoitza item banarekin neurtua). Itemak: 59. eta 61. galderak

**Motibazioaren orientazio nagusia.** Euskara ikasteko arrazoi nagusiaren orientazioa (integratzailea/instrumentala). Galde-sortan hasierako eragilea eta gaur egungoa zehazteko eskatzen zaie ikasleei, 20 erantzunen artean hautatzeko aukera emanez. Zerrendan agertzen diren arrazoiez gain besteren bat adierazi ahal izan dute ikasleek (horietatik zehaztasun gutxikoak edo sailkaezinak ez dira kontuan hartu) eta zerrendan agertzen diren batzuk, berriz, ez ditu inork hautatu. Beraz, erantzunen arabera, gutzira 21 arrazoiz osaturiko zerrenda dugu.

Eragile integratzaileari dagozkion arrazoiak:

- Euskaldunen artean eroso sentitzeko.
- Euskaldunekin komunikatu ahal izateko.
- Euskaldunak eta euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratu ahal izateko.
- Euskaldun sentitzeko.
- Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko.
- Ideia berriak eta ikuspuntu zabalagoak neureganatzeko.
- Euskal komunitateko kide bihurtzeko.
- Euskaraz bizitzeko eta gure hizkuntza indartzeko.
- Euskal kultura jasaten ari den erasoei aurre egiteko.
- Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko.
- Familiartekoekin (seme-alabekin, bilobekin... ) hitz egiteko.
- Atsegin dudalako.
- Euskalduna naizelako.

Eragile instrumentalari dagozkion arrazoiak:

- Etorkizuneko ikasketak errazago egiteko.
- Jendeak gehiago errespetatzen zaituelako euskara badakizu.
- Jantziagoa egoteko modua delako.
- Lanpostu on bat lortzeko.
- Lanpostuari eusteko.
- EGA edo beste azterketaren bat gainditzeko.

Itemak: 3. eta 4. galderak

***Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa.*** Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa (galdera bakoitzaren lehen zatia) eta horri emandako garrantzia (galdera bakoitzaren bigarren zatia) kontuan hartu dira, eta bien arteko biderketa egin. Euskara ikastearen balio hipotetiko ezberdinak biltzen dituen ondorengo zerrenda erabili da hemezortzi galdera planteatzeko:

- Euskaldunen artean eroso sentitzeko.
- Etorkizuneko ikasketak errazago egiteko.
- Euskaldunekin komunikatu ahal izateko.
- Geroago beste hizkuntza batzuk errazago ikasteko.
- Lagun euskaldunak egiteko.
- Jantziagoa egoteko.
- Euskaldunak eta euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratu ahal izateko.
- Euskaldun sentitzeko.
- Ideiak berritzeko eta ikuspuntuak zabaltzeko.
- Lanpostu on bat lortzeko / mantentzeko.
- Jendearen errespetua lortzeko.
- Euskal komunitateko kide bihurtzeko.
- Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko.
- Beste ekintza interesgarri batzuk burutzeko (kirola, mendia...).
- Familiartekoekin (seme-alabekin, bilobekin... ) hitz egiteko.
- Euskaraz bizitzeko eta gure hizkuntza indartzeko.
- Euskal kultura jasaten ari den erasoei aurre egiteko.
- Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko.

Euskara ikasteari emandako balioak osagai integratzailea eta osagai instrumentala ditu bere baitan.

**Eragile integratzaileak** honako balioak biltzen ditu: Euskaldunen artean eroso sentitzeko / Euskaldunekin komunikatu ahal izateko / Lagun euskaldunak egiteko / Euskaldunak eta euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratu ahal izateko / Euskaldun sentitzeko / Ideiak berritzeko eta ikuspuntuak zabaltzeko / Euskal komunitateko kide bihurtzeko / Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko / Familiartekoekin (seme-alabekin, bilobekin...) hitz egiteko / Euskaraz bizitzeko eta gure hizkuntza indartzeko / Euskal kultura jasaten ari den erasoei aurre egiteko / Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko.

**Eragile instrumentalak** honako balioak biltzen ditu: Etorkizuneko ikasketak errazago egiteko / Geroago beste hizkuntza batzuk errazago ikasteko / Jantziago egoteko / Lanpostu on bat lortzeko edo mantentzeko / Jendearen errespetua lortzeko / Beste ekintza interesgarri batzuk burutzeko (kirola, mendia...).

Eragile instrumentalari loturiko galderak eragile integratzaileari loturikoak baino gutxiago direnez, ponderazio bidez bi osagaiak parekatu dira.

Itemak: 33-50 bitarteko galderak

**Lorturiko ondorioen orientazioa.** "Motibazioaren orientazio nagusia" argitzeko erabili den zerrenda beretik, dagoeneko lorturiko ondorioak zehaztu dituzte ikasleek (gehienez bost ondorio). Erantzunen arabera hiru kategoriatan banatu dira: 1) gehienbat ondorio integratzaileak adierazten dituztenak, 2) ondorio integratzaile eta instrumentalak neurri bertsuan adierazten dituztenak, eta 3) gehienbat ondorio instrumentalak adierazten dituztenak.

Itema: 5. galdera

**Motibazio-maila.** Euskarari emandako balioa eta lortzeko igurikapena biderkatzearen emaitza,  $igurikapena \times balio$  teoriari jarraiki.

**Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea.** Euskararen demografian, indarrean eta estatusen eragin nahia.

Itemak: 77., 78. eta 79. galderak

**Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak.** Euskara alor ezberdinetan erabiltzeko asmoak (lanean/ikasketetan, familian eta lagunartean, Administrazioarekiko harremanetan) neurtu dira, baita ikasteko eta erabiltzeko gogor saiatzeko asmoak ere.

Itemak: 80-83 bitarteko galderak

**Euskararekiko leialtasuna.** Euskarari buruzko gaitasun nahikoa izanez gero, ikasleek solaskide ezberdinekin egoera bakoitzean komunikatzeko hautatuko luketen hizkuntza.

Itemak: 52-56 bitarteko galderak

**Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea.**

Erdaldunen aurrean euskaraz hitz egiteak adieraz lezakeen errespetu faltari buruzko ustea. Itema: 60. galdera

### **2.3.1.3. PROZEDURA**

Ikerlanean parte hartu duten ikasleei euskarazko eta gaztelaniazko galde-sorta eman zaie, erantzunak hizkuntza batean nahiz bestean emateko aukera eskainiz. Euskaraz erantzun duten ikasleek eskura izan dute gaztelaniazko bertsioa, hizkuntza ondo ez menperatzeagatik sor zitezkeen zalantzak argitu ahal izateko.

### **2.3.2. AZTERKETA KUALITATIBOA**

Lau eztabaida-talde osatu dira, ikasleen –eta baita irakasleen– partaidetzarekin:

- 1 Beasaingo Udal Euskaltegiko ikasleen eztabaida-taldea (1T).
- 2 Goiztiri AEK Euskaltegiko ikasle eta irakasleen eztabaida-taldea (2T).
- 3 Maizpide Barnetegi-Euskaltegiko ikasleen eztabaida-taldea (3T).
- 4 Maizpide Barnetegi-Euskaltegiko irakasleen eztabaida-taldea (4T).

Eztabaida hauek euskaltegietako ikasleek euskara ikasteko eta erabiltzeko zer nolako arrazoi, erraztasun eta zailtasun dituzten argitzeko helburuz antolatuta dira.

### III. AZTERKETA KUANTITATIBOAREN EMAITZAK

#### 3.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOEN DESKRIBAPENA


Ikasleen ezaugarri demolinguistikoak aztertzen dituen atal honek, ikasleen sexua, adina, jaiolekua, bizilekua, euskararako gaitasuna, haurtzaroko hizkuntza eta ikasketetan jarraitutako hizkuntza erduei buruzko datuak biltzen ditu.

##### 3.1.1. SEXUA

Ikasleen %30,5 gizonezkoak dira, eta %69,5 emakumezkoak. Ordukako ikastaroetan nahiz barnetegian, ikasleen gehiengoa emakumezkoek osatzen dute.

(12 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasleen sexua, eskolarizazio motaren arabera sailkatuz**




### 3.1.2. ADINA

Ikasleen gehiengoa 25-44 urte bitartekoa da (%69,1), eta adin multzo bakoitzari buruzko datuak honako hauek dira:

24 urtetik beherakoak:	%13,8
25-34 urte bitartekoak:	%37,7
35-44 urte bitartekoak:	%31,4
45-64 urte bitartekoak:	%16,3
65 urtetik gorakoak:	%0,8

(12 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasleen adina, eskolarizazio motaren arabera sailkatuz**



### 3.1.3. JAIOLEKUA

Ikasleen gehiengoa Gipuzkoan jaiotakoa da (%54,6). Ordukako ikastaroetako ikasleak nagusiki Goierriin bertan jaiotak dira; barnetegikoen artean, berriz, Goierriin jaiotakoek gutxiengoa osatzen dute.


Ikasleen multzo osoari dagozkion datuak honako hauek dira:

Goierriin jaiotak:	%30,2
Gipuzkoako beste eskualdeetan:	%24,4
Araban:	%9,1
Bizkaian:	%9,9
Nafarroan:	%8,3
Iparraldean:	%0
Euskal Herriz kanpo:	%18,2

(9 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### Ikaslegoaren jaioterria, eskolarizazio motaren arabera sailkatuz



### 3.1.4. BIZILEKUA


Ikasleen gehiengoa Gipuzkoan bizi da (%73,9). Ordukako ikastaroetako ikasle guztiak Goierriin bertan bizi dira; barnetegikoen artean, berriz, ikasleen ia erdiak Gipuzkoa du bere bizilekua, baina goierritarrek gutxiengoa dira.

Ikasleen multzo osoari dagozkion datuak honako hauek dira:


Goierri bizi direnak:	%56,3
Gipuzkoako beste eskualdeetan:	%17,6
Araban:	%10,2
Bizkaian:	%6,9
Nafarroan:	%6,9
Iparraldean:	%0,4
Euskal Herriz kanpo:	%1,6

(6 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)


### Barnetegiko ikaslegoaren bizilekua



### Ikasle goierritarren bizilekua, herriko euskaldunen proportzioaren arabera



### Ikasle goierritarren bizilekua, euskaltegien presentziaren arabera




## 3.1.5. EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA

Ikasleen gehiengoak euskara maila altua du: %51,9. Maila ertaina dutenak %30,4 dira, eta maila baxua dutenak %17,7. Barnetegiko ikasleen ia hiru laurden maila altukoak dira, eta beste laurdena maila ertainekoa. Ordukako ikastaroetan, berriz, ia parekoak diren hiru multzo agertzen dira.

(14 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskararen ezagutza maila, eskolarizazio motaren arabera sailkatuz




### 3.1.6. HAURTZAROKO HIZKUNTZA

Ikasleen gehiengoak ez du euskara lehen hizkuntza: %21,9ak ikasi zuen euskara hiru urte bete aurretik (soilik euskara, edo beste hizkuntza batekin aldi berean), eta %78,1ak beranduago ekin zion euskara ikasteari. Barnetegiko eta ordukako ikastaroetako ikasleen artean kopuru berdintsuak ageri dira.

Ikasle gehienek (%82) haurtzaroan gaztelania zuten euren etxeko hizkuntza nagusia. Beste %9,8ak euskara zuen familiako hizkuntza nagusia, eta %3,7a euskara eta gaztelania pareko ziren etxeetan hazi zen. Gainerako %4,5ak bestelako hizkuntza egoeretan igaro zuen haurtzaroa.


#### Euskara lehen hizkuntza dutenak/ez dutenak, eskolarizazio motaren arabera sailkatuz



Barnetegikoen artean gaztelaniaren lehentasuna nabarmenagoa da, eta ordukako ikastaroetakoen artean zertxobait apalagoa, baina beti ere etxe erdaldunetan hazitakoak dira ikasle gehienak.

(7 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### Etxeko hizkuntza nagusia haurtzaroan, eskolarizazio motaren arabera sailkatuz




### 3.1.7. IKASKETETAN JARRAITUTAKO HIZKUNTZA EREDUA

#### *Haur Hezkuntzan*

Haur Hezkuntzan ikasleen gehiengoak (%55,4) euskararik gabeko hezkuntza jaso zuen, eta beste %26ak A ereduari egin zituzten ikasketak (gaztelaniaz, “euskara” irakasgaietako bat izanik). B ereduari ikasketak egin zituztenak (hezkuntza elebiduna, irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz) % 8,2 dira, eta hezkuntza D ereduari jaso zutenak (euskaraz, “gaztelania” irakasgaietako bat izanik) %10,4.


(20 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



#### *Lehen Hezkuntzan eta DBHn (edo OHOean)*

Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (edo Oinarrizko Heziketa Orokorrean) ikasleen ia erdiak (%48,1) euskararik gabeko hezkuntza jaso zuen, eta beste multzo handi batek (%36,5) A ereduari egin zituzten ikasketak (gaztelaniaz, “euskara” irakasgaietako bat izanik). B ereduari ikasketak egin zituztenak (hezkuntza elebiduna, irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz) % 7,7 dira, eta hezkuntza D ereduari jaso zutenak (euskaraz, “gaztelania” irakasgaietako bat izanik) beste %7,7.

(18 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




### Batxillergoan

Batxillergo ikasketak egin zituzten ikasleen artean ia erdiak (%48,3) A ereduan egin zituen (gaztelaniaz, “euskara” irakasgaietako bat izanik), eta beste multzo garrantzitsu batek (%38,6) euskararik gabeko hezkuntza jaso zuen. B ereduan ikasketak egin zituztenak (hezkuntza elebiduna, irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz) % 6,8 dira, eta hezkuntza D ereduan jaso zutenak (euskaraz, “gaztelania” irakasgaietako bat izanik) %6,3.

(75 ikaslek ez diote galdera honi erantzun, horietariko askok ez baitute Batxillergo ikasketarik egin)

**Batxillergoan jarraitutako hizkuntza eredia**




### Lanbide Heziketan

Lanbide Heziketako ikasketak egin zituzten ikasleen artean gehiengoak (%54,2) euskararik gabeko hezkuntza jaso zuen, eta beste multzo garrantzitsu batek (%32,8) A ereduan egin zituen ikasketak (gaztelaniaz, “euskara” irakasgaietako bat izanik). B ereduan ikasketak egin zituztenak (hezkuntza elebiduna, irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz) % 7,6 dira, eta hezkuntza D ereduan jaso zutenak (euskaraz, “gaztelania” irakasgaietako bat izanik) %5,3.

(120 ikaslek ez diote galdera honi erantzun, horietariko askok ez baitute Lanbide Heziketarik jaso)

**Lanbide Heziketan jarraitutako hizkuntza eredia**




### Unibertsitateko ikasketetan

Unibertsitateko ikasketak egin dituzten/egiten ari diren ikasleen artean gehien-goak (%86,9) euskararik gabeko hezkuntza jaso du. Irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz ikasi/ikasten dituztenak %8,3 dira, eta unibertsitateko hezkuntza euskaraz jaso/jasotzen dutenak %4,8 dira.

(106 ikaslek ez diote galdera honi erantzun, horietariko askok ez baitituzte Unibertsitateko ikasketak egin)

Unibertsitateko ikasketetan jarraitutako hizkuntza lerroa




## 3.2. IKAS-PROZESUARI DAGOZKION ALDAGAIEN DESKRIBAPENA

### 3.2.1. EUSKARA MAILA, EUSKALTEGIAN IKASTEARI EKITEAN

Ikasle gehienek (%79,1) euskararen ezagutza maila baxua zuten euskaltegi batean ikasteari ekin ziotenean. Maila ertaina zutenak %9,8 dira, eta hasieratik maila altua zutenak %11,1 dira.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

Euskararen ezagutza maila euskaltegian ikasteari ekitean




### 3.2.2. ADINA, EUSKALTEGIAN IKASTEARI EKITEAN

Ikasleen gehiengoak (%52) 24 urte edo gutxiagoko adina zuenean ekin zion euskara euskaltegi batean ikasteari; 25-34 urte bitarteko adinarekin ekin ziotenak %24,4 dira; 35-44 urte bitarteko adinarekin hasitakoak %19,1 dira; 45-64 urte bitarteko adinarekin ekin ziotenak %3,3; eta 65 urte edo gehiagorekin hasitakoak %1,2.

Oro har, gaur egun barnetegian daudenak gazteago ziren euskaltegian ikasteari ekin ziotenean, eta ordukako ikastaroetako ikasleak berriz zaharragoak.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasleen adina euskaltegian ikasteari ekitean**




### 3.2.3. EUSKALTEGIAN IKASTEN JARDUNIKO DENBORA

Ikasleen multzo nagusienak (%38,8) urtebete edo bi darama euskaltegietan ikasten; %26,3ak hiru edo lau urte egin ditu ikasten; %24,6a bostetik hamar urte bitarteko epean aritu da; eta %10,3ak hamaika urte edo gehiago darama euskaltegietan ikasten.

(19 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)


**Euskaltegian ikasten jarduniko denbora**



### 3.2.4. EUSKALTEGIAN AURRERATUTAKO URRATSAK

Ikasleen multzo nagusiena osatzen dutenek (%42,2) nahikoa aurreratu dute euskaltegian hasi zirenetik (urratsak kontuan hartuz, bost, sei, zazpi edo zortzi urrats gainditu dituzte); beste multzo batek (%34,9) aurrerakada apalagoa egin du (lau urrats edo gutxiago); eta gutxiengo batek (%22,8) aurrerakada bikaina egin du (bederatzi urrats edo gehiago).

(19 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




### 3.2.5. IKAS-PROZESUAREN ERRITMOA

Ikas-prozesuaren erritmoari dagokionez, ikasleen artean bi multzo handi ditugu: %40,3ak erritmo lasaia darama, hots, urte bakoitzeko urrats bat edo gutxiago aurreratu du; eta %41,2ak tarteko erritmoa darama, hots, ikasturte bakoitzeko urrats bat baino gehiago eta hiru baino gutxiago aurreratu du. Hirugarren multzoa txikiagoa da, ikasleen %18,6ak osatzen du, eta erritmo bizia darama, urte bakoitzeko hiru urrats edo gehiago aurreratu.

Oro har, gaur egun barnetegian dauden ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino erritmo biziagoan ikasi dute.

(30 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)






### 3.2.6. IKASKETEN JARRAIKITASUNA

Ikasketen jarraitutasunari dagokionez, ikasleen gehiengoak (%58,6) behin edo behin bertan behera utzi izan ditu ikasketak, eta beranduago berriro euskara ikasteari ekin. Gainerako ikasleek (%41,4) jarraian egin dituzte ikasketak, etenaldirik gabe.

Ordukako ikastaroetako ikasleen artean jarraitutasun handiagoa nabarmentzen da, eta barnetegikoen artean, berriz, etenaldietarako joera nagusitzen da.

(14 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasketen jarraitutasuna denboran zehar**




Ikasleen %40,6ak euskaltegi bakar batean egin dituzte bere ikasketak, baina gehiengoak (%59,4) euskaltegi batean baino gehiagotan ibili da euskara ikasten.

Ordukako ikastaroetako ikasleen artean ikasgune berean jarraitzeko joera handiagoa nabarmentzen da, eta barnetegikoen artean aldaketarako joera nagusitzen da.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasgunearen jarraitutasuna**



### 3.2.7. IKASTAROAREN BALORAZIOA


#### *Ikastaroaren egokitasuna*

Ikastaro bakoitzak ikasleen beharrak asetzen ote ditu? Ikasleen mailari eta premiei dagokiena ote da? Oro har, erantzuna baiezkoa da: ikastaroak euren beharrak asebetetzen dituela hautematen dute ikasle gehienek. Norberaren maila, interesak eta beharrak kontuan hartuz, ikastaroari hautemaniko egokitasuna nahiko handia dela deritzo %55,6ak, eta %27,4ak egokitasuna oso altua dela adierazten du. Egokitasun maila tartekoa dela diotenak %8,5 dira, eta beste %8,5ak egokitasun nahiko urria hautematen du.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek egokitasun handiagoa hautematen diote ikastaroari barnetegikoek baino.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikastaroari hautemaniko egokitasuna  
(norberaren maila, interesak eta premiak kontuan hartuz)**




#### *Ikasmaterialen interesgarritasuna*

Ikasgelan erabilitako materialak interesgarriak al dira? Ikasle gehienak baiezkoan daude: ikasmaterialen interesgarritasuna nahiko handia dela deritzo ikasleen %60,1ak, eta %17,3ak oso handia dela adierazten du. Ikasmaterialen interesgarritasun maila tartekoa dela diotenak %11,3 dira, beste %10,9ak interesgarritasun maila nahiko urria dela dio, eta %0,4ak oso urria dela deritzo.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek interesgarritasun handiagoa hautematen diete ikasmaterialei barnetegikoek baino.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Ikasmaterialei hautemaniko interesgarritasuna




### Monotonia

Ikasgelan aspertzen ote dira ikasleak? Erantzuna, oro har ezezkoa da. Ikasle gehienak ikasgelan ez dira aspertzen. Monotonia nahiko urria dela dio %55,1ak eta %29,1ak oso urria dela adierazten du. Ikasgelan sumatutako monotonia maila tartekoa dela diotenak %6,9 dira, eta beste %8,9ak monotonia nahiko handia hautematen du.

Oro har, barnetegiko ikasleek monotonia handiagoa hautematen dute ordukako ikastaroetakoek baino.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Ikasgelan hautemaniko monotonia




### 3.2.8. TALDEKO GIROA

Nolakoa da ikasgelako giroa? Atsegina al da? Elkarri laguntzen al diote taldeko kideek? Oro har, ikasleek giroa positiboki baloratzen dute. Ikasleen ia erdiak (%48,4) taldeko giroaren atsegintasuna nahiko handia dela deritzo, eta beste %42,3ak oso handia dela adierazten du. Giroaren atsegintasun maila tartekoa dela diotenak %5,6 dira, %2,7ak atsegintasun nahiko urria hautematen dio taldeko giroari, eta beste %0,8ak oso urria.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek atsegintasun handiagoa hautematen diote taldeko giroari barnetegikoek baino.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### 3.2.9. IRAKASLEEI BURUZKO BALORAZIOA


#### *Irakasleen ardura*

Irakasleei benetan axola al zaie ikasleek ikastea? Zer irudipen dute honetaz ikasleek? Ikasleen multzo osoa kontuan hartuz, gehienek irakasle arduratsuak dituztela deritzote, hots, irakasleei euren ikasleek ikasten dutena benetan axola zaiela hautematen dute ikasleek oro har. %35,3ak irakasleari hautemaniko ardura oso handia dela adierazten du, eta beste %25,3ak nahiko handia dela deritzo. Irakaslearen ardura tartekoa dela hautematen dutenak %9,6 dira, irakasleen ardura nahiko urria dela diotenak %17,3 dira, eta beste %12,4ak ardura oso urria hautematen die irakasleei.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek irakasleei ardura handiagoa hautematen diete barnetegikoek baino. Azken hauen artean ardura handia eta urria hautematen duten multzoak parekatuak agertzen dira.

(2 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Irakasleei hautemaniko ardura




### Ikasleen ahaleginen balorazioa

Irakasleek behar adina baloratzen al dituzte ikasleek egindako ahaleginak? Ikasleen gehiengoak baietz uste du. Ikasleen %47,2ak irakasleen arreta zentzu honetan nahiko handia dela adierazten du, eta %32,9ak oso handia dela deritzo. Ikasleen ahaleginen balorazioari irakasleek tarteko arreta ematen diotela sumatzen dutenak %12,2 dira, arreta hau nahiko urria dela diotenak %6,5 dira, eta beste %1,2ak arreta oso urria hautematen die irakasleei euren ikasleen ahaleginak baloratzean.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek irakasleei arreta handiagoa hautematen diete eginkizun honetan barnetegiko ikasleek baino.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Irakasleei hautemaniko arreta ikasleen ahaleginak baloratzean




### ***Ikasleen autonomiaren sustapena***

Irakasleek ikasleen autonomia bultzatzen al dute? Irakasleek, oro har, baietz uste dute. Ikasleen %46,2ak irakasleen arreta autonomia sustatzean nahiko handia dela adierazten du, eta %17,4ak oso handia dela deritzo. Ikasleen autonomia bultzatzeari irakasleek tarteko arreta ematen diotela hautematen dutenak %20,2 dira, arreta hau nahiko urria dela diotenak %15,4 dira, eta beste %0,8ak arreta oso urria hautematen die irakasleei ikasleen autonomia sustatzeko eginkizunean.

Oro har, ordukako ikastaroetako irakasleek irakasleei autonomia bultzatzeko joera handiagoa hautematen diete barnetegikoek baino.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Irakasleei hautemaniko arreta ikasleen autonomia bultzatzean**




### ***Irakasleek ikasle bakoitzari emandako berariazko arreta***

Irakasleak ikasle bakoitzaz berariaz arduratzen al dira? Taldean egon arren, irakasleak ikasle bakoitzari arreta pertsonala eskaintzen al dio? Irakasleek, oro har, baietz uste dute. Ikasleen %45,1ak irakasleek emandako berariazko arreta nahiko handia dela adierazten du, eta %20,7ak oso handia dela deritzo. Irakasleek tarteko arreta pertsonala ematen dietela hautematen dutenak %18,3 dira, arreta hau nahiko urria dela diotenak %15 dira, eta beste %0,8ak arreta pertsonal oso urria hautematen du.

Oro har, ordukako ikastaroetako irakasleek barnetegikoek baino arreta pertsonal gehiago eskaintzen zaiela hautematen dute.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Irakasleengandik jasotako berariazko arreta




### *Irakasleei hautemaniko motibazio maila*

Irakasleak motibatuak al daude? Zer irudipen dute ikasleek euren irakasleen motibazioaz? Oro har, ikasleek irakasle motibatuak dituztela hautematen dute. Ikasleen %52ak irakasleak nahiko motibatuak daudela deritzo, eta %26,4ak oso motibatuak daudela uste du. Irakasleei tarteko motibazio maila hautematen dietenak %16,3 dira, motibazioa nahiko urria dela diotenak %4,5 dira, eta beste %0,8ak irakasleei motibazio oso urria hautematen die.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino motibazio maila handiagoa hautematen dute irakasleengan.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Irakasleengandik jasotako berariazko arreta




### *Irakasleei hautemaniko euskaltzaletasuna*

Zer irudipen dute ikasleek irakasleen euskaltzaletasunaz? Ikasle gehienek euren irakasleak euskaltzaleak direla hautematen dute. Ikasleen %42,7ak irakasleak nahiko euskaltzaleak direla deritzo, eta %28,6ak euskaltzaletasun oso handia hautematen du irakasleengan. Irakasleek tarteko euskaltzaletasun maila dutela hautematen duten ikasleak %22,2 dira, euskaltzaletasuna nahiko urria dela diotenak %5,6 dira, eta beste %0,8ak oso urria dela deritzo.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino euskaltzaletasun handiagoa hautematen dute irakasleengan.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Irakasleengan hautemaniko euskaltzaletasuna**



### **3.2.10. IKASGELATIK AT IKASTEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK**

#### *Aurrez aurreko harremanetan erabiliz*


Ikasle gehienak aurrez aurreko harremanetan euskara erabiltzen ahalegintzen dira. Ikasleen %39,8a horrelako aukerez nahikoa baliatzen da, eta %13ak aukera hauek neurri oso handian ustiatzen ditu. Baina ikasi ahal izateko aurrez aurreko harreman hauetaz neurri nahiko eskasean baliatzen direnen multzoa ere esanguratsua da (%28,9) eta neurri oso eskasean baliatzen direnak %2,8 dira. Tarteko egoeran %15,4ak osaturiko multzoa ageri da.

Barnetegiko ikasleak, oro har, gehiago baliatzen dira aurrez aurre euskara erabiltzeko dituzten aukerez ordukako ikastaroetakoak baino.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### Euskara aurrez aurreko harremanetan erabiltzeko aukeren ustiapena




### *Komunikabideetan entzunez*

Ikasle gehienak ikus-entzunezko komunikabideetan euskara entzuten ahalegintzen dira. Ikasleen %55,1a horrelako aukerez nahikoa baliatzen da, eta %21,1ak aukera hauek neurri oso handian ustiatzen ditu. Baina ikus-entzunezko komunikabideak entzunez euskara ikasi ahal izateko neurri nahiko eskasean baliatzen direnen multzoa ere adierazgarria da (%15) eta neurri oso eskasean baliatzen direnak %1,6 dira. Tarteko egoeran %7,3ak osaturiko multzoa geratzen da.

Barnetegiko ikasleak, oro har, gehiago baliatzen dira komunikabideetan euskara entzuteko dituzten aukerez ordukako ikastaroetakoak baino.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskara ikus-entzunezko komunikabideetan entzuteko aukerei ateratako probetxua




### ***Euskaraz irakurriz***

Ikasle gehienak euskaraz irakurtzen ahalegintzen dira. Ikasleen %38,9a horrelako aukerekin nahikoa baliatzen da, eta %11,3ak aukera hauek neurri oso handian ustiatzen ditu. Baina euskaraz irakurriz ikasi ahal izateko neurri nahiko eskasean baliatzen direnen multzoa ere garrantzitsua da (%31,2) eta neurri oso eskasean baliatzen direnak %2 dira. Tarteko egoeran %16,6ak osaturiko multzoa ageri da.

Barnetegiko ikasleak euskaraz irakurtzeko dituzten aukerekin neurri handiagoan baliatzen dira. Dena den, barnetegiko eta ordukako ikastaroko ikasleen artean joera berdintsuak nabari dira, ez dago desberdintasun handirik.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskaraz irakurtzeko aukerei ateratako probetxua**



## **3.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOEN DESKRIBAPENA**

### **3.3.1. NORK BERE BURUARI HAUTEMANIKO IKASTEKO GAITASUNA**


#### ***Euskara ikasteko, nork bere buruari hautemaniko gaitasuna***

Ikasleek hautemaniko euskara ikasteko gaitasuna oro har altua da: %37ak nahiko altua dela deritzo, eta %28,9ak oso altua dela hautematen du. Euren buruari tarteko mailako gaitasuna hautematen diotenak %19,5 dira, gaitasun nahiko urria dute la deritzoenak %11,4 dira, eta beste %3,3ak gaitasun oso urria hautematen du.

Ordukako ikastaroetako ikasleek, oro har, barnetegikoek baino gaitasun altuagoa hautematen dute.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskara ikasteko, nor bere buruari hautemaniko gaitasuna**




***Hizkuntzak ikasteko, nor bere buruari hautemaniko gaitasuna***

Ikasleek hautemaniko hizkuntzak ikasteko gaitasuna eskas samarra da: %37,2ak nahiko urria dela deritzo, eta %13,4ak oso urria dela sumatzen du. Euren buruari tarteko mailako gaitasuna hautematen diotenak %30,8 dira, gaitasun nahiko handia dutela deritzotenak %17,4 dira, eta beste %1,2ak gaitasun oso handia hautematen du.

Ordukako ikastaroetako ikasleek, oro har, hizkuntzak ikasteko gaitasun handiagoa hautematen diote euren buruari barnetegikoek baino.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Hizkuntzak ikasteko, nor bere buruari hautemaniko gaitasuna**




### *Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasun orokorra*

Hizkuntzari loturiko gaiak alde batera utzita, ikasleek oro har euren buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna nahiko altua da: %44,4ak gaitasun nahiko handia duela deritzo, eta %6ak oso handia duela hautematen du. Euren buruari tarteko mailako gaitasuna hautematen diotenak %31 dira, gaitasun nahiko urria dutela deritzotenak %14,5 dira, eta beste %4ak gaitasun oso urria hautematen dio bere buruari.

Ordukako ikastaroetako eta barnetegiko ikasleek hautematen dutenaren artean ez da desberdintasun esanguratsurik nabari.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasun orokorra**



### **3.3.2. HIZKUNTZAREN ZAILTASUNARI BURUZKO USTEAK**


#### *Hizkuntzak ikasteko jendeak duen gaitasunari buruzko ustea*

Ikasle gehienek hautematen dutenaren arabera ia mundu guztiak ikas dezake hizkuntza arrotz bat. Hizkuntzak ikasteko jendeak duen gaitasuna oso handia dela deritzo %41,9ak, eta beste %38,3ak nahiko handia dela adierazten du. Jendeari tarteko gaitasuna hautematen dio %10,1ak, %8,5ak gaitasun nahiko urria eta %1,2ak oso urria.

Ordukako ikastaroetako ikasleek hautemandako gaitasun orokorra barnetegikoek hautemandakoa baino altuxeagoa da, baina batzuek eta besteek hautematen dutenaren artean ez dago alde handirik.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Hizkuntzak ikasteko jendeak duen gaitasunari buruzko ustea




### *Euskara ikasteari hautemaniko zailtasuna (beste hizkuntzen aldean)*

Ikasle gehienek hautematen dutenaren arabera, euskara ikatea zaila da beste hizkuntzen ikaskuntzarekin alderatuz. Ikasleen %54,3ak euskara zaila dela adierazten du, eta beste %21,2ak oso zaila dela deritzo. Euskara beste hizkuntzen modukoa dela uste dutenak %22 dira, beste hizkuntzen aldean erraza dela uste dutenak %2 dira, eta oso erraza dela uste dutenak %0,4.

Barnetegiko ikasleek euskararen ikaskuntzari hautemandako zailtasuna ordukako ikastaroetakoek hautemandakoa baino altuxeagoa da, baina batzuek eta besteek hautematen dutenaren artean ez dago alde handirik.

(6 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskara ikasteari hautemaniko zailtasuna (beste hizkuntzen aldean)




### ***Euskararen ikas-prozesuaren iraupenaz iritzia***

Ikasle gehienek hautematen dutenaren arabera euskara ikasteko prozesua luzea da. Ikasleen %34,6ak dioenez, pertsona batek egunero ordubete emango balu euskara ikasten, 5-10 urte beharko luke jarioetasun ona lortzeko; %28ak 3-5 urtetan lortuko litzatekeela uste du, %9,9ak urtebete edo bi beharko liratekeela deritzo, eta %1,6ak urtebete baino gutxiagoan lortuko litzatekeela adierazten du. Ikasleen %25,9ak hautematen duenez, egunean ordubete arituz ezinezkoa da euskara ikastea.

Oro har, barnetegiko ikasleek hautemaniko ikas-prozesua ordukako ikastaroetakoek hautemandakoa baino luzeagoa da.

(8 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### **Euskararen ikas-prozesuaren iraupenaz iritzia (egunero ordubete ikasten jardunez gero)**




### **3.3.3. LORTZEKO IGURIKAPENA**

Ikasle gehienek lortzeko igurikapen altua dute, hots, euskaraz ondo hitz egiten ikasiko dutela uste dute. Ikasleen %42,7ak uste nahiko handia du, eta %23,6ak oso handia. Beste multzo garrantzitsu batek (%28,5) zalantzak adierazten ditu, eta porrota aurreikusten dutenak gutxiengoa dira: %4,1ak uste nahiko urria adierazten du, eta %1,2ak oso urria.

Barnetegiko ikasleen lortzeko igurikapena ordukako ikastaroetakoena baino zerbait altuxeagoa da.

(5 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Lortzeko igurikapena (euskaraz oso ondo hitz egitea lortzeko esperantza)



### 3.3.4. AUTODETERMINAZIO MAILA


Ikasteko motibazioaren autodeterminazio mailaren arabera, eta burujabetza maila handienetik txikienera doan eskalan, emaitzak honako hauek dira:

- Motibazio intrintsekoa du %9,2ak: erronkak atsegin dituztelako, gauza berriak ikastea interesgarria delako, bizigarria delako eta ondo pasatzen dutelako ikasten dute.
- Motibazio integratua du %19,3ak: Euskal Herrikoak direlako, eta euren identitate eta baloreekin bat egiten dutelako ikasten ari dira.
- Motibazio identifikatua du %26,5ak: euren garapenean laguntzen dielako, eta euren buruari jarritako helburuak lortzeko behar dutelako ikasten ari dira.
- Motibazio barneratua du %18,5ak: ez badute ikasten gaizki sentituko direlako, eta euren ingurukoengatik (seme-alabengatik ...) ari dira ikasten.
- Kanpotik ezarritako motibazioa du %25,7ak: behartuak sentitzen direlako, eta ikasketak egin eta lana topatu nahi badute euskara ikastea derrigorrezkoa dela iruditzen zaielako ari dira ikasten.
- Motibaziorik ez du %0,8ak (amotibazioa).

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleen autodeterminazio maila barnetegikoenak baino altuxeagoa da.

(2 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskara ikasteko erabakiaren autodeterminazio maila




### 3.3.5. IKASTEKO ESTRATEGIEI BURUZKO USTEAK: AKATSEN BELDURRA

#### *Akatsak kentzeko zailtasun hautemana*

Ikasle gehienek ustetan, akatsak hasieratik ez badira zuzentzen, gero kostatu da kentzea. Akatsak kentzeko zailtasun nahiko handia hautematen du ikasleen %48,8ak, eta beste %32,7ak zailtasun oso handia. Akatsak kentzeko zailtasuna tarteko mailan kokatzen dutenak %10,5 dira, eta beste %8,1ak zailtasun nahiko urria hautematen du.

Barnetegiko ikasleek akatsak kentzeko zailtasun handiagoa sumatzen dute ordukako ikastaroetakoek baino.

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)






### ***Akatsak kosta ahala kosta saihestu behar diren ustea***

Ikasleen artean ia parekoak diren bi multzo ditugu. Batzuek akatsak nola edo hala saihestu behar direla uste dute: gutxi hitz egingo bada ere, esaten dena behintzat ondo esan behar dela uste dute (%36,1a nahiko ados dago ikuspegi honekin, eta beste %11,1a oso ados). Beste multzoan aurkako ikuspegia dugu: hobe akatsen bat egitea isilik egotea baino (%36,9a nahiko ados dago ikuspegi honekin eta %4,5a oso ados). Bi ikuspegi horien artean zalantzak dituztenak ere badira, eta %11,5ak osatzen du beste multzo hau.

Ordukako ikastaroetako ikasleengan akatsak kosta ahala kosta ekidin behar direnaren usteak indar gehiago du barnetegiko ikasleen artean baino.

(7 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### **3.3.6. IKASTEAREN KOSTU PSIKOLOGIKOA**


#### ***Urduritasuna***

Ikasle gehienei euskaraz hitz egiteak urduritasuna eragiten die. Ikasleen %49,8ak sentitzen duen urduritasuna nahiko handia da, eta beste %16,6ak urduritasun oso handia aitortzen du. Tarteko maila %6,1ari dagokio, urduritasun nahiko urria sentitzen dutenak %19 dira, eta urduritasun hori oso urria dela adierazten dutenak %8,5 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleak barnetegikoak baino zertxobait urduriago ageri dira.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskaraz hitz egiteak eragindako urduritasuna




### Lotsa

Ikasle gehienak lotsatzen dira euskaraz hitz egitean. Ikasleen %43,7ak sentitzen duen lotsa nahiko handia da, eta beste %14,2ak oso lotsa handia aitortzen du. Tarteko maila %8,5ari dagokio, nahiko lotsa urria sentitzen dutenak %22,3 dira, eta lotsa hori oso urria dela adierazten dutenak %11,3 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleak barnetegikoak baino zertxobait lotsatiago ageri dira.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskaraz hitz egiteko gainditu beharreko lotsa



### Ikasgelan egindako hanka-sartzeek sorturiko kezka


Ikasle gehienak ez dira kezkatzen ikasgelan egindako hanka-sartzeek. Ikasgelan egindako akatsek kezka urria eragiten diote ikasleen %53,8ari eta oso urria

%14,2ari. Bestalde, ikasleen %21,9ak kezka nahiko handia aitortzen du, eta %2ak oso handia. Ikasleen %8,1a tarteko mailan kokatzen da.

Barnetegiko ikasleak ordukako ikastaroetakoak baino zerbait gehiago kezkatzen dira.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasgelan egindako hanka-sartzeek eragindako kezka**




### 3.3.7. EMAITZEN BALORAZIOA

Ikasle gehienek ikas-prozesuan aurrerapenak egiten direla hautematen dute eta lortzen ari diren emaitzekin pozik daude. Gehiengoaren (%59) asebetetze maila nahiko handia da, eta %18,9ak asebetetze maila oso handia agertzen du. Emaitzekiko asebetetze urria dutenek gutxiengoa osatzen dute (%7,6ak maila nahiko urria, eta %0,4ak maila oso urria). Tarteko asebetetze maila dutenak %14,1 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek euren emaitzen balorazio positiboagoa egiten dute barnetegikoekin alderatuz gero.

(2 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikas-prozesuan lortutako emaitzekiko asebetetze maila**



### 3.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLOGIKOEN DESKRIBAPENA

#### 3.4.1. IDENTITATEA


##### *Identitate nazionala*

Ikasleen artean bi multzo nagusi bereizten dira, bata identitate nazional euskalduna duena (ikasleen %40,6ak osatua) eta bestea identitate nazional euskaldun-espainiarra duena (ikasleen %40,2ak osaturiko multzoa). Identitate espainiarra dutenak gutxiengoa dira: %2,9, eta bestelako identitateak (katalana, flandiarra, mundukoa, irundarra...) dituztenak %16,3 dira.

Oro har, barnetegiko ikasleen identitate nazionala ordukako ikastaroetako ikasleena baino zertxobait euskaldunagoa da.

(12 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ikasleen identitate nazionala**




##### *Kulturaren eraginak*

Ikasleen multzoa oro har kontuan izanik, Euskal Herriko kultura da beraiengan eragin handiena duena, Espainiako kulturak eta Goierrikoak jarraitzen diote, Europako kulturaren eta Ameriketako Estatu Batuen eragina maila apalagoan agertzen delarik.


(25-30 ikaslek ez diote galdera multzo honi erantzun)

Goierriko kulturaren eragina askoz ere handiagoa da ordukako ikastaroetako ikasleen artean, barnetegiko ikasle gehienak ez baitira goierritarrak. Bestalde, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako kulturen eragin handiagoa dutela adierazten dute oro har.


**Ikasleek aitortutako kulturaren eraginene batez bestekoak**  
(1-5 eskala)




**Goierriko kulturaren eragina ikasleengan**




**Euskal Herriko kulturaren eragina ikasleengan**




### Espainiako kulturaren eragina ikasleengan



### Europako kulturaren eragina ikasleengan



### Estatu Batuetako kulturaren eragina ikasleengan



### 3.4.2. EUSKARAREKIKO ETA EUSKALDUNEKIKO JARRERAK


#### *Euskararekiko jarrerak*

Euskara deskribatzeko ikasle gehienek (%59,3) adjektibo positibo nahiz negatiboak erabili dituzte, %37,9ak ezaugarri positiboak soilik aipatu ditu, eta %2,9ak adjektibo negatiboak soilik aukeratu ditu.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino jarrera positiboagoak dituzte.

(8 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskararekiko jarrerak, euskara deskribatzeko erabilitako adjektiboen arabera**




#### *Euskaldunekiko jarrerak*

Euskaldunen –euskaraz hitz egiten dutenen– deskribapena egiterakoan ikasle gehienek (%68,8) adjektibo positiboak erabili dituzte, %30,7ak ezaugarri positibo eta negatiboak aipatu ditu, eta %0,5ak adjektibo negatiboak soilik aukeratu ditu.

Oro har, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino jarrera positiboagoak dituzte.

(62 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskaldunekiko jarrerak, euskaldunak deskribatzeko erabilitako adjektiboen arabera**




### ***Euskararen erabilerarekiko jarrerak***

Ikasle gehienek (%55,1) euskara orain erabiltzen dena baino gehiago erabiltzea nahi dute, baina ez diote lehentasun estatusik eman nahi. Beste %30,1ak euskara guztiok erabiltzea eta Euskal Herrian lehentasuna duen hizkuntza izatea nahi du. Egungo hizkuntza egoera mantentzea nahi dutenak %14,4 dira, eta orain erabiltzen dena baino gutxiago erabiltzea desio dutenak %0,4 dira.

Barnetegiko eta ordukako ikastaroetako ikasleek adierazten dutena alderatuz, barnetegiko ikasleak dira, oro har, euskararen erabilerari bultzada handiagoa eman nahi diotenak.

(15 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### **Euskararen erabilerarekiko jarrerak, etorkizunerako adierazitako nahien arabera**



### **3.4.3 SARE SOZIALEAN HAUTEMANIKO ERABILERA**


#### ***Etxean***

Ikasle gehienek etxeetan (%61,2) ia ez da euskararik erabiltzen (%0-20), eta beste %15,2 euskararen erabilera urria (%21-40) egiten den etxeetan bizi da. Euren etxeetan tarteko erabilera (%41-61) egiten dela adierazten dutenak %9,7 dira. Euskararen erabilera altua (%61-80) egiten den etxeetan, berriz, %6,8 bizi dira, eta erabilera oso altua (%81-100) egiten den etxeetan %7,2. Ordukako ikastaroetako ikasleen etxeetan, euskara gehiago erabiltzen da barnetegiko ikasleen etxeetan baino.

(14 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### Euskararen erabilera ikasleen etxeetan




### Lagunartean

Ikasleen %43,9aren lagunartean ia ez da euskararik erabiltzen (%0-20), eta beste %30,1 dira euskararen erabilera urria (%21-40) egiten duen lagunartea dutenak. Euren lagunartean tarteko erabilera (%41-61) egiten dela hautematen dutenak %14,6 dira. Euskararen erabilera altua (%61-80) egiten duen lagunartea dutenak %5,9 dira, eta erabilera oso altua (%81-100) egiten duen lagunartea dutenak %5,4.

Ordukako ikastaroetako ikasleen lagunartean euskara gehiago erabiltzen da barnetegiko ikasleen lagunartean baino.

(12 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskararen erabilera ikasleen lagunartean




### ***Lantokian, ikastetxean edo eguneroko jarduera nagusian***

Ikasle gehienek lantoki, ikastetxe edo eguneroko jarduera nagusian euskara gutxi erabiltzen da: %32,9ak erabilera oso urria (%0-20) egiten dela adierazten du eta beste %26,6ak erabilera urria (%21-40) salatzen du. Euren lantoki/ikastetxean tarteko erabilera (%41-61) egiten dela adierazten dutenak %21,5 dira. Esparru honetan euskararen erabilera altua (%61-80) hautematen dutenak %8 dira, eta erabilera oso altua (%81-100) egiten dela adierazten dutenak %11.

Ordukako ikastaroetako ikasleen lantoki/ikastetxean euskara gehiago erabiltzen da barnetegiko ikasleen jardueran baino.

(14 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskararen erabilera ikasleen lantoki/ikastetxean**




### ***Ikus-entzunezko komunikabideak entzutean***

Ikasle gehienek euskararen erabilera urria hautematen dute ikusten/entzuten dituzten komunikabideetan: %32,4ak euskara oso gutxi (%0-20) entzuten du komunikabideetan, eta beste %32,6ak nahiko gutxi (%21-40). Komunikabideetan euskara eta gaztelania neurri bertsuan (%41-61) entzuten dituztela adierazten dutenak %17,7 dira. Euskara ikus-entzunezko komunikabideetan neurri handian (%61-80) entzuten dutenak %12,2 dira, eta neurri oso handian (%81-100) entzuten dutela adierazten dutenak %5,1.

(14 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Ikus-entzunezko komunikabideetan ikasleek euskaraz entzuten dutenaren proportzioa



### 3.4.4. HIZKUNTZARI HAUTEMANIKO BIZITASUNA

#### EUSKAL HERRIAN


##### *Euskaldunen demografiaz iritzia*

Ikasleen %47,5ak Euskal Herriko populazioaren erdia (%41-61) euskalduna dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, %40,7ak, euskaldunen proportzioa urria (%21-40) dela deritzo, eta %5,5ak euskaldunen kopurua oso urria (%0-20) dela uste du. Euskaldunen proportzioa handia (%61-80) dela adierazten dutenak %6,4 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino demografia altuxeagoa hautematen diote euskaldunen demografiari.

(15 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)


#### Euskaldunen proportzioa gaur egun Euskal Herrian, ikasleen arabera



Etorkizunari begira, hemendik 20 urtera populazioaren gehiengoa euskalduna izango dela uste dute ikasle gehienek: %46,2ak Euskal Herriko biztanleen %61-80 euskalduna izango dela uste du, eta %9ak populazioaren %81-100 euskalduna izango dela pentsatzen du. Beste multzo garrantzitsu batek, %33,8ak, populazioaren erdia (%41-61) euskalduna izango dela uste du, eta gutxi dira euskaldunak gutxiago izango direla pentsatzen dutenak: %9,8ak euskaldunen kopurua urria (%21-40) izango dela uste du, eta %1,3ak oso urria (%0-20) izango dela adierazten du.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### Euskaldunen proportzioa hemendik 20 urtera Euskal Herrian, ikasleen arabera



#### Euskararen erabileraz iritzia

##### Euskal Herriko etxeetan

Ikasleen %38,5ak gaur egun Euskal Herriko etxeetan euskararen erabilera urria (%21-40) dela uste du, eta %14,3ak oso urria (%0-20). Beste multzo garrantzitsu batek, %32ak, erabilera maila tartekoa dela deritzo (%41-61). Euskararen erabilera altua (%61-80) dela uste dutenak %12,6 dira, eta oso altua (%81-100) dela uste dutenak %2,6 dira.


Ordukako ikastaroetako ikasleek, oro har, Euskal Herriko etxeetan euskara gehiago erabiltzen dela uste dute, eta barnetegikoek erabilera maila apalagoa dela adierazten dute.

Etorkizunari begira, etxeko erabilerak gora egingo duela uste du ikasleen gehien-goa. Hemendik 20 urtera, ikasleen %37,3ak euskararen erabilera maila tartekoa (%41-61) izango dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, %30,3ak, erabilera altua (%61-80) izango dela adierazten du, eta %7,9ak erabilera oso altua (%81-100) izango dela uste du. Etorkizunean erabilera urria (%21-40) aurreikusten dutenak %19,3 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) izango dela uste dutenak %5,3 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino erabilera handiagoa aurreikusten diote euskarari Euskal Herriko etxeetan.


(20 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko etxeetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**



(23 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko etxeetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia**



*Euskal Herriko kaleetan*

Ikasleen %50ak Euskal Herriko kaleetan euskararen erabilera urria (%21-40) dela adierazten du, eta %15,7ak oso urria (%0-20). Beste multzo garrantzitsu batek, %29,6ak, euskararen erabilera tartekoa (%41-61) dela uste du. Erabilera altua (%61-80) dela adierazten dutenak %4,3 dira, eta erabilera oso altua (%81-100) dela uste dutenak %0,4 dira.


Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek euskararen kaleko erabilera altuagoa dela uste dute, eta barnetegikoek erabilera maila urriagoa dela adierazten dute.

Etorkizunari begira, ikasleen %42,7ak euskararen tarteko erabilera (%41-61) aurreikusten du hemendik 20 urtera Euskal Herriko kaleetan. Beste multzo garrantzitsu batek, %29,1ak, erabilera altua (%61-80) izango duela uste du, eta %4,8ak erabilera oso altua (%81-100) aurreikusten du. Euskararen kaleko erabilera urria (%21-40) izango dela uste dutenak %17,6 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) izango dela uste dutenak %5,7 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino kaleko erabilera altuagoa aurreikusten dute Euskal Herrian, oro har.


(21 ikasleek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko kaleetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**



(24 ikasleek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko kaleetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia**




*Euskal Herriko lantokietan*

Euskararen erabilera lantokietan, oro har, urria da ikasle gehienen iritziz. Ikasleen %38,3ak Euskal Herriko lantokietan egiten den euskararen erabilera urria (%21-40) dela adierazten du, eta %37,4ak oso urria (%0-20) dela uste du. Ikasleen %17,4ak osaturiko multzoak euskararen erabilera maila tartekoa (%41-61) dela adierazten du. Erabilera altua (%61-80) hautematen dutenak %5,2 dira, eta erabilera oso altua (%81-100) dela uste dutenak %1,7 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek lantokietan euskara gehiago erabiltzen dela uste dute, eta barnetegikoek erabilera maila urriagoa dela uste dute.

(21 ikasleek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskal Herriko lantokietan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia




Etorkizunari begira, ikasleen %33ak hemendik 20 urtera Euskal Herriko lantokietan euskararen erabilera tartekoa (%41-61) izango dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, %30,8ak, erabilera urria (%21-40) izango dela pentsatzen du, eta %8,8ak erabilera oso urria (%0-20) aurreikusten du. Erabilera handia (%61-80) izango dela uste dutenak %18,9 dira, eta erabilera oso handia (%81-100) izango dela aurreikusten dutenak %8,4 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino euskararen erabilera altuagoa aurreikusten dute Euskal Herriko lantokietan, oro har.

(24 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskal Herriko lantokietan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia



### Euskal Herriko ikastetxeetan


Euskal Herriko ikastetxeetan euskara asko erabiltzen dela uste dute ikasle gehienek. Ikasleen %40,1ak erabilera handia (%61-80) dela adierazten du, eta %25ak euskararen erabilera oso handia (%81-100) dela uste du. Ikasleen %20,3ak osaturiko multzoak tarteko erabilera (%41-61) egiten dela pentsatzen du. Erabilera urria (%21-40) dela uste dutenak %11,2 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) dela adierazten dutenak %3,4 dira.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek Euskal Herriko ikastetxeetan euskara

gehiago erabiltzen dela uste dute, eta barnetegikoek erabilera urriagoa dela pentsatzen dute.

(19 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko ikastetxeetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**




Etorkizunari begira, ikasleen %55,3ak hemendik 20 urtera Euskal Herriko ikastetxeetan euskararen erabilera oso handia (%81-100) izango dela uste du, eta %25,9ak erabilera altua (%61-80) izango dela pentsatzen du. Multzo txikiago batek, %12,7ak, tarteko erabilera (%41-61) izango duela uste du. Ikastetxeetan etorkizunean euskararen erabilera urria izango dela pentsatzen dutenak gutxi dira: %3,5ak erabilera urria (%21-40) aurreikusten du, eta %2,6ak euskararen erabilera oso urria (%0-20) izango dela uste du.

Ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino euskararen erabilera altuagoa aurreikusten dute Euskal Herriko ikastetxeetan, oro har.

(23 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko ikastetxeetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia**



*Euskal Herriko Administrazioetan*

Euskal Herriko Administrazioetan euskararen erabilera, oro har, nahiko urria da ikasleen iritziz. Ikasleen %25,2ak erabilera urria (%21-40) dela adierazten du, eta %22,2ak oso urria (%0-20) dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, ikasleen




%26,5ak, erabilera tartekoa (%41-61) dela pentsatzen du. Erabilera handia (%61-80) dela irizten diotenak %19,6 dira, eta erabilera oso handia (%81-100) dela uste dutenak %6,5 dira.

Ordukako ikastaroetako ikasleek Euskal Herriko Administrazioetan euskara gehiago erabiltzen dela uste dute, oro har, eta barnetegikoek erabilera eskasagoa dela pentsatzen dute.

(21 ikasleek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko Administrazioetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**




Etorkizunari begira, ikasle gehienek erabilera altuagoa aurreikusten dute Euskal Herriko Administrazioetan: %28,1ak hemendik 20 urtera erabilera handia (%61-80) izango dela uste du, eta %24,6ak erabilera oso handia (%81-100) aurreikusten du. Beste multzo garrantzitsu batek, hau ere %24,6ak osaturikoa, euskarak Administrazioetan tarteko erabilera (%41-61) izango duela uste du. Administrazioetan euskararen erabilera urria aurreikusten dutenak gutxiengoa dira: %16,2ak erabilera urria (%21-40) izango dela uste du, eta %6,6ak erabilera oso urria (%0-20) izango dela pentsatzen du.

Ordukako ikastaroetako ikasleek barnetegikoek baino euskararen erabilera altuagoa aurreikusten dute Euskal Herriko Administrazioetan, oro har.

(23 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskal Herriko Administrazioetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia**




### *Euskal Herriko komunikabideetan*

Euskarazko komunikabideetan hautemaniko kontsumoa, oro har, urria da ikasle- en iritziz. Ikasleen %44,2ak euskarazko komunikabideen kontsumoa urria (%21-40) dela uste du, eta %20,6ak oso urria (%0-20) dela pentsatzen du. Beste multzo garrantzitsu batek, ikasleen %31,8ak, euskarazko komunikabideen kontsumoa tartekoa (%41-61) dela adierazten du. Euskarazko komunikabideen kontsumoa handia (%61-80) dela hautematen dutenak gutxi dira: %3,4.

Oro har, ordukako ikastaroetako ikasleek euskarazko komunikabideen kontsumoa handiagoa dela uste dute, eta barnetegikoek euskarazko komunikabideak gutxiago erabiltzen direla pentsatzen dute.

(18 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskarazko komunikabideen kontsumoa Euskai Herrian, ikasleen arabera**



## **GOIERRIN**


### *Euskaldunen demografiaz iritzia*

Ikasleen gehiengoak Goierriin euskaldun asko bizi dela uste du: %51,3ak Goierriko populazioaren gehiengoa (%61-80) euskalduna dela uste du, eta %6,4ak Goierriko ia biztanle guztiak (%81-100) euskaldunak direla pentsatzen du. Beste multzo garrantzitsu batek, %35,9ak, populazioaren erdia (%41-61) euskalduna dela deritzo. Euskaldunen proportzioa urria dela uste dutenak gutxi dira: %6ak euskaldunen kopurua urria (%21-40) dela uste du, eta %0,4ak oso urria (%0-20) dela deritzo.

Barnetegiko ikasleek, oro har, Goierriin euskaldun gehiago bizi dela uste dute, eta ordukako ikastaroetako ikasleen iritziz euskaldunen kopurua txikiagoa da.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskaldunen proportzioa gaur egun Goerrin, ikasleen arabera




Etorkizunari begira, hemendik 20 urtera populazioaren gehiengoa euskalduna izango dela uste dute ikasle gehienek: %51,3ak Goierriko biztanleen %61-80 euskalduna izango dela uste du, eta %35,9ak populazioaren %81-100 euskalduna izango dela pentsatzen du. Beste multzo txiki batek, %10,7ak, populazioaren erdia (%41-61) euskalduna izango dela uste du, eta gutxi dira euskaldunak gutxiengoa izango direla pentsatzen dutenak: %2,1ak euskaldunen kopurua urria (%21-40) izango dela uste du.

Etorkizunean Goierriko euskaldunen kopuruak gora egingo duela uste dute ikasleek. Barnetegikoen iritziz gorakada hau nabarmenagoa izango da, eta ordukako ikastaroetako ikasleen iritziz apalagoa.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskaldunen proportzioa hemendik 20 urtera Goerrin, ikasleen arabera



## ***Euskararen erabileraz iritzia***


### *Goierriko etxeetan*

Ikasleen %39,1ak Goierriko etxeetan euskararen erabilera handia (%61-80) dela uste du, eta %11,7ak oso handia (%81-100) dela deritzo. Beste multzo garrantzitsu batek, %32,2ak, tarteko erabilera hautematen du (%41-61). Erabilera urria (%21-40) dela uste dutenak %15,7 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) dela pentsatzen dutenak %1,3 dira.

Oro har, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino euskararen erabilera handiagoa hautematen dute Goierriko etxeetan.

(21 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Goierriko etxeetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**




Etorkizunari begira, ikasleen %43,4ak euskararen erabilera handia (%61-80) aurreikusten du Goierriko etxeetan hemendik 20 urtera, eta %28,3ak erabilera oso handia izango dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, %23ak, tarteko erabilera (%61-80) hautematen du. Etorkizunean erabilera urria (%21-40) egingo dela uste dutenak %4,9 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) izango dela uste dutenak %0,4 dira.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino euskararen erabilera handiagoa aurreikusten dute Goierriko etxeetan hemendik 20 urtera.

(25 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Goierriko etxeetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia**




*Goierriko kaleetan*

Ikasleen %42,3ak Goierriko kaleetan euskararen erabilera maila tartekoa (%41-61) dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, %30,4ak, erabilera handia (%61-80) hautematen du, eta erabilera oso altua (%81-100) dela uste dutenak %6,2 dira. Goierriko kaleetan euskararen erabilera urria (%21-40) hautematen dutenak %19,8 dira, eta oso urria (%0-20) dela uste dutenak %1,3 dira.

Oro har, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino euskararen erabilera altuagoa hautematen dute Goierriko kaleetan.

(24 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Goierriko kaleetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**




Etorkizunari begira, ikasleen %42,4ak euskararen erabilera handia (%61-80) aurreikusten du hemendik 20 urtera Goierriko kaleetan, eta beste %22,3ak erabilera oso handia (%81-100) izango dela uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, %28,1ak, euskararen erabilera tartekoa (%41-61) izango dela uste du. Goierriin etorkizunean euskararen kaleko erabilera urria (%21-40) aurreikusten dutenak %5,8 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) izango duela uste dutenak %1,3.

Oro har, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino kaleko erabilera altuagoa aurreikusten dute.

(27 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Goierriko kaleetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia**




*Goierriko lantokietan*

Euskararen erabilera Goierriko lantokietan nahiko urria da, ikasleen iritziz. Ikasleen multzo nagusienak, %36,4ak, tarteko erabilera (%41-61) hautematen du. Beste multzo garrantzitsu batek, %28,5ak, erabilera urria (%21-40) dela uste du, eta %9,2ak oso urria (%0-20). Ikasleen %18,4ak osaturiko multzoak euskararen erabilera handia (%61-80) dela pentsatzen du, eta erabilera oso altua (%81-100) dela uste dutenak %7,5 dira.

Oro har, barnetegiko ikasleek Goierriko lantokietan euskara gehiago erabiltzen dela uste dute, eta ordukako ikastaroetakoek erabilera urriagoa dela pentsatzen dute.

(23 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Goierriko lantokietan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia**




Etorkizunari begira, hemendik 20 urtera euskararen erabilera handia (%61-80) izango dela uste du ikasleen %35,3ak eta beste %18,8ak erabilera oso handia

(%81-100) aurreikusten du. Beste multzo garrantzitsu batek, %31,3ak, tarteko erabilera (%41-61) izango duela uste du. Euskarak lantokietan erabilera urria (%21-40) izango duela uste dutenak %12,9 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) izango duela uste dutenak %1,8.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino euskararen erabilera altuagoa aurreikusten dute Goierriko lantokietan.

(27 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### Goierriko lantokietan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia




#### Goierriko ikastetxeetan

Goierriko ikastetxeetan euskara asko erabiltzen dela uste dute ikasle gehienek. Ikasleen %59,2ak erabilera oso handia (%81-100) hautematen du, eta beste %24,6ak erabilera handia (%61-80) dela deritzo. Ikasleen %11,8ak osaturiko multzoak tarteko erabilera (%41-61) hautematen du. Erabilera urria (%21-40) dela uste dutenak %3,9 dira, eta erabilera oso urria (%0-20) dela pentsatzen dutenak %0,4 dira.

Barnetegiko ikasleek euskara gehiago erabiltzen dela uste dute, eta ordukako ikastaroetakoek erabilera urriagoa hautematen dute.

(23 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### Goierriko ikastetxeetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia




Etorkizunari begira, ikasleen %71k Goierriko ikastetxeetan euskararen erabilera hemendik 20 urtera oso handia (%81-100) izango dela uste du, eta %19,6ak erabilera handia (%61-80) izango dela pentsatzen du. Multzo txiki batek, %7,1ak, tarteko erabilera (%41-61) izango dela uste du. Ikastetxeetan euskararen erabilera urria izango dela aurreikusten dutenak oso gutxi dira: %1,8ak erabilera urria (%21-40) izango dela uste du, eta %0,4ak erabilera oso urria (%0-20) izango dela pentsatzen du.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino erabilera altuxeagoa aurreikusten dute.

(27 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### Goierriko ikastetxeetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia



#### Goierriko Administrazioetan


Goierriko Administrazioetan euskararen erabilera, oro har, nahiko altua dela irizten diote ikasleek. Multzo nagusienak, %28,6ak, tarteko erabilera (%41-61) hautematen du. Beste multzo garrantzitsu batek, ikasleen %27,3ak, erabilera handia (%61-80) dela uste du, eta erabilera oso handia (%81-100) dela pentsatzen dutenak %22,9 dira. Erabilera urria (%21-40) hautematen dutenak %16,3 dira, eta oso urria (%0-20) dela diotenak %4,8.

Barnetegiko ikasleek euskara gehiago erabiltzen dela uste dute, eta ordukako ikastaroetakoek erabilera urriagoa dela pentsatzen dute.

(24 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### Goierriko Administrazioetan gaur egun egiten den euskararen erabileraz iritzia




Etorkizunari begira, ikasle gehienek euskararen erabilera altuagoa aurreikusten dute Goierriko Administrazioetan: %38,8ak hemendik 20 urtera euskararen erabilera oso handia (%81-100) izango dela uste du, eta %30,4ak erabilera handia (%61-80) izango dela pentsatzen du. Beste multzo garrantzitsu batek, %23,2ak osaturikoak, euskarak Administrazioetan tarteko erabilera (%41-61) izango duela uste du. Administrazioetan euskararen erabilera urria izango dela pentsatzen dutenak gutxiengoa dira: %6,3ak erabilera urria (%21-40) aurreikusten du, eta %1,3ak erabilera oso urria (%0-20) izango dela uste du.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino erabilera altuagoa aurreikusten dute.

(27 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Goierriko Administrazioetan hemendik 20 urtera egingo den euskararen erabileraz iritzia



### Komunikabideetan


Euskarazko komunikabideei hautemaniko kontsumoa, oro har, nahiko handia da. Ikasleen multzo nagusienak –%38,9ak osaturikoak– Goierriko euskarazko komuni-

kabideen kontsumoa tartekoa (%41-61) dela uste du, hots, goierritarren komunikabideekiko harremanetan (egunkaria irakurtzean, irratia entzutean, telebista ikustean...) euskara eta gaztelania neurri bertsuan erabiltzen direla uste du. Beste multzo garrantzitsu batek, ikasleen %33,6ak, kontsumo handia (%61-80) hautematen die euskarazko komunikabideei, eta %4,8ak oso handia (%81-100). Euskarazko komunikabideen kontsumoa urria (%21-40) dela hautematen dutenak %17,5 dira, eta oso urria dela uste dutenak %5,2.

Oro har, barnetegiko ikasleek euskarazko komunikabideen kontsumo handiagoa hautematen dute, eta ordukako ikastaroetako iritziz euskarazko komunikabideak gutxiagotan irakurtzen, entzuten edo ikusten dira.

(22 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskarazko komunikabideen kontsumoa Goierrin, ikasleen iritziz**



***Euskara nola ikusia dagoen***


*Goierrin*

Goierrin euskara oso ondo ikusia dagoela uste du ikasleen gehiengoak: %66,9ak oso ondo ikusia dagoela adierazten du, %29,7ak ondo ikusia dagoela deritzo, %2,9ak “ez ondo, ez gaizki”, eta %0,4ak gaizki ikusia dagoela adierazten du.

Oro har, euskara Goierrin nola ikusia dagoen aztertzean, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino hobeto ikusia dagoela adierazten dute.

(12 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskara nola ikusia dagoen Goerrin, ikasleen iritziz**




*Euskal Autonomia Erkidegoan*

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ondo ikusia dagoela uste du ikasleen gehiengoak: %62,7ak ondo ikusia dagoela adierazten du, eta %24ak oso ondo ikusia dagoela deritzo. Euskara “ez ondo, ez gaizki” ikusia dagoela uste dutenak %12 dira, eta %1,3ak gaizki ikusia dagoela adierazten du.

Oro har, euskara Euskal Autonomia Erkidegoan nola ikusia dagoen aztertzean, ez dago desberdintasun handirik barnetegiko eta ordukako ikastaroetako ikasleen artean.

(18 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskara noia ikusia dagoen Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasleen iritziz**




*Euskal Herrian*

Euskal Herrian euskara ondo ikusia dagoela uste du ikasleen gehiengoak: %55,9ak ondo ikusia dagoela adierazten du, eta %25,8ak oso ondo ikusia dagoela deritzo. Euskara “ez ondo, ez gaizki” ikusia dagoela uste dutenak %16,5 dira, eta %1,7ak gaizki ikusia dagoela adierazten du.

Oro har, euskara Euskal Herrian nola ikusia dagoen aztertzean, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino hobeto ikusia dagoela adierazten dute.

(15 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskara nola ikusia dagoen Euskal Herrian, ikasleen iritziz**




*Espainian*

Espainian euskara ez dagoela “ez ondo, ez gaizki” ikusia adierazten du ikasleen multzo nagusiena osatzen duen %38,7ak. Ia parekoa den beste multzo garrantzitsu batek, %37,9ak, gaizki ikusia dagoela adierazten du, eta %17,9ak oso gaizki ikusia dagoela deritzo. Euskara Espainian ondo ikusia dagoela uste dutenak %5,1 dira, eta %0,4ak oso ondo ikusia dagoela adierazten du.

Oro har, euskara Espainian nola ikusia dagoen aztertzean, barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino okerrago ikusia dagoela adierazten dute.

(16 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskara noia ikusia dagoen Espainian, ikasleen iritziz**




### Nazioartean

Euskara nazioartean ez dagoela “ez ondo, ez gaizki” ikusia adierazten du ikasle-en %64,4ak. Beste multzo txikiago batek, %19,7ak, ondo ikusia dagoela adierazten du, eta %0,9ak oso ondo ikusia dagoela deritzo. Nazioartean euskara gaizki ikusia dagoela uste dutenak %9,9 dira, eta oso gaizki ikusia dagoela adierazten dutenak %5,2.

Oro har, euskara nazioartean nola ikusia dagoen aztertzean, ez dago desberdintasun handirik barnetegiko eta ordukako ikastaroetako ikasleen artean: ordukako ikastaroetakoak “ez ondo, ez gaizki” erantzuteko joera handiagoa dute, eta barnetegikoek maizago adierazten dute “ondo” edo “gaizki” ikusia dagoela.

(18 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskara nola ikusia dagoen nazioartean, ikasleen iritziz**




### 3.4.5. EUSKALDUNTZAT HARTZEKO BALDINTZA LINGUISTIKOEI EMANDAKO GARRANTZIA

Norbait euskalduntzat hartzeko bete beharreko baldintzei dagokienez, ikasleen gehiengoak (%57,9) baldintza linguistikoak (*euskaraz zerbait hitz egitea* edo *euskaraz ondo hitz egitea*) ez ditu garrantzitsuenen artean sailkatzen, ezta garrantzi gutxien dutenen artean ere. Gainerako ikasleak ia parekoak diren beste bi multzoe-tan banatzen dira: %21,8ak baldintza linguistikoak garrantzitsutzak ditu, eta beste %20,3ak ez direla garrantzitsuak adierazten du.

Oro har, baldintza linguistikoari emandako garrantziari dagokionez, ordukako ikastaroetako eta barnetegiko ikasleen artean ez dago desberdintasun handirik.

(54 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Norbait euskalduntzat hartzeko baldintza linguistikoei emandako garrantzia



### 3.4.6. EUSKARAREN BALIOA GIZARTEAN: BALIO SINBOLIKOA ETA BALIO PRAKTIKOA

Euskarak gizartean duen balio sinbolikoa haren balio praktikoa baino altuagoa da, ikasleek hautematen dutenez. Dena den, biak ere –balio sinbolikoa nahiz praktikoa– positiboki baloratzen dituzte ikasle gehienek.


#### *Balio sinbolikoa*

Euskarak gizartean balio sinboliko handia duela hautematen du ikasleen %42,6ak, eta %37,7ak oso handia duela uste du. Beste multzo batek, %10,2ak, tarteko balioa duela adierazten du, eta gutxi dira balio sinboliko urria duela hautematen dutenak: %8,2ak urria duela deritzo, eta %1,2ak oso urria duela adierazten du.

Euskarak gizartean duen balio sinbolikoa hautematean, ordukako ikastaroetako eta barnetegiko ikasleen artean ez da ia alderik ageri.

(7 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

#### Euskarak gizartean duen balio sinbolikoa, ikasleen arabera




### Balio praktikoa

Euskarak gizartean balio praktikoa handia duela hautematen du ikasleen %50,2ak, eta %20,8ak oso handia duela uste du. Beste multzo esanguratsu batek, %22,9ak, tarteko balioa duela adierazten du, eta gutxi dira balio praktikoa urria duela hautematen dutenak: %4,5ak urria duela deritzo, eta %1,6ak oso urria duela adierazten du.

Euskarak gizartean duen balio praktikoa hautematean, ordukako ikastaroetako eta barnetegiko ikasleen artean ez da desberdintasun nabarmenik ageri.

(6 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskarak gizartean duen balio praktikoa, ikasleen iritziz**



### 3.4.7. MOTIBAZIOAREN ORIENTAZIO NAGUSIA

*Euskara ikasteari ekiteko arrazoi nagusia, ordukako ikastaroetako ikasleen artean:*

*Eragile nagusia: Instrumentala (%24,2)*

- %9,1 Lanpostu on bat lortzeko
- %5,3 Jantziagoa egoteko
- %4,5 Etorkizuneko ikasketak errazteko
- %3 Lanpostuari eusteko
- %2,3 EGA edo beste azterketaren bat gainditzeko



%3 Besterik (saillkazezina)

*Eragile nagusia: Integratzailea (%72,7)*

- %15,9 Euskaldunekin komunikatu ahai izateko
- %15,2 Euskaraz bizitzeko eta hizkuntza indartzeko
- %14,4 Familiartekoekin hitz egiteko
- %8,3 Euskaldunak eta euskal kultura ezagutzeko
- %6,8 Euskaldunen artean eroso sentitzeko
- %4,5 Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko
- %3 Euskal komunitateko kide bihurtzeko
- %3 Euskaldun sentitzeko
- %0,8 Euskaldunak direlako
- %0,8 Euskal kultura jasaten ari den erasoei aurre egiteko

## Euskara ikasteari ekiteko arrazoi nagusia, barnetegiko ikasleen artean:

### Eragile nagusia: Instrumentala (%39,7)

%26,7	Lanpostu on bat lortzeko
%5,2	Lanpostuari eusteko
%5,2	Etorbizuneko ikasketak errazteko
%1,7	Jantziago egoteko
%0,9	EGA edo beste azterketaren bat gainditzeko



%4,3 Besterik (saillkazina)

### Eragile nagusia: Integratzailea (%56,1)

%21,6	Euskaraz bizitzeko eta hizkuntza indartzeko
%11,2	Euskaldunekin komunikatu ahal izateko
%7,8	Euskaldun sentitzeko
%7,8	Euskaldunak eta euskal kultura ezagutzeko
%1,7	Euskal kulturaren ekintzetan parte hartzeko
%1,7	Ideiak berritzeko eta ikuspuntuak zabaltzeko
%1,7	Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko
%1,7	Atsegin dutelako
%0,9	Euskaldunen artean eroso sentitzeko

(3 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

## Euskara ikasten jarraitzeko arrazoi nagusia, orduko ikastaroetako ikasleen artean:

### Eragile nagusia: Instrumentala (%24,3)

%7,9	Lanpostu on bat lortzeko
%3,9	Lanpostuari eusteko
%3,9	Etorbizuneko ikasketak errazteko
%3,9	EGA edo beste azterketaren bat gainditzeko
%3,9	Jantziago egoteko
%0,8	Jendearen errespetua lortzeko



%4,7 Besterik (saillkazina)

### Eragile nagusia: Integratzailea (%70,9)

%18,1	Familiartekoeekin hitz egiteko
%16,5	Euskaldunekin komunikatu ahal izateko
%12,6	Euskaraz bizitzeko eta hizkuntza indartzeko
%4,7	Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko
%4,7	Euskaldunak eta euskal kultura ezagutzeko
%4,7	Euskaldunen artean eroso sentitzeko
%2,4	Ideiak berritzeko eta ikuspuntuak zabaltzeko
%1,6	Euskal komunitateko kide bihurtzeko
%1,6	Euskaldun sentitzeko
%1,6	Euskal kulturaren ekintzetan parte hartzeko
%0,8	Lagun euskaldunak egiteko
%0,8	Atsegin dudalako
%0,8	Euskal kultura jasaten ari den erasoei aurre egiteko

## Euskara ikasten jarraitzeko arrazoi nagusia, barnetegiko ikasleen artean:

### Eragile nagusia: Instrumentala (%43,6)

%32,7	Lanpostu on bat lortzeko
%5,5	Lanpostuari eusteko
%2,7	Etorbizuneko ikasketak errazteko
%1,8	Jantziago egoteko
%0,9	EGA edo beste azterketaren bat gainditzeko



%1,8 Besterik (saillkazina)

### Eragile nagusia: Integratzailea (%54,4)

%20,9	Euskaraz bizitzeko eta hizkuntza indartzeko
%11,8	Euskaldunekin komunikatu ahal izateko
%5,5	Euskaldun sentitzeko
%2,7	Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko
%2,7	Euskal komunitateko kide bihurtzeko
%2,7	Euskaldunak eta euskal kultura ezagutzeko
%1,8	Familiartekoeekin hitz egiteko
%1,8	Euskal kulturaren ekintzetan parte hartzeko
%1,8	Ideiak berritzeko eta ikuspuntuak zabaltzeko
%0,9	Atsegin dutelako
%0,9	Euskaldunen artean eroso sentitzeko
%0,9	Euskal kultura jasaten ari den erasoei aurre egiteko

(14 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




### 3.4.8. EUSKARA IKASTEAK NORBERARENTZAT DUEN BALIO INTEGRATZAILEA ETA INSTRUMENTALA

Euskara ikasteari emandako balioak osagai integratzailea eta instrumentala ditu bere baitan. Integratzailea da ikasleei nagusiki eragiten dien faktorea, eta neurri txikiagoan instrumentala ere bai.

#### *Eragile integratzailea*

Ikasleen %36,8an eragile integratzailea tartekoa da. Ikasleen %23,2an eragile integratzailea handia da, eta %12,3an oso handia. Ikasleen %22,4an euskara ikasteko eragile integratzailea urria da, eta %5,3an oso urria. Oro har, eragile integratzailea sendoagoa da barnetegiko ikasleen artean ordukako ikastaroetako ikasleen artean baino.

(23 ikaslek ez diote galdera multzo honi erantzun)




#### *Eragile instrumentala*

Ikasleen %39,1ean eragile instrumentalaren maila tartekoa da. Ikasleen %34an eragile instrumentala urria da, eta %13,2an oso urria. Ikasleen %10,6an eragile instrumentala handia da, eta %3an oso handia. Oro har, eragile instrumentala handiagoa da barnetegiko ikasleen artean ordukako ikastaroetako ikasleen artean baino.

(16 ikaslek ez diote galdera multzo honi erantzun)

### Eragile instrumentala




### 3.4.9. LORTURIKO ONDORIOEN ORIENTAZIOA

Oraindaino ikasitakoaren ondorioz lortu dutenaren balorazioa egitean, batez ere integrazioa lortu dutela adierazten dute ikasleek: %88,3ak gehienbat ondorio integratzaileak aipatzen ditu, %8,5ak gehienbat ondorio instrumentalak, eta ikasleen %3,2ak ondorio integratzaileak eta instrumentalak neurri berekotzat ematen ditu.

(4 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskara ikastearen ondorioak



### 3.4.10. MOTIBAZIO-MAILA


Ikasleen motibazio-maila neurtzeko, “igurikapena bider balioa” delako teorian oinarrituz, euskara ikasteari norberak emandako balioa lortzeko igurikapenarekin biderkatu da. Eragiketa honen bidez ikasleen motibazio-maila orokorrari buruzko informazioa lortzen da.

Motibazio-maila urria azaltzen du ikasleen %39,8ak, eta beste %7,5ak oso urria. Beste multzo garrantzitsu batek, %33,6ak, tarteko motibazio-maila agertzen du.

Motibazio handia dutenak %17,3 dira, eta motibazio-maila oso handia dutenak %1,8 besterik ez.

Motibazio-maila handiagoa da barnetegiko ikasleen artean ordukako ikastaroetako ikasleen artean baino.

(25 ikaslek ez diote galdera multzo honi erantzun)




### 3.4.11. EUSKARAREN ETA EUSKALDUNEN EGOERAN ERAGITEKO BORONDATEA

#### *Euskaldunen kopurua handitzeko borondatea*

Ikasle gehienek euskaldunen kopurua handitzeko borondate sendoa adierazten dute: %40,7ak handia, eta %21,2ak oso handia. Tarteko maila dutenak %33,1 dira, eta euskaldunen kopurua handitzeko borondaterik gabekoak gutxi dira: %3,4ak borondate urria du, eta %1,7ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskaldunen kopurua handitzeko asmoari dagokionez.

(15 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




### ***Euskaldunen indarra handitzeko borondatea***

Ikasle gehienek euskaldunen indarra handitzeko borondate sendoa adierazten dute: %45,7ak handia, eta %15,8ak oso handia. Tarteko maila dutenak %23,5 dira, eta euskaldunen indarra handitzeko borondaterik gabekoak gutxi dira: %8,5ak borondate urria du, eta %6,4ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskaldunen indarra handitzeko asmoari dagokionez.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




### ***Euskaldunen estatusa hobetzeko borondatea***

Ikasle gehienek euskaldunen estatusa hobetzeko borondate sendoa adierazten dute: %41,7ak handia, eta %16,6ak oso handia. Tarteko maila dutenak %34,5 dira, eta euskaldunen estatusa hobetzeko borondaterik gabekoak gutxi dira: %3,8ak borondate urria du, eta %3,4ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskaldunen estatusa hobetzeko asmoari dagokionez.

(17 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




### 3.4.12. EUSKARA IKASTEARI/ERABILTZEARI BURUZKO ASMOAK

#### *Familian eta lagunartean euskara erabiltzeko asmoa*

Euskara familian eta lagunartean erabiltzeko borondate sendoa adierazten dute ikasle gehienek: %45,6ak handia, eta %36,1ak oso handia. Tarteko maila dutenak %11,2 dira, eta euskara familian eta lagunartean erabiltzeko asmorik gabekoak gutxi dira: %5,8ak borondate urria du, eta %1,2ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskara familian eta lagunartean erabiltzeko asmoari dagokionez.

(10 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)




#### *Ikasketetan/lanean euskara erabiltzeko asmoa*

Euskara ikasketetan/lanean erabiltzeko borondate sendoa adierazten dute ikasle gehienek: %56,4ak handia, eta %29,7ak oso handia. Tarteko maila dutenak %5,9 dira, eta euskara ikasketetan/lanean erabiltzeko asmorik gabekoak gutxi dira: %6,4ak borondate urria du, eta %1,7ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskara ikasketetan/lanean erabiltzeko asmoari dagokionez.

(15 ikasleek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskara ikasketetan/lanean erabiltzeko asmoa




### Administrazioekiko harremanetan euskara erabiltzeko asmoa

Euskara Administrazioekiko harremanetan erabiltzeko borondate sendoa adierazten dute ikasle gehienek: %48,7ak handia, eta %26,1ak oso handia. Tarteko maila dutenak %15,5 dira, eta euskara Administrazioekiko harremanetan erabiltzeko asmorik gabekoak gutxi dira: %6,3ak borondate urria du, eta %3,4ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskara Administrazioekiko harremanetan erabiltzeko asmoari dagokionez.

(13 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

### Euskara Administrazioekiko harremanetan erabiltzeko asmoa




### Euskara ikasi/erabiltzeko gogor lan egiteko asmoa

Euskara ikasteko eta erabiltzeko gogor lan egiteko borondate sendoa adierazten dute ikasle gehienek: %58,1ak handia, eta %29,5ak oso handia. Tarteko maila dutenak %10 dira, eta euskara ikasteko eta erabiltzeko gogor lan egiteko asmorik gabekoak gutxi dira: %2,1ak borondate urria du, eta %0,4ak oso urria.

Barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino borondate sendoagoa agertzen dute euskara ikasteko eta erabiltzeko gogor lan egiteko asmoari dagokionez.

(10 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### 3.4.13. EUSKARAREKIKO LEIALTASUNA


#### *Ezezagunekin hitz egitean*

Euskara gaztelania bezain ondo menderatzen dutela suposatuz, solaskidearen hizkuntza aukeratzeko joera dute ikasleek, eta solaskidea ezezaguna bada, aurreiritzi eta usteetan oinarrituz hartzen dute euren erabakia. Ikasleen %71,2ak solaskideari buruzko usteen araberako erabakia hartzen du: solaskidea euskalduna dela uste izanez gero, euskaraz ekiten diote elkarrizketari; bestela gaztelaniaz. Besteak beste solaskideren itxura, elkarrizketaren testuingurua eta inguruan entzun ohi den hizkuntza kontuan hartzen dituzte ikasle gehienek elkarrizketan euskara ala gaztelania erabiltzea erabakitzean.

Ikasleen %15,2ak osaturiko beste multzo batek, ezezagunekin hitz egitean, beti euskaraz ekingo lioke elkarrizketari; %10,7ak, berriz, beti gaztelaniaz; eta %2,9ak beste nolabaiteko irizpidean oinarrituriko erabakia hartuko luke.

(7 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Ezezagunekin hitz egitean aukeratuko luketen hizkuntza  
(ikasleak euskaraz gaztelaniaz bezain ondo dakiela suposatuz)**




***Euskaldunekin hitz egitean, solaskide horrekin gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean***

Euskara gaztelania bezain ondo menderatzen dutela suposatuz, solaskide batekin gaztelaniaz egiteko ohitura badute, hizkuntza hori aukeratzeko joera dute ikasleek: %56,8ak hartuko luke erabaki hori, hots, ohiturari jarraituz gaztelaniaz hitz egitea, nahiz eta jakin solaskidea euskalduna dela. Beste multzo batek, %35ak, ohitura gainditu eta euskaraz hitz egiteari ekingo lioke, eta %8,2ak beste nolabaiteko erabakiren bat hartuko luke: bi hizkuntzak erabili, testuinguruaren arabera erabaki...

(8 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskaldunekin hitz egitean aukeratuko luketen hizkuntza, gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean (ikasleak euskaraz gaztelaniaz bezain ondo dakiela suposatuz)**






***Euskaldunekin hitz egitean, solaskide horrekin gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean, baina solaskideak euskaraz hitz eginez elkarrizketari ekiten dionean***

Euskara gaztelania bezain ondo menderatzen dutela suposatuz, solaskide batekin gaztelaniaz egiteko ohitura badute, baina solaskide horrek elkarrizketari euskaraz ekiten badio, hizkuntza hori (euskara) aukeratzeko joera dute. Erabaki hori %93ak hartuko luke, hots, ohitura gainditu eta solaskideak ekindako bideari jarraituko lioke euskaraz erantzunez. Beste multzo txiki batek, %4,5ak, ohiturari jarraituko lioke, eta gaztelaniaz erantzun, nahiz eta solaskidea euskaraz hasi. Azkenik, %2,5ak beste nolabaiteko erabakiren bat hartuko luke.

(8 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskaldunekin hitz egitean aukeratuko luketen hizkuntza, gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean, baina solaskideak euskaraz hitz eginez elkarrizketari ekiten dionean (ikasleak euskaraz gaztelaniaz bezain ondo dakiela suposatuz)**




***Euskaldunekin hitz egitean, solaskide horrekin euskaraz egiteko ohitura dagoenean, baina solaskideak elkarrizketari gaztelaniaz ekiten dionean***

Euskara gaztelania bezain ondo menderatzen dutela suposatuz, solaskide batekin euskaraz egiteko ohitura badute, hizkuntza hori aukeratzeko joera dute ikasleek, baita solaskideak elkarrizketari gaztelaniaz ekiten badio ere. Ikasleen %63,1ak hartuko luke erabaki hori, hots, ohiturari jarraituz euskaraz hitz egingo luke, nahiz eta solaskidea gaztelaniaz hasi. Beste multzo batek, %33,6ak, ohitura alde batera utzi eta solaskideak aukeratutako hizkuntzan (gaztelaniaz) jarraituko luke elkarrizketa, eta %3,3ak beste nolabaiteko erabakiren bat hartuko luke.

(7 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskaldunekin hitz egitean aukeratuko luketen hizkuntza, euskaraz egiteko ohitura dagoenean, baina solaskideak elkarrizketari gaztelaniaz ekiten dionean (ikasleak euskaraz gaztelaniaz bezain ondo dakiela suposatuz)**




***Euskaldunekin hitz egitean, solaskide horrekin gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean, eta solaskideari gaztelaniaz hitz egitea erosoago egiten zaiola hautematen denean***

Ikasleek euskara gaztelania bezain ondo menderatzen dutela suposatuz, solaskide batekin gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean, eta gainera solaskideari hizkuntza hori erabiltzea errazagoa egiten zaiola hautematen bada, gaztelania erabiltzeko joera nagusitzen da. Ikasleen %74,2ak hartuko luke erabaki hori, hots, gaztelaniaz egitea (%31,5ak ohituragatik, eta %42,7ak solaskidearen hizkuntza aukeratzeagatik). Beste multzo batek, %22,4ak, ohituraren eta solaskidearen erosotasunaren gainetik, norberaren aukera (euskara) egingo luke, eta %3,3ak beste nolabaiteko erabakiren bat hartuko luke.

(10 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)

**Euskaldunekin hitz egitean aukeratuko luketen hizkuntza, gaztelaniaz egiteko ohitura dagoenean, eta solaskidea gaztelania erabiliz erosoago dagoela hautematen denean (ikasleak euskaraz gaztelaniaz bezain ondo dakiela suposatuz)**




### 3.4.14. ERDALDUNEN AURREAN EUSKARAZ HITZ EGITEKO ESKUBIDEA DUELAKO USTEA

Ikasle askok, euskaraz ez dakitenari zor zaien *errespetuagatik*, erdaldunen aurrean euskaraz hitz egitea ez dute ondo ikusten: %31,7ak gaizki ikusten du, eta %16,5ak oso gaizki. Beste multzo batek, %16,9ak, ez du iritzi argirik. Erdaldunen aurrean euskaraz hitz egitea ondo ikusten dutenak %25,5 dira, eta oso ondo ikusten dutenak %9,5. Iritzi hauen arabera, bakoitzak euskaraz hitz egiteko duen eskubideari buruzko uste ezberdinak sortzen dira, eta honek erabileran eragina izango du. Erdaldunen aurrean euskaraz hitz egitea oso gaizki ikusten duenak euskaraz hitz egiteko aukera gutxiago izango ditu, erdaldun baten presentzia hutsak euskara erabiltzea eragotziko baitio.

Ordukakoek barnetegikoek baino eskubide handiagoa dagoela uste dute erdaldunen aurrean euskaraz hitz egiteko.

(8 ikaslek ez diote galdera honi erantzun)



### 3.5. ERAGILE INTEGRATZAILEAK GAINERAKO ALDAGAIEKIN DITUEN ERLAZIOAK

#### 3.5.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK ETA ERAGILE INTEGRATZAILEA

Euskararako gaitasunarekin eta jaioterriarekin koerlazonaturik agertzen da eragile integratzailea:

- Euskararako gaitasun handiagoa duten ikasleek eragile integratzaile sendoa agertzeko joera dute.
- Euskararen erabilera handiagoa den lurraldeetan jaio diren ikasleen artean eragile integratzailea nabarmenago agertzeko joera dago.

Azterturiko gainerako aldagai demolinguistikoek (sexuak, adinak, bizilekuak, haurtzaroko hizkuntzak eta ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduak) eragile integratzailearekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Eragile integratzailearen eta aldagai demolinguistikoen arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai demolinguistikoak</b>	<b>Eragile integratzailea</b>
Sexua	- 0,06
Adina	0,01
Jaioterria	0,14*
Bizilekua Euskal Herrian (lurraldeko euskararen erabileraren arabera)	- 0,13
Bizilekua Goierrin (udalerrietako euskaldun proportzioaren arabera)	0,05
Euskararako gaitasuna	0,17*
Haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza	0,10
Ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduak (OHO/Lehen Hezkuntza eta DBH)	- 0,02

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

**3.5.2. EUSKARAREN IKAS-PROZESUA ETA ERAGILE INTEGRATZAIL-  
LEA**

Eragile integratzailea ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideekin koerlazioatzen da nagusiki:

- Ikasgelatik kanpo euskara ikasteko erabiltzen diren baliabideen eta eragile integratzailearen artean koerlazio esanguratsua agertzen da: zenbat eta gehiago erabili ikasgelatik at ikasteko baliabideak, orduan eta sendoagoa da eragile integratzailea.

Gainera, eragile integratzaileak ikasketen jarraitutasunarekin eta adinarekin koerlazioa izateko joera du:

- Euskararen ikas-prozesuan etenaldiren bat (edo gehiago) egin duten ikasleek eragile integratzaile handiagoa agertzeko joera dute.
- Adin handiagoarekin euskaltegian ikasteari ekin diotenek eragile integratzaile sendoagoa agertzeko joera dute.

Euskararen ikas-prozesuari loturiko gainerako aldagaiek (hasierako euskara mailak, ikasten jarduniko ikasturte kopuruak, aurreratutako urratsen kopuruak, ikas-prozesuaren erritmoak, ikastaroaren balorazioak, taldeko giroa eta irakasleei buruzko balorazioak) eragile integratzailearekin dituzten erlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

## Eragile integratzailearen eta ikas-prozesuaren arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b><i>Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak</i></b>	<b><i>Eragile integratzailea</i></b>
Euskara maila euskaltegian ikasteari ekitean	0,13
Adina euskaltegian ikasteari ekitean	- 0,15*
Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopurua	- 0,01
Euskaltegian aurreratutako urratsak	0,04
Ikas-prozesuaren erritmoa	0,01
Ikasketen jarraitutasuna	- 0,16*
Ikastaroaren balorazioa	0,03
Taldeko giroa	0,04
Irakasleei buruzko balorazioa	0,06
Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak	0,37**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.5.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK ETA ERAGILE INTEGRATZAILEA

Autodeterminazio maila, lortzeko igurikapena, hizkuntza ikastearen zailtasunari buruzko usteak, ikasteaz uste izandako kostu psikologikoa eta emaitzen balorazioa eragile integratzailearekin maila esanguratsuan koerlazonaturik agertzen dira:

- Euskara ikasteko erabakia hartzean autodeterminazio maila altuagoa duten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa dute.
- Lortzeko igurikapen handiagoa duten ikasleek, hots, euskaraz ondo ikasteko itxaropen handiagoa dutenek, eragile integratzaile sendoagoa agertzen dute.
- Hizkuntza ikasteko zailtasunaz duten usteari dagokionez, zailtasun txikiagoa ikusten duten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa agertzen dute.
- Euskara ikasteak duen kostu psikologikoari dagokionez (urduritasuna, lotsa...), kostu psikologiko txikiagoa hautematen diotenek eragile integratzaile handiagoa dute.
- Emaitzen balorazioari dagokionez, balorazio positiboagoa egiten duten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa agertzen dute.

Gainerako aldagai psikologikoei (nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna eta akatsen beldurra) eragile integratzailearekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

## Eragile integratzailearen eta aldagai psikologikoen arteko erlazioak

(Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai psikologikoak</b>	<b>Eragile integratzailea</b>
Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna	0,10
Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak	- 0,25**
Lortzeko igurikapena	0,27**
Autodeterminazio maila	0,31**
Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra	0,10
Ikastearen kostu psikologikoa	- 0,24**
Eraitzen balorazioa	0,20**

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.5.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLINGUISTIKOAK ETA ERAGILE INTEGRATZAILEA

Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa, motibazio-maila, euskara ikaste-ri/erabiltzeari buruzko asmoak, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea, eragile instrumentala, identitatea, euskararen erabilpenarekiko jarrera, euskararekiko jarrera orokorra, sare sozialean duen erabileraz ustea, euskararekiko leialtasuna, erdaldunen aurrean euskaraz hitz egiteko eskubideaz ustea, euskaldunetikiko jarrera, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia eta euskarari orokorrean gizartean hautemaniko balio praktikoa eragile integratzailearekin maila esanguratsuan koerlazonaturik agertzen dira:

- Euskara ikasteari balio handia ematen dioten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa agertzen dute.
- Motibazioaren intentsitate altuagoa duten ikasleek eragile integratzaile nabarmenagoa dute.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoenak dituzten ikasleek eragile integratzaile handiagoa dute.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena dutenek eragile integratzaile sendoagoa dute.
- Eragile instrumentala sendoagoa denean eragile integratzailea ere sendoagoa da.
- Identitate euskalduna sendoagoa duten ikasleen artean eragile integratzailea handiagoa da.
- Euskararen erabilerari buruzko jarrera positiboa duten ikasleek, hots, euskara gehien erabiltzea nahi duten ikasleek, eragile integratzaile nabarmenagoa dute.
- Euskararekiko jarrera orokorra hobea duten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa dute.
- Sare sozialean euskararen erabilera altua dela uste duten ikasleek eragile integratzaile handiagoa agertzen dute.

- Euskararekiko leialtasun handiagoa agertzen duten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa dute.
- Erdaldunen aurrean euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea handiagoa den heinean, eragile integratzailea nabarmenagoa da.
- Euskaldunekiko jarrera positiboagoa denean, eragile integratzailea handiagoa da.
- Euskaldun izateko baldintza linguistikoei garrantzi handiagoa ematen zaien neurrian, eragile integratzailea sendoagoa da.
- Euskarari oro har gizartean hautemaniko balio praktikoa handia denean, eragile integratzailea nabarmenagoa da.

Gainera, euskarari hautemaniko balio sinbolikoak eta euskara ikastearen ondorio instrumentalaren balorazioak eragile integratzailearekin koerlazioa izateko joera dute:

- Euskarak gizartean balio sinboliko handia duela uste duten ikasleek eragile integratzaile sendoagoa agertzeko joera dute.
- Euskara ikastearen ondorio instrumentalaren balorazio urria egiten duten ikasleek eragile integratzaile altuagoa agertzeko joera dute.

Beste aldagai psikosoziolinguistikoek (euskarari hautemaniko bizitasuna eta euskara ikastearen ondorio integratzaileen balorazioa) eragile integratzailearekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### Eragile integratzailearen eta aldagai psikosoziolinguistikoaren arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai psikosoziolinguistikoak</b>	<b>Eragile integratzailea</b>
Identitatea	0,55**
Euskararekiko jarrera	0,44**
Euskaldunekiko jarrera	0,29**
Euskararen erabilpenarekiko jarrera	0,53**
Sare sozialean hautemaniko erabilera	0,36**
Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna	0,04
Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia	0,22**
Euskararen balio sinbolikoa gizartean	0,17*
Euskararen balio praktikoa gizartean	0,22**
Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa	0,90**
Eragile integratzailea	-
Eragile instrumentala	0,58**
Euskara ikastearen ondorio integratzaileak	0,12
Euskara ikastearen ondorio instrumentalak	- 0,14*
Motibazio-maila	0,74**
Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea	0,63**
Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak	0,68**
Euskararekiko leialtasuna	0,35**
Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea	0,35**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.6. ERAGILE INSTRUMENTALAK GAINERAKO ALDAGAI EKIN DITU- EN ERLAZIOAK

#### 3.6.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK ETA ERAGILE INSTRUMENTALAK

Eragile instrumentala adinarekin, euskararako gaitasunarekin, ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduarekin eta bizilekuarekin koerlazio naturik agertzen da:

- Ikasle gazteenen artean eragile instrumentala sendoagoa da.
- Euskararako gaitasun handiagoa duten ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzen dute.
- Ikasketetan hizkuntza eredu euskaldunagoak jarraitu dituztenek eragile instrumental sendoagoa dute.
- Euskararen erabilera txikiagoa den lurraldeetan bizi diren ikasleen artean eragile instrumental nabarmenagoa ageri da.

Aztertutako gainerako aldagai demolinguistikoek (sexuak, jaioterriak, bizileku den Goierriko udalerriko euskaldunen proportzioak eta haurtzaroko hizkuntzak) eragile instrumentalarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

#### Eragile instrumentalaren eta aldagai demolinguistikoen arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai demolinguistikoak</b>	<b>Eragile instrumentala</b>
Sexua	0,07
Adina	- 0,27**
Jaioterria	0,03
Bizilekua Euskal Herrian (lurraldeen euskararen erabilerekin arabera)	- 0,18**
Bizilekua Goierriko udalerrietako euskaldunen proportzioarekin arabera)	0,11
Euskararako gaitasuna	0,24**
Haurtzaroko ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza	0,02
Ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduak (OHO/Lehen Hezkuntza eta DBH)	0,19**

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

#### 3.6.2. EUSKARAREN IKAS-PROZESUA ETA ERAGILE INSTRUMENTALAK

Eragile instrumentala maila esanguratsuan koerlazioztatzen da adinarekin, euskaltegian ikasteari ekitean ikasleek zuten euskararako gaitasunarekin eta ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideekin:

- Euskaltegian euskara ikasteari ekitean gazteenak ziren ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzen dute.



- Euskaltegian ikasteari ekitean euskararako gaitasun handiagoa zuten ikasleek eragile instrumental sendoagoa dute.
- Ikasgelatik kanpo euskara ikasteko baliabideak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta sendoagoa da eragile instrumentala.

Ikas-prozesuari loturiko gainerako aldagaiek (ikasten jarduniko ikasturte kopuruak, aurreratutako urratsen kopuruak, ikas-prozesuaren erritmoak, ikasketen jarraitutasunak, ikastaroaren balorazioak, taldeko giroak eta irakasleei buruzko balorazioak) eragile instrumentalarekin dituzten erlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### **Eragile integratzailearen eta ikas-prozesuaren arteko erlazioak** (Pearson koerlazioak)

<b><i>Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak</i></b>	<b><i>Eragile instrumentala</i></b>
Euskara maila euskaltegian ikasteari ekitean	0,22**
Adina euskaltegian ikasteari ekitean	- 0,26**
Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopurua	- 0,11
Euskaltegian aurreratutako urratsak	0,02
Ikas-prozesuaren erritmoa	0,13
Ikasketen jarraitutasuna	- 0,12
Ikastaroaren balorazioa	- 0,07
Taldeko giroa	0,08
Irakasleei buruzko balorazioa	- 0,07
Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak	0,20**

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### **3.6.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK ETA ERAGILE INSTRUMENTALA**

Lortzeko igurikapena eragile instrumentalarekin maila esanguratsuan koerlazio-naturik ageri da:

- Lortzeko igurikapen handiagoa duten ikasleek, hots, euskaraz ondo ikasteko itxaropen handiagoa dutenek, eragile instrumental sendoagoa agertzen dute.

Gainera, norberak lorturiko emaitzen balorazioak eta nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasunak eragile instrumentalarekin koerlazioa izateko joera dute:

- Emaitzen balorazioari dagokionez, balorazio positiboagoa egiten duten ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzeko joera dute.
- Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasunari dagokionez, gaitasun handia dutela uste dutenek eragile instrumental sendoagoa agertzeko joera dute.

Gainerako aldagai psikologikoek (hizkuntza ikastearen zailtasunari buruzko

usteak, ikasteko erabakiaren autodeterminazio mailak, akatsen beldurrak eta euskara ikastearen kostu psikologikoak) eragile instrumentalarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Eragile instrumentalaren eta aldagai psikologikoen arteko erlazioak**  
(*Pearson* koerlazioak)

<b>Aldagai psikologikoak</b>	<b>Eragile instrumentala</b>
Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna	0,13*
Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak	- 0,11
Lortzeko igurikapena	0,26**
Autodeterminazio maila	0,05
Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra	0,09
Ikastearen kostu psikoogikoa	- 0,12
Emaitzen balorazioa	0,14*

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.6.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLINGUISTIKOAK ETA ERAGILE INSTRUMENTALA

Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa, motibazio-maila, eragile integratzailea, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea, euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak, euskarari hautemaniko balio sinboliko eta praktikoak, euskaldunekiko jarrera, euskara ikastearen ondorio instrumentalen balorazioa eta euskararekiko jarrera orokorra eragile instrumentalarekin maila esanguratsuan koerlazioan turik ageri dira:

- Euskara ikasteari balio handia ematen dioten ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzen dute.
- Motibazioaren intentsitate altuagoa duten ikasleek eragile instrumental nabarmenagoa dute.
- Eragile integratzailea sendoagoa denean eragile instrumentala ere sendoagoa da.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena dutenek eragile instrumental sendoagoa dute.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoenak dituzten ikasleek eragile instrumental handiagoa dute.
- Euskarak gizartean balio sinboliko handia duela uste duten ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzen dute.
- Euskarak gizartean balio praktiko handia duela uste duten ikasleek eragile instrumental nabarmenagoa dute.

- Euskaldunekiko jarrera positiboagoa denean, eragile instrumentala handiagoa da.
- Euskara ikastearen ondorio instrumentalen balorazio altua egiten duten ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzen dute.
- Euskararekiko jarrera orokorra hobea duten ikasleek eragile instrumental sendoagoa dute.

Gainera, identitateak, sare sozialean hautemaniko euskararen erabilerak eta euskararen erabilpenarekiko jarrerak eragile instrumentalarekin koerlazioak izateko joera dute:

- Identitate euskaldunagoa duten ikasleek eragile instrumental sendoagoa agertzeko joera dute.
- Sare sozialean euskararen erabilera altua hautematen duten ikasleek eragile instrumental handiagoa agertzeko joera dute.
- Euskararen erabilpenarekiko jarrera positiboagoa dutenek eragile instrumental sendoagoa agertzeko joera dute.

Beste aldagai psikosoziolinguistikoei (euskarari hautemaniko bizitasunak, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantziak, euskara ikastearen ondorio integratzaileen balorazioak, euskararekiko leialtasunak eta erdaldunen aurrean euskara erabiltzeko hautemaniko eskubideak) eragile instrumentalarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### **Eragile instrumentalaren eta aldagai psikosoziolinguistikoen arteko erlazioak** (Pearson koerlazioak)

<b><i>Aldagai psikosoziolinguistikoak</i></b>	<b><i>Eragile instrumentala</i></b>
Identitatea	0,17*
Euskararekiko jarrera	0,17**
Euskaldunekiko jarrera	0,19**
Euskararen erabilpenarekiko jarrera	0,14*
Sare sozialean hautemaniko erabilera	0,15*
Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna	0,13
Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia	0,14
Euskararen balio sinbolikoa gizartean	0,20**
Euskararen balio praktikoa gizartean	0,20**
Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa	0,88**
Eragile integratzailea	0,58**
Eragile instrumentala	-
Euskara ikastearen ondorio integratzaileak	- 0,09
Euskara ikastearen ondorio instrumentalak	0,19**
Motibazio-maila	0,73**
Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea	0,56**
Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak	0,37**
Euskararekiko leialtasuna	0,11
Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea	0,07

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.7. LORTZEKO IGURIKAPENAK GAINERAKO ALDAGAIEKIKO DITUEN ERLAZIOAK

#### 3.7.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK ETA LORTZEKO IGURIKAPENA

Lortzeko igurikapena adinarekin eta haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntzarekin koerlazonaturik ageri da:

- Ikasle gazteenen artean lortzeko igurikapena handiagoa da.
- Euskara haurtzaroan ikasi eta etxean erabili zuten ikasleen artean lortzeko igurikapena handiagoa da.

Gainera, euskararako gaitasunak lortzeko igurikapenarekin koerlazioa izateko joera du:

- Euskararako gaitasun handiagoa duten ikasleen artean lortzeko igurikapen handiagoa agertzeko joera hautematen da.

Azterturiko gainerako aldagai demolinguistikoe (sexuak, jaioterriak, bizilekuak eta ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduak) lortzeko igurikapenarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

#### Lortzeko igurikapenaren eta aldagai demolinguistikoen arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai demolinguistikoak</b>	<b>Lortzeko igurikapena</b>
Sexua	0,02
Adina	- 0,18**
Jaioterria	0,03
Bizilekua Euskal Herrian (lurraldeetako euskararen erabileraren arabera)	0,00
Bizilekua Goierrin (udalerrietako euskaldunen proportzioaren arabera)	0,10
Euskararako gaitasuna	0,16*
Haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza	0,23**
Ikasketetan jarraitutako hizkuntza eredu (OHO/Lehen Hezkuntza eta DBH)	0,7

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

#### 3.7.2. IKAS-PROZESUA ETA LORTZEKO IGURIKAPENA

Lortzeko igurikapena maila esanguratsuan koerlazonatzen da ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideekin eta euskaltegian ikasteari ekitean ikasleek zuten euskararako gaitasunarekin:

- Ikasgelatik kanpo euskara ikasteko baliabideak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta sendoagoa da lortzeko igurikapena.

- Euskaltegian ikasteari ekitean euskararako gaitasun handiagoa zuten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa dute.

Gainera, lortzeko igurikapenak euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopuruarekin eta aurreratutako urratsen kopuruarekin koerlazioa izateko joera du:

- Euskaltegietan ikasten urte gehiagotan aritu diren ikasleen artean lortzeko igurikapenak urriagoa izateko joera du.
- Euskaltegian ikasten hasi zirenetik urrats gehiago aurreratu dituzten ikasleen artean lortzeko igurikapenak urriagoa izateko joera du.

Ikas-prozesuari loturiko gainerako aldagaiak (hasierako adinak, prozesuaren eritimoak, ikasketen jarraitutasunak, ikastaroaren balorazioak, taldeko giroak eta irakasleei buruzko balorazioak) lortzeko igurikapenarekin dituzten erlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### Lortzeko igurikapenaren eta ikas-prozesuaren arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b><i>Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak</i></b>	<b><i>Lortzeko igurikapena</i></b>
Euskara maila euskaltegian ikasteari ekitean	0,31**
Adina euskaltegian ikasteari ekitean	- 0,05
Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopurua	- 0,17*
Euskaltegian aurreratutako urratsak	- 0,14*
Ikas-prozesuaren eritimoa	0,11
Ikasketen jarraitutasuna	- 0,03
Ikastaroaren balorazioa	0,04
Taldeko giroa	0,03
Irakasleei buruzko balorazioa	0,05
Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak	0,34**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.7.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK ETA LORTZEKO IGURIKAPENA

Hizkuntza ikasteko zailtasunari buruzko usteak, emaitzen balorazioak, nork bere buruari hautemaniko gaitasunak eta ikastearen kostu psikologikoak lortzeko igurikapenarekin maila esanguratsuan koerlazonaturik ageri dira:

- Hizkuntza ikasteko zailtasun handiagoa dutela uste duten ikasleek lortzeko igurikapen txikiagoa agertzen dute.
- Emaitzen balorazio positiboa egiten duten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa agertzen dute.
- Nork bere buruari gaitasun handiagoa hautematen dioten ikasleen artean lortzeko igurikapena handiagoa da.

- Euskara ikastearen kostu psikologiko handiagoa hautematen duten ikasleek lortzeko igurikapen txikiagoa dute.

Gainerako aldagai psikologikoez (euskara ikasteko erabakiaren autodeterminazio mailak eta akatsen beldurrak) lortzeko igurikapenarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### **Lortzeko igurikapena eta aldagai psikologikoen arteko erlazioak** (*Pearson* koerlazioak)

<b><i>Aldagai psikologikoak</i></b>	<b><i>Lortzeko igurikapena</i></b>
Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna	0,34**
Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak	- 0,37**
Lortzeko igurikapena	-
Autodeterminazio maila	- 0,07
Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra	0,11
Ikastearen kostu psikologikoa	- 0,27**
Eraitzen balorazioa	0,35**

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### **3.7.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLINGUISTIKOAK ETA LORTZEKO IGURIKAPENA**

Motibazio-maila, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea, euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak, euskara ikasteak norberarentzat duen balioa, euskararekiko jarrera orokorra, identitatea, eragile integratzailea eta instrumentala, sare sozialean hautemaniko erabilera, euskararen erabilpenarekiko jarrera eta euskararekiko leialtasuna lortzeko igurikapenarekin maila esanguratsuan koerlazioan turik ageri dira:

- Motibazioaren intentsitate altuagoa duten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa dute.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena duten ikasleek lortzeko igurikapen sendoagoa dute.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoenak dituzten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa dute.
- Euskara ikasteari balio handia ematen dioten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa agertzen dute.
- Euskararekiko jarrera orokorra hobea duten ikasleek lortzeko igurikapen sendoagoa dute.
- Identitate euskaldunagoa duten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa agertzeko joera dute.
- Eragile integratzailea sendoagoa denean, lortzeko igurikapena handiagoa da.
- Eragile instrumentala sendoagoa denean, lortzeko igurikapena handiagoa da.

- Sare sozialean euskararen erabilera altua dela uste duten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa agertzen dute.
- Euskararen erabilpenarekiko jarrera positiboagoa dutenek lortzeko igurikapen sendoagoa agertzen dute.
- Euskararekiko leialtasun handiagoa agertzen duten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa dute.

Gainera, lortzeko igurikapenarekin koerlazioa izateko joera du euskaldunekiko jarrerak:

- Euskaldunekiko jarrera positiboagoa denean, lortzeko igurikapenak handiagoa izateko joera du.

Beste aldagai psikosoziolinguistikoei (euskarari hautemaniko bizitasunak, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantziak, euskararen balio sinbolikoak eta praktikokoak gizartean, euskara ikastearen ondorio integratzaileen eta instrumentalen balorazioak, eta erdaldunen aurrean euskara erabiltzeko hautemaniko eskubideak) lortzeko igurikapenarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### Lortzeko igurikapenaren eta aldagai psikosoziolinguistikoen arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai psikosoziolinguistikoa</b>	<b>Lortzeko igurikapena</b>
Identitatea	0,27**
Euskararekiko jarrera	0,28**
Euskaldunekiko jarrera	0,16*
Euskararen erabilpenarekiko jarrera	0,23**
Sare sozialean hautemaniko erabilera	0,23**
Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna	0,06
Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia	0,12
Euskararen balio sinbolikoa gizartean	0,09
Euskararen balio praktikoa gizartean	0,06
Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa	0,30**
Eragile integratzailea	0,27**
Eragile instrumentala	0,26**
Euskara ikastearen ondorio integratzaileak	- 0,01
Euskara ikastearen ondorio instrumentalak	0,04
Motibazio-maila	0,76**
Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea	0,33**
Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak	0,33**
Euskararekiko leialtasuna	0,18**
Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea	0,04

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.8. MOTIBAZIO-MAILAK GAINERAKO ALDAGAIEKIN DITUEN ERLAZIOAK

#### 3.8.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK ETA MOTIBAZIO-MAILA

Motibazioaren intentsitea euskararako gaitasunarekin, adinarekin eta haurtzarosan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntzarekin koerlazonaturik ageri da:

- Euskararako gaitasun handia duten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Ikasle gazteenen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Euskara haurtzarosan ikasi eta etxean erabili zuten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.

Azterturiko gainerako aldagai demolinguistikoek (sexuak, jaioterriak, bizilekuak eta ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduak) motibazio-mailarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

#### Motibazio-mailaren eta aldagai demolinguistikoen arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai demolinguistikoak</b>	<b>Motibazio-maila</b>
Sexua	0,02
Adina	- 0,18**
Jaioterria	0,11
Bizilekua Euskal Herrian (lurraldeetako euskararen erabileraren arabera)	- 0,10
Bizilekua Goierriin (udalerrietako euskaldunen proportzioaren arabera)	0,11
Euskararako gaitasuna	0,25**
Haurtzarosan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza	0,18**
Ikasketetan jarraitutako hizkuntza eredu (OHO/Lehen Hezkuntza eta DBH)	0,12

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

#### 3.8.2. IKAS-PROZESUA ETA MOTIBAZIO-MAILA

Motibazio-maila neurri esanguratsuan koerlazonatzen da ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideekin, euskaltegian ikasteari ekitean ikasleek zuten euskararako gaitasunarekin eta hasierako adinarekin:

- Ikasgelatik kanpo euskara ikasteko baliabideak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta handiagoa da motibazio-maila.
- Euskaltegian ikasteari ekitean euskararako gaitasun handiagoa zuten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Euskaltegietan ikasteari ekitean gazteago ziren ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.



Ikas-prozesuari loturiko gainerako aldagaiak (euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopuruak, aurreratutako urratsek, ikas-prozesuaren erritmoak, ikasketen jarraiketasunak, ikastaroaren balorazioak, taldeko giroak eta irakasleei buruzko balorazioak) motibazio-mailarekin dituzten erlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Motibazio-mailaren eta ikas-prozesuaren arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b><i>Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak</i></b>	<b><i>Motibazio-maila</i></b>
Euskara maila euskaltegian ikasteari ekitean	0,32**
Adina euskaltegian ikasteari ekitean	- 0,18**
Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopurua	- 0,11
Euskaltegian aurreratutako urratsak	- 0,07
Ikas-prozesuaren erritmoa	0,10
Ikasketen jarraiketasuna	- 0,11
Ikastaroaren balorazioa	- 0,01
Taldeko giroa	0,04
Irakasleei buruzko balorazioa	0,01
Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak	0,40**

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.8.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK ETA MOTIBAZIO-MAILA

Lortzeko igurikapena, hizkuntza ikasteko zailtasunari buruzko usteak, nor bere buruari hautemaniko gaitasuna, ikastearen kostu psikologikoa eta emaitzen balorazioa motibazio-mailarekin maila esanguratsuan koerlazonaturik ageri dira:

- Lortzeko igurikapen handiagoa duten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Hizkuntza ikasteko zailtasun handiagoa hautematen duten ikasleek motibazioaren intentsitate txikiagoa agertzen dute.
- Nork bere buruari gaitasun handiagoa hautematen dioten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Euskara ikastearen kostu psikologiko handiagoa hautematen duten ikasleek motibazioaren intentsitate txikiagoa dute.
- Emaitzen balorazio positiboagoa egiten duten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.

Gainera, autodeterminazio maila eta motibazio-maila erlazonaturik agertzen dira:

- Euskara ikasteko erabakiari dagokionez autodeterminazio maila altuagoa duten ikasleen artean motibazioaren intentsitate handiagoa agertzeko joera dago.

Ikasteko estrategiei buruzko usteak (akatsen beldurrak) motibazio-mailarekin dituen koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Motibazio-mailaren eta aldagai psikologikoen arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai psikologikoak</b>	<b>Motibazio-maila</b>
Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna	0,32**
Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak	- 0,33**
Lortzeko igurikapena	0,76**
Autodeterminazio maila	0,17*
Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra	0,11
Ikastearen kostu psikologikoa	- 0,31**
Emaitzen balorazioa	0,30**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.8.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLOGIKOAK ETA MOTIBAZIO-MAILA

Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa, eragile integratzailea eta instrumentala, euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea, identitatea, euskararekiko jarrera orokorra, euskararen erabilpenarekiko jarrera, sare sozialean hautemaniko erabilera, euskaldunekiko jarrera, euskararekiko leialtasuna, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia, euskarari hautemaniko balio praktikoa, erdaldunen aurrean euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea eta euskarari hautemaniko balio sinbolikoa maila esanguratsuan motibazio-mailarekin koerlazonaturik ageri dira:

- Euskara ikasteari balio handia ematen dioten ikasleek motibazioaren intentsitate handiagoa agertzen dute.
- Eragile integratzailea sendoagoa denean motibazio-maila handiagoa da.
- Eragile instrumentala sendoagoa denean motibazio-maila handiagoa da.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoenak dituzten ikasleek motibazioaren intentsitate handiagoa dute.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena duten ikasleek motibazioaren intentsitate handiagoa dute.
- Identitate euskaldunagoa duten ikasleek motibazioaren intentsitate handiagoa agertzen dute.
- Euskararekiko jarrera orokor positiboagoa duten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Euskararen erabilpenerako jarrera positiboagoa dutenek motibazioaren intentsitate handiagoa agertzen dute.

- Sare sozialean euskararen erabilera altua hautematen duten ikasleek motibazioaren intentsitate handiagoa agertzen dute.
- Euskaldunekiko jarrera positiboagoa denean, motibazio-maila handiagoa da.
- Euskararekiko leialtasun handiagoa agertzen duten ikasleek motibazioaren intentsitate handiagoa dute.
- Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia handia den heinean motibazio-maila ere handia da.
- Euskarak gizartean balio praktiko handia duela hautematen duten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.
- Erdaldunen aurrean euskara erabiltzeko eskubidea handia dela uste den heinean motibazio-maila ere handia da.
- Euskarak gizartean balio sinboliko handia duela uste duten ikasleen artean motibazio-maila handiagoa da.

Beste aldagai psikosoziolinguistikoeak (euskarari hautemaniko bizitasunak eta euskara ikastearen ondorio integratzailearen eta instrumentalen balorazioak) motibazio-mailarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

### Motibazio-mailaren eta aldagai psikosoziolinguistikoen arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai psikosoziolinguistikoak</b>	<b>Motibazio-maila</b>
Identitatea	0,41**
Euskararekiko jarrera	0,41**
Euskaldunekiko jarrera	0,27**
Euskararen erabilpenarekiko jarrera	0,36**
Sare sozialean hautemaniko erabilera	0,31**
Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna	0,12
Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia	0,21**
Euskararen balio sinbolikoa gizartean	0,17**
Euskararen balio praktikoa gizartean	0,20**
Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa	0,83**
Eragile integratzailea	0,74**
Eragile instrumentala	0,73**
Euskara ikastearen ondorio integratzaileak	0,00
Euskara ikastearen ondorio instrumentalak	0,06
Motibazio-maila	-
Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea	0,50**
Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak	0,58**
Euskararekiko leialtasuna	0,25**
Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea	0,18**

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.9. EUSKARARAKO GAITASUNAK GAINERAKO ALDAGAIEKIN DITUEN ERLAZIOAK

#### 3.9.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK ETA EUSKARARAKO GAITASUNA

Ikasketetan jarraitutako hizkuntza ereduarekin, bizilekuarekin, adinarekin, haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntzarekin eta jaioterriarekin koerlazioanaturik ageri da euskararako gaitasuna maila esanguratsuan:

- Ikasketetan hizkuntza eredu euskaldunak jarraitu dituzten ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.
- Lurralde erdaldunagoetan bizi diren ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.
- Ikasle gazteenen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Euskara haurtzaroan ikasi eta etxean erabili zuten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Lurralde euskaldunagoetan jaiotako ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.

Gainera, koerlazioa izateko joera dago sexuaren eta euskararako gaitasunaren artean:

- Emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino euskararako gaitasun handiagoa izateko joera ageri da.

Bizilekua Goierrin duten ikasleen kasuan, udalerrri bakoitzeko euskaldunen proportzioak ikasleen euskararako gaitasunarekin duen koerlazioa ez da estatistikoki esanguratsua.

#### Euskararako gaitasunaren eta aldagai demolinguistikoen arteko erlazioak (Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai demoinguistikoak</b>	<b>Euskararako gaitasuna</b>
Sexua	0,14*
Adina	- 0,27**
Jaioterria	0,17**
Bizilekua Euskal Herrian (lurraldeetako euskararen erabileraren arabera)	- 0,37**
Bizilekua Goierrin (udalerrietako euskaldunen proportzioaren arabera)	0,07
Euskararako gaitasuna	-
Haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza	0,25**
Ikasketetan jarraitutako hizkuntza eredu (OHO/Lehen Hezkuntza eta DBH)	0,38**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.9.2. IKAS-PROZESUA ETA EUSKARARAKO GAITASUNA

Euskararako gaitasuna maila esanguratsuan koerlazonatzen da euskaltegian aurreratutako urratsen kopuruarekin, hasierako adinarekin, hasierako euskararako gaitasunarekin, irakasleei eta ikastaroari buruzko balorazioarekin, ikas-prozesuaren erritmoarekin, ikasketen jarraikitasunarekin eta ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideekin:

- Euskaltegian ikasten hasi zirenetik urrats ugari aurreratu dituzten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Euskaltegietan ikasteari ekitean gazteago ziren ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Euskaltegian ikasteari ekitean euskararako gaitasun handiagoa zuten ikasleen artean egungo euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Irakasleei buruzko balorazio negatiboagoa egiten duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Ikastaroaren balorazio negatiboagoa egiten duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Ikas-prozesuaren erritmo biziagoa duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Ikasketetan etenaldiren bat (edo gehiago) egin izan duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Ikasgelatik kanpo euskara ikasteko baliabideak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta handiagoa da euskararako gaitasuna.

Gainera, koerlazioa izateko joera dago taldean hautemaniko giroaren eta euskararako gaitasunaren artean:

- Taldeko giro negatiboagoa hautematen duten ikasleen artean euskararako gaitasunak altuagoa izateko joera du.

Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopuruak euskararako gaitasunarekin dituen erlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Euskararako gaitasunaren eta ikas-prozesuaren arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b><i>Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak</i></b>	<b><i>Euskararako gaitasuna</i></b>
Euskara maila euskaltegian ikasteari ekitean	0,47**
Adina euskaltegian ikasteari ekitean	- 0,53**
Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopurua	0,10
Euskaltegian aurreratutako urratsak	0,54**
Ikas-prozesuaren erritmoa	0,25**
Ikasketen jarraitutasuna	- 0,22**
Ikastaroaren balorazioa	- 0,28**
Taldeko giroa	- 0,14*
Irakasleei buruzko balorazioa	- 0,35**
Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak	0,19**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)  
\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.9.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK ETA EUSKARARAKO GAITASUNA

Nork bere buruari hautemaniko gaitasuna eta euskara ikastearen kostu psikologikoa eta emaitzen balorazioa euskararako gaitasunarekin maila esanguratsuan koerlazonaturik ageri dira:

- Nork bere buruari ikasteko gaitasun handiagoa hautematen dioten ikasleen artean euskararako gaitasuna txikiagoa da.
- Euskara ikastearen kostu psikologiko handiagoa hautematen duten ikasleen artean euskararako gaitasuna txikiagoa da.

Gainera, koerlazioa izateko joera ageri da lortzeko igurikapenaren eta euskararako gaitasunaren artean:

- Lortzeko igurikapen handiagoa duten ikasleen artean euskararako gaitasunak handiagoa izateko joera du.

Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak, autodeterminazio mailak, ikasteko estrategiei buruzko usteak (akatsen beldurrak) eta emaitzen balorazioak euskararako gaitasunarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Euskararako gaitasunaren eta aldagai psikologikoen arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b><i>Aldagai psikologikoak</i></b>	<b><i>Euskararako gaitasuna</i></b>
Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna	- 0,18**
Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak	0,00
Lortzeko igurikapena	0,16*
Autodeterminazio maila	- 0,11
Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra	- 0,09
Ikastearen kostu psikologikoa	- 0,17**
Emaitzen balorazioa	- 0,05

\* sig. 0,05 (joerazkoa)  
\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### 3.9.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLINGUISTIKOAK ETA EUSKARARAKO GAITASUNA

Identitatea, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea, motibazio-maila, euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak, euskararen erabilpenerako jarrera, eragile instrumentala eta euskara ikasteari emandako balioa euskararako gaitasunarekin maila esanguratsuan koerlazonaturik ageri dira:

- Identitate euskaldunagoa duten ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena duten ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.
- Motibazioaren intentsitate handia duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoenak dituzten ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.
- Euskararen erabilpenerako jarrera positiboagoa duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Eragile instrumentala sendoagoa denean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Euskara ikasteari balio handia ematen dioten ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.

Euskararako gaitasunarekin koerlazioa izateko joera duten aldagaiak eragile integratzailea, sare sozialean hautemaniko euskararen erabilera eta euskarari hautemaniko bizitasuna dira:

- Eragile integratzailea sendoagoa denean euskararako gaitasuna handiagoa da.
- Sare sozialean euskararen erabilera altua hautematen duten ikasleek euskararako gaitasun handiagoa dute.
- Euskarari bizitasun handiagoa hautematen dioten ikasleen artean euskararako gaitasuna urriagoa da.

Beste aldagai psikosoziolinguistikoez (euskararekiko eta euskaldunekiko jarre-  
rak, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantziak, euskarari hau-  
temaniko balio sinbolikoak eta praktikoak, euskara ikastearen ondorio integratzaile-  
leen eta instrumentalen balorazioak, euskararekiko leialtasunak eta erdaldunen  
aurreran euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubideak) euskararako gaitasunare-  
kin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Euskararako gaitasunaren eta aldagai psikosoziolinguistikoen arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b>Aldagai psikosoziolinguistikoak</b>	<b>Euskararako gaitasuna</b>
Identitatea	0,36**
Euskararekiko jarrera	0,08
Euskaldunekiko jarrera	0,14
Euskararen erabilpenerako jarrera	0,24**
Sare sozialean hautemaniko erabilera	0,16*
Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna	- 0,14*
Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia	0,06
Euskararen balio sinbolikoa gizartean	- 0,10
Euskararen balio praktikoa gizartean	- 0,08
Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa	0,23**
Eragile integratzailea	0,17*
Eragile instrumentala	0,24**
Euskara ikastearen ondorio integratzaileak	- 0,11
Euskara ikastearen ondorio instrumentalak	0,04
Motibazio-maila	0,25**
Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea	0,34**
Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak	0,24**
Euskararekiko leialtasuna	0,06
Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea	0,05

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### **3.10. NORBERAREN EMAITZEN BALORAZIOAK GAINERAKO ALDAGAIKIN DITUEN ERLAZIOAK**

#### **3.10.1. ALDAGAI DEMOLINGUISTIKOAK ETA NORBERAREN EMAITZEN BALORAZIOA**

Emaitzen balorazioaren eta adinaren artean koerlazioa izateko joera dago:

- Ikasle gazteenen artean norberaren emaitzen balorazioa hobea da.

Gainerako aldagai demolinguistikoek (sexuak, jaioterriak, bizilekuak, euskararako gaitasunak, haurtzaroko hizkuntzak eta ikasketatetan jarraitutako hizkuntza ereduak) emaitzen balorazioarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.



**Norberaren emaitzen balorazioaren eta aldagai  
demolinguistikoen arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b>Aldagal demolinguistikoak</b>	<b>Emaitzen balorazioa</b>
Sexua	- 0,06
Adina	- 0,14*
Jaioterria	- 0,03
Bizilekua Euskal Herrian (lurraldeetako euskararen erabileraren arabera)	0,05
Bizilekua Goierrin (udalerrietako euskaldunen proportzioaren arabera)	0,10
Euskararako gaitasuna	- 0,05
Hautzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza	0,09
Ikasketetan jarraitutako hizkuntza eredu (OHO/Lehen Hezkuntza eta DBH)	0,07

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

### 3.10.2. IKAS-PROZESUA ETA NORBERAREN EMAITZEN BALORAZIOA

Norberaren emaitzen balorazioa maila esanguratsuan koerlazionatzen da ikastaroaren eta irakasleei buruzko balorazioarekin, ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideekin eta aurreratutako urratsekin:

- Ikastaroaren balorazio positiboa egiten duten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioa ere positiboagoa da.
- Irakasleei buruzko balorazio positiboa egiten duten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioa ere positiboagoa da.
- Ikasgelatik kanpo euskara ikasteko baliabideak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta hobea da norberaren emaitzen balorazioa.
- Euskaltegian ikasten hasi zirenetik urrats ugari aurreratu dituzten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioa negatiboagoa da.

Gainera, emaitzen balorazioak joerazko erlazioak ditu taldean hautemaniko giroarekin eta hasierako euskararako gaitasunarekin:

- Taldeko giro positiboa hautematen duten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioak positiboagoa izateko joera du.
- Euskaltegian ikasteari ekitean euskararako gaitasun handiagoa zuten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioak positiboa izateko joera du.

Gainerako aldagaiek (hasierako adinak, ikasten jarduniko ikasturte kopuruak, ikas-prozesuaren erritmoak eta ikasketen jarraitutasunak) emaitzen balorazioarekin duten koerlazioa ez da estatistikoki esanguratsua.

**Norberaren emaitzen balorazioaren eta ikas-prozesuaren arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b><i>Ikas-prozesuari dagozkion aldagaiak</i></b>	<b><i>Emaitzen balorazioa</i></b>
Euskara maila euskaltegian ikasteari ekitean	0,14*
Adina euskaltegian ikasteari ekitean	- 0,07
Euskaltegian ikasten jarduniko ikasturte kopurua	- 0,01
Euskaltegian aurreratutako urratsak	- 0,18**
Ikas-prozesuaren erritmoa	- 0,06
Ikasketen jarraitutasuna	0,08
Ikastaroaren balorazioa	0,43**
Taldeko giroa	0,14*
Irakasleei buruzko balorazioa	0,26**
Ikasgelatik at ikasteko erabilitako baliabideak	0,26**

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

**3.10.3. ALDAGAI PSIKOLOGIKOAK ETA NORBERAREN EMAITZEN BALORAZIOA**

Emaitzen balorazioa maila esanguratsuan eta positiboki koerlazionatzen da nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasunarekin eta lortzeko igurikapenarekin, eta neurri esanguratsuan, baina negatiboki, hizkuntzari hautemaniko zailtasunarekin eta ikastearen kostu psikologikoarekin:

- Nork bere buruari ikasteko gaitasun handiagoa hautematen dioten ikasleen artean emaitzen balorazioa hobea da.
- Lortzeko igurikapen handiagoa duten ikasleen artean emaitzen balorazioa hobea da.
- Hizkuntza ikasteari zailtasun handiagoa hautematen dioten ikasleen artean emaitzen balorazioa negatiboagoa da.
- Euskara ikasteari kostu psikologiko handiagoa hautematen dioten ikasleen artean emaitzen balorazioa negatiboagoa da.

Ikasteko erabakiaren autodeterminazio mailak eta ikasteko estrategiei buruzko usteak (akatsen beldurra) emaitzen balorazioarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Norberaren emaitzen balorazioaren eta aldagai psikologikoen arteko erlazioak**  
(Pearson koerlazioak)

<b><i>Aldagai psikologikoak</i></b>	<b><i>Emaitzen balorazioa</i></b>
Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna	0,35**
Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak	- 0,31**
Lortzeko igurikapena	0,35**
Autodeterminazio maila	0,01
Ikasteko estrategiei buruzko usteak: akatsen beldurra	0,06
Ikastearen kostu psikologikoa	- 0,27**
Emaitzen balorazioa	-

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

### **3.10.4. ALDAGAI PSIKOSOZIOLINGUISTIKOAK ETA NORBERAREN EMAITZEN BALORAZIOA**

Norberaren emaitzen balorazioa neurri esanguratsuan koerlazionatzen da motibazio-mailarekin, euskararekiko jarrerarekin, eragile integratzailearekin eta euskara ikasteari emandako balioarekin:

- Motibazioaren intentsitate handia duten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioa positiboagoa da.
- Euskararekiko jarrera positiboa duten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioa hobea da.
- Eragile integratzailea sendoagoa denean, norberaren emaitzen balorazioa hobea da.
- Euskara ikasteari balio handia ematen dioten ikasleen artean norberaren emaitzen balorazioa positiboagoa da.

Euskararako gaitasunarekin koerlazioa izateko joera duten aldagaiak segidako hauek dira: sare sozialean hautemaniko euskararen erabilera, euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak, eragile instrumentala eta euskararen erabilpenarekiko jarrera.

- Sare sozialean euskararen erabilera altua hautematen duten ikasleek emaitzen balorazio hobea egiten dute.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoenak dituzten ikasleen artean emaitzen balorazioa hobea da.
- Eragile instrumentala sendoagoa denean, emaitzen balorazioa hobea da.
- Euskararen erabilpenarekiko jarrera positiboagoa duten ikasleen artean emaitzen balorazioa hobea da.

Beste aldagai psikosoziolinguistikoek (identitateak, euskaldunekiko jarrerek, hizkuntzari hautemaniko bizitasunak, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantziak, euskarari hautemaniko balio sinbolikoak eta praktikoak, euskara ikastearen ondorio integratzaileen eta instrumentalen balorazioak, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondateak, euskararekiko leialtasunak eta erdaldunen aurreran euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubideak) emaitzen balorazioarekin dituzten koerlazioak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

**Norberaren emaitzen balorazioaren eta  
aldagai psikosoziolinguistikoen arteko erlazioak**  
(*Pearson* koerlazioak)

<b><i>Aldagai psikosoziolinguistikoak</i></b>	<b><i>Emaitzen balorazioa</i></b>
Identitatea	0,11
Euskararekiko jarrera	0,23**
Euskaldunekiko jarrera	0,11
Euskararen erabilpenerako jarrera	0,13*
Sare sozialean hautemaniko erabilera	0,16*
Hizkuntzari hautemaniko bizitasuna	- 0,01
Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia	0,14
Euskararen balio sinbolikoa gizartean	0,11
Euskararen balio praktikoa gizartean	0,12
Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa	0,19**
Eragile integratzailea	0,20**
Eragile instrumentala	0,14*
Euskara ikastearen ondorio integratzaileak	0,05
Euskara ikastearen ondorio instrumentalak	0,11
Motibazio-maila	0,30**
Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea	0,10
Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak	0,16*
Euskararekiko leialtasuna	0,06
Erdaldunen aurrean ere euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea	0,04

\* sig. 0,05 (joerazkoa)

\*\* sig. 0,01 (esanguratsua)

## IV. AZTERKETA KUALITATIBOAREN EMAITZAK

### 4.1. IKASTEKO ARRAZOTIAK

Goierriko euskaltegietako ikasleek dituzten arrazoi guztiak azaltzea ikerlan honen helmenetik at dago, baina eztabaida-taldeetan hizpide izan diren eragile nagusi batzuen aipamena egitea interesgarri izan daiteke. Ondorengo lerroetan, ikasleek eta irakasleek esandakoaren berri eman ostean, zein eztabaida-taldetan eta zein unetan egindako adierazpena den azalduko da parentesi artean. Lau eztabaidataldeei buruzko xehetasunak 2.3.2. atalean agertzen dira, eta denbora, berriz, grabagailuaren urratsen arabera neurturikoa da.

#### **Integrazio nahia**

Integrazioa helburu duten ikasleentzat, euskara, inguru sozialarekin harreman bereziak ahalbidetzen duen komunikazio-tresna izateaz gain, sinboloa ere bada, eta sentimenduei loturik dago. (2T, 054)

Sarritan pertsona esanguratsu batzuekin dituzten harremanen eraginagatik erabakitzen dute ikasleek euskara ikastea, edo talde batekin identifikazio handiagoa izateko ekiten diote ikas-prozesuari:

“Nire lagunartean euskaraz hitz egiten da eta nik ere ikasi nahi dut.” (3T, 045)

Gure testuinguruan euskaraz hitz egiten ez dutenek ez dute komunikazio arazo larririk jasaten. Hots, Goierrin –eta Hego Euskal Herria osoan– ia jende guztiak daki gaztelaniaz hitz egiten. Haurren hezkuntzan euskarak gaur egun duen lehentasunagatik, funtsean euskaraz bizi den haur belaunaldi bat sortu da (etxeko hizkuntza ere euskara den kasuetan), baina hauek ere berehala ikasten dute gaztelania, eta Goierriko pertsona helduak zein gazteak gaztelaniaz komunikatzeko gai dira. Beraz, euskaraz ez dakitenek ez dute komunikazio arazo handirik.

Baina hizkuntzek, komunikatzeko baliagarri izateaz gain, beste funtzio asko betetzen dituzte, eta euskararako gaitasunak kualitatiboki ezberdinak diren harre-

manak ahalbidetzen ditu. Hizkuntza gutxiagotu baten hiztunen artean hizkuntzarekiko konpromisoa berritzeko aukera sortzen da elkarrizketa bakoitzean, eta honekin batera nolabaiteko konplizitate sortzen da, gainerakoentzat (erdaldunentzat) erakargarria izan daitekeena, batzuegan ikasteko gogoia ere pizten duena. Gogo hori indar handikoa denean, baldintza txarrenetan ere gauzatzen da; beste batzuetan baldintza egokiren zain egoten da:

“Euskal Herrian bizi naizenez, beti ikasi nahi izan dut. Orain aukera ikusi dut eta ...” (3T, 017)

“Euskara ikasiz hutsune bat betetzen da nire barruan.” (3T, 468)

### **Euskarararen beharra lanerako**

Lan bila dabiltzan gazteak dira euskarak lanerako duen balioaz gehien ohartzen direnak. Hezkuntzan edo beste arlo batzuetako lan publikoan jardun nahi dutenentzat euskara ikastea lagungarri –eta zenbait kasutan ezinbesteko– izan daiteke:

“Irakasle-ikasketak egin ditut, eta hemen, Euskal Herrian, lan egiteko euskara beharko dut.” (3T, 006)

“Lanerako, nire kasuan, derrigorrezkoa ez da, baina komenigarria da jakitea.” (2T, 055)

Irakasle batek barnetegiko ikasle askoren planteamendua laburbiltzen du:

“Jende askorentzat euskara ikastea inbertsioa da: urtebete pasa barnetegian eta horrek balioko dit zenbait ate irekitzeko.” (4T, 030)

Ikasle askok sumatzen du euskararen beharra lanpostua lortzeko, baina motibazio mota honen balorazio soziala integrazioa helburu duten ikasleena baino urriagoa da. Eragileen nolabaiteko mailaketa konsziente edo inkonsziente egin ohi da: Helburu integratzailea *kalitate oneko* eragiletzat hartzen dugu, eta helburu instrumentala *kalitate urriagokotzat* jotzen dugu. Ikasle batek azalpen hau eman du:

“Oso polita da esatea: *Euskalduna naizelako nago ni hemen, eta euskara maite dudalako*... Baina gehienok hemen euskara lan egiteko behar dugulako gaude (...) eta hori giroan nabaritzen da.” (3T, 190)

Balorazio hauek ikerketa kuantitatiboak emandako emaitzen irakurketan kontuan hartu beharko lirakeke. Datuei erreparatuz, ikasle gehienek *helburu nagusia* integratzailea da, baita barnetegiko ikasleen artean ere, baina ikasle gehienek ikasteko arrazoi ugari dituzte, eta, horien artean *bat* aukeratzean (arrazoi nagusia zein den adieraztean), jasaten duten presio sozialak baldintza ditzake erantzunak; helburu integratzaileei lehentasuna emanez, autoirudi positiboagoari eutsi nahi diotelako ikasleek. *Eragile integratzailea* eta *eragile instrumentala* neurtzen dituzten eskalak, berriz, beste modu batean planteatu dira: ikasleei ez zaie erantzun bakar bat eskatzen, eta faktore eragile batek ez du bestea eragozten (esate baterako, ikasle baten eragile integratzailea oso sendoa eta aldi berean eragile instrumentala ere oso sendoa izatea gerta litekeena da). Eskala honek ematen duen informazioa

fidagarriagoa da, eta beste aldagaiekiko erlazioak kalkulatzeko datu hauek erabili dira.

Euskaltegietako hainbat ikaslek lanean dihardute, eta lantokia euskalduntzeko ahaleaginean laguntzeko helburuz ari dira euskara ikasten. Bidanian bizi eta MCC taldeko Goierriko lantegi batean lan egiten duen euskaldun zahar batek hauxe dio:

“Lanpostua euskalduntzeko prozesua irekita dago (...) euskalduntzen laguntzea da nire asmoa, eta baita nire euskara hobetzea ere.” (2T, 001)

Gaitasun txikiagoa zuten beste ikasle batzuek euren eginbeharrak burutzeko euskararen beharra sumatu zuten, eta ikasteari ekin zioten:

“Denda batean ari naiz, eta euskaraz eginez sartzen denari erdaraz egitea, ba ...” (2T, 056)

Marokotik etorri eta Zaldibian bizi den neska gazte batek honako egoerari aurre egin behar izan zion:

“Trabajo en un restaurante, y una vez, al coger una comanda por teléfono, me hablaban en euskera, y no le entendía. El otro empezó a chillarme, a insultarme, que cómo contesto al telefono si no sé euskera...”

Neska hau Lanbide Heziketa ikasten ari da aldi berean, eta ikasketak gainditzeko ere euskara behar du:

“Tengo que aprender. Además, en Zaldibia hay gente que no controla mucho el castellano, y por eso tengo que aprender” (2T, 292)

Funtzionalki euskaldun elebakarrak diren pertsonen presentziak ikasleen motibazioa areagotzen du, eta gaztelania “kontrolatzen ez duten” pertsonen zor zaien begirunea ikasteko arrazoi bat izan daiteke. Azterketa kuantitatiboan planteatzerakoan honelakorik aurreikusten ez bazen ere, ikasleentako batek adierazitako euskara ikasteko arrazoi nagusia hauxe izan zen: “Por respeto a las personas mayores que no hablan bien el castellano”.

Gure gizartean euskara soilik ezagutzen duten pertsona helduen kopurua oso txikia da, sozialki garrantzirik gabea, eta, horregatik, arrazoi honek izan dezakeen eragina mugatua da. Baina badago Hego Euskal Herrian gaur egun elebakarra den populazio multzo bat, etxean eta eskolan euskaraz egiten duten haur txikiek osatua. Hitzun elebakar hauek ere motibazio eragileak dira:

“Me gustaría saber bien, trabajo con niños...” (1T, 004)

“Yo también estoy con niños, les entiendo, pero contestarles no sé.” (1T, 008)

### **Haurrentzat euskara nahi duten gurasoak**

Hurrek hezkuntza-sisteman euskara ikasten dute, baina eskolaren eragina handia bada ere, familiara itzela da, eta guraso batzuk etxea euskalduntzearen garrantziaz ohartzen dira:

“Euskaldun zaharra naiz, baina erdaraz hitz egiten dut. Orain haurrak ditut, eta nik akatsak egiten baditut, haiek ez dute ondo ikasiko.” (1T, 015)

Extremaduratik etorri eta Goierrin hamasei urtez bizi den emakume batek hone-la azaltzen du euskara ikasteko duen arrazoia:

“Duela sei urte hasi nintzen ikasten, alabei laguntza emateko batez ere.” (2T, 041)

### **Eragile anitz**

Badira arrazoi bakarra eta zehatza duten ikasleak, baina beste askok euren motibazio prozesuan eragiten duten faktore ezberdinen berri ematen dute:

“Betidanik izan dut euskara ikasteko gogoia, eta nire lanerako beharrezkoa dela ikusten dut.” (2T, 018)

“... para culturizarme, conocer la cultura vasca, y por trabajo también.” (1T, 011)

“Kalean hitz egiteko, haurrei eskolako lanetan laguntzeko...” (2T, 044)

### **Hizkuntza gogoko eta ikastea atsegin**

Gutxi badira ere, ikasteko eragileen artean ikas-prozesuaren atsegintasuna aipatzen duten ikasleak ere badira. Horietako bat alemana da, Goierrira etorri eta berehala hasi zen euskara ikasten, eta zortzi hilabeteren ondoren nahikoa gaitasun azaltzen du. Bikotekidea euskalduna du, eta inguru euskaldunean bizi da (Zaldibian); bi faktore horiek oso eraginkorrak izan ziren euskara ikasteko erabakia hartzean. Gainera, neska honek itzulpengintzan eta alemana irakasten lan egiten du, eta hizkuntzekiko erlazioa esaldi batean laburbiltzen du:

“Hizkuntzak gustatzen zaizkit.” (2T, 024)

Beste ikasle batzuentzat ikas-prozesua ez da hain atsegina, baina hizkuntza bera gustukoa dute. Barnetegiko ikaslea den suhiltzaile batek hau dio:

“Nik neure plaza dut, eta ez dut euskararen beharrik lanerako, eta lanean hemen baino erosoago egoten naiz. Baina euskara gustatzen zait, eta ikasi nahi dut.” (3T, 200)

### **Euskararekiko konpromisoa**

Norberak dituen helburu pertsonalez gain, euskararekiko konpromiso trinkoa agertzen duten ikasleak ere badira. Barnetegian ikasten ari den Nafarroako mutil gazte batek hala dio:

“Euskara sinbolo bat da, eta hizkuntza hau ez dugu galdu behar, horregatik ari naiz ikasten.” (3T, 046)

Beste ikasle batzuek euskarak azken aldian jasaten dituen erasoei nolabait aurre egin beharra ikusi dute, eta euren eskuetan dagoen erantzun egokiena euskara ikasteko ahaleginak handitzean datzala deritzote. Barnetegian ikasten ari den erizain batek hala dio:

“Euskara ikasten ari nintzen, baina lasai ... Eta azken aldian euskara jasaten ari den erasoak direla eta, hona etortzea erabaki nuen.” (3T, 020)



Ikasleen artean etorkin ugari dago, eta ondorengo urteetan, ziurrenik, hauen kopurua handituko da, batetik, kanpotar gehiagoren etorrera aurreikusten delako eta, bestetik, integrazio nahiak sarritan euskara ikastera bultzatzen dituelako:

“Niri iruditzen zait askotan etorri berriek sentsibilitate handiagoa dutela bertan bizi direnek baino. Bertan bizi diren asko egokitu dira egoera horretara eta ez zaie burutik pasatzen euskara ikastea.” (4T, 224)

## 4.2. IKAS-PROZESUA

Euskara ikasten ari diren pertsona gehienek hizkuntza hau berezia eta zaila dela uste dute:

“Intentas comparar el euskera con el francés, el inglés... y no tiene nada que ver.” (1T, 080)

“Trabajo en la enseñanza del alemán, conozco cómo funcionan otros idiomas ... y el euskera me ha roto muchos esquemas ... Es diferente a otros idiomas. (2T, 259)

“Llevo diecisiete años viviendo aquí, y no consigo hablar el euskera. Y lo he intentado.” (1T, 090)

Ikas-prozesuaren emaitza urriak direla eta, ikasle batzuek norberaren gaitasuna ere zalantzan jartzen dute:

“A veces me avergüenzo de mí misma; tantos años y todavía no hablo bien el euskera. Y conozco gente extranjera, que habla muchísimo mejor que yo, y cuando veo eso ...” (1T, 127)

“Urte asko daramatzat (hasi eta utzi, eta berriro hasi, eta berriro utzi ...). Agian ez naiz oso azkarra, hemen ikusten ditut batzuk, zortzi hilabetetan ikasi dutenak eta ... Azkeneko bost urteak jarraian egin ditut. Aurreratzen ari naiz, baina pixka bat. Uste dut inoiz ez dudala ondo hitz egingo.” (2T, 046)

“Vengo de familia euskaldun, en mi entorno se habla mucho... Pensé que tendría más facilidad que mis compañeros, pero no.” (1T, 104)

Baina bestelako iritzia duten ikasleak ere badira. Txiletik etorri eta Goierrin bizi den neska bati uste baino errazagoa egiten ari zaio euskara ikastea:

“La gente me decía que es muy difícil, y por eso he tardado en empezar a aprenderlo. Y ahora me arrepiento, porque, la verdad, no es nada difícil. La pronunciación y la gramática se parecen al japonés.” (1T, 112)

Japoniera ezagutzeak bidea erraztu dio txiletar honi, eta euskara ikasteko erabakitzean ere eragin handia izan zuen japoniera jakiteak. Ikasle txiletar honek azaldu zuen neska japoniar ezagun batekin egin zuela topo kalean, eta gaztelaniaz agurtu zuela. Besteak, ordea, esan omen zion, ez erabiltzeko gaztelania, gaztelaniaz edozeinekin hitz egiteko aukera baitzuten, eta japonieraz edo euskaraz hitz egitea proposatu zion. Neska japoniar hark urtebetean euskaraz hitz egiteko adina ikasi zuela

kontatu zion, eta, hau jakin bezain laster, txiletarrak euskararen zailtasunari buruz zituen aurreiritziak kolokan geratu ziren:

“Entonces no es tan difícil, si ella puede yo también.” (1T, 134)

Beste etorkin bat, lehen aipatutako Marokoko neska, duela hiru urte iritsi zen Goierrira. Arabieraz eta frantsesez hitz egiten zuen, eta euskararekin eta gaztelaniarekin izan duen esperientzia honela kontatzen du:

“He aprendido el castellano, que tiene estructura similar al francés. Vivo en Zaldibia, que es muy euskaldun, pero todavía no he aprendido el euskera. Me resulta muy difícil, porque para mí es como cambiarlo todo.” (2T, 158)

Euskaltegiko zuzendaria ere eztabaida-taldean dago, eta, neska honek euskara ikasteko izan dituen zailtasunen zergatiak azaltzean, beste ikuspegi bat agertzen du:

“Niretzat ez da estructures, dena da: kalea, telebista... gaztelaniak indar gehiago du, eta horregatik errazago ikasten da.” (2T, 180)

Gaztelaniaren nagusitasun honek euskararen ikas-prozesua oztopatzen du:

“En la calle no puedes aprender y eso desanima bastante.” (1T, 083)

Argentinatik etorri eta Goierrin bizi den emakume bat ere egoera bertsuan dago. Euskal Herrian bizi da, eta, hala ere, ikasitako pixka erabiltzeko ezintasuna haute-maten du:

“El problema que tengo es que no tengo con quien practicar el euskera fuera de aquí. Escucho la televisión, pero yo no puedo hablar...” (1T, 158)

“Gaztelaniaz egiteko aukera daukazu hemen. Adibidez, Alemanian bazaude, ba han ikasi beharra daukazu, baina hemen... Ez dakigu euskaraz horregatik.” (2T, 185)

Alemaniatik etorritako ikasle batek, hain zuzen ere, honela kontatzen du bere esperientzia:

“Yo aprendí castellano en Andalucía y, como no tenía más recursos para comunicarme, lo aprendí bastante fácil. Aquí, aunque estoy aprendiendo el euskera, necesito que la otra persona dedique tiempo y esfuerzo para comunicarse conmigo, y es más fácil pasarse al castellano.” (2T, 270)

Beste ikasle batek honela azaltzen du egoera:

“Oso eroso bizi gara, euskararen premia larririk ez dugu, badakigu edozeinekin gaztelaniaz hitz egin dezakegula, eta komunikazio zailtasunak sortzen badira errazena horri heltzea dela.” (2T, 320)

Azken batean, gaztelaniaren presentziak motibazioa eragozten du: Komunikatzeko euskararen premia urria haute-maten da, eta ikasteko eta erabiltzeko zailtasun ugari. Baina motibazioa eragozten duten faktoreekin batera, berau bultzatzen duten beste faktore batzuk ere badaude, eta hauek indar nahikoa badute, ikas-prozesuaren arrakasta eragingo dute.

“Motibazioa baldin badago, zailtasunak gainditzen dira; ikasteko benetako gogoia edo premia baldin badago ...” (2T, 208)

“Dependiendo del interés y la dedicación es más fácil (o más difícil) aprender un idioma.” (1T, 125)

Irakasle batek bere buruari helburuak ezartzearen garrantzia aipatzen du:

“Helburu jakin bat duena, saiatu ere, nik uste dut batzuetan gehiago saiatzen dela.” (4T, 035)

Irakasle honek ikasleen arteko elkarrizketa baten berri ematen du: ikasle bat *bere borondatez* zetorren, lana bazuen eta ez zuen euskararen premiarik lanerako, ez zuen titulu beharrik; eta ikaskideek esan zioten azterketa zeukatela (titulua eskuratu ahal izateko). Ikasle honen erantzuna hau izan zen: “*Helburu polita da... azterketarako ikastea.*” (4T, 036)

Ikasleak ere helburuen arabera sorturiko bereizketaz ohartu dira:

“De las amas de casa que empezamos a estudiar euskera quedamos pocas. Yo lo que veo es que la gente joven, que acaba de terminar una carrera, que está buscando trabajo, que le interesa tener más puntos ... es la que continúa.” (1T, 072)

Helburu mota bakoitzak dinamika bereziak eragiten ditu. Irakasle batek honela bereizten ditu:

“Bereizketa garbia egingo nuke. Eguerdiko taldeetan, titulu bila dabiltzan Lazkaoko eta inguruko jendea dago, eta erritmoan eta aurrerapenean alde handia dago. Gaueko taldekoak motelago ibiltzen dira.” (4T, 039)

Gaueko talde horien dinamika faktore askok baldintzatzen dute: prestakuntza aldetik ere, gehienak goi-mailako ikasketarik egin gabeak dira, eta helburu desberdinak dituzte: umeekin hitz egitea, integrazioa ... (4T, 044)

Hau dela eta, irakasleak ikasleen behar eta baldintzetara egokitu behar du ikastaroa:

“Irakasleak ere badaki ezin duela klasea planteatu gramatika ahalik eta azkarrena eman, trebetasun guztietan ariketak egin helburuetara iristeko ... (4T, 046)

Talde hauetan motibazio inтрintsekoa handiagoa da, ikas-prozesuak berak asebetetzen ditu neurri batean ikasleen beharrak, hots, ikasle askorentzat helburua ikasten aritzea da; lorpen premia, ordea, urria da. Prozesua bera da atsegina, eta euren asmoak ez daude emaitzetara soilik bideratuak:

“Askotan etortzen dira euren artean hitz egitera, bi ordu horiek euskaraz bizitzeko. Baina ez dute aparteko kezka hori, edo presio hori. Prozesua motelagoa da ... eta aurrera segitzen dute, gustura etortzen direlako.” (4T, 048)

Bi ikasle mota biltzen zituen talde baten berri ematen du partaide batek. Titulu premia duten ikasleek jarraitu dute gehienbat, eta gainerakoak, pixkanaka, uzten joan dira:

“Este año he tenido altibajos, porque todas las que empezamos el año pasado, lo han ido dejando. Las que tenían mi nivel, ya no están ... y han quedado los que más nivel tienen, y parezco la tonta de la clase. Si lo hago bien me da subidón, y si no me da un bajón...” (1T, 287)

Lorpen premiarik ez badago, ikas-prozesua atsegina den heinean ikasleak ikasten jarraituko du, eta hala ez bada bertan behera uzteko arriskua sortzen da:

“Titulu presiorik gabe edo titulu beharrik gabe ikasten ari denak ikusten badu bere burua ezinean... edo gure sisteman –ariketak eginez eta– oso ondo moldatzen ez bada, etsi egiten du.” (4T, 016)

Talde barruko dinamikan norberaren interesei gero eta gehiago begiratzen zaie-la adierazten du irakasle batek:

“Gizartea bera aldatu da, denok gara indibidualistagoak, ikasleak ere bai. Talde barruan ere, bakoitzak bere interesei begiratzen die lehen baino askoz ere gehiago. Nahiago dute hobeto hitz egiten duten ikasleen artean egon besteen eredu izan baino, eta maila altuagoa dutela pentsatzen badute, berehala eskatzen dute taldez aldatzea. Lehen ez zitzaion horrenbesteko garrantzirik ematen.” (4T, 235)

Baina bestelako iritzia duten irakasleak ere badira:

“Nik ez daukat hain garbi: horrelako jendea, gutxi edo gehiago, beti izan dugu.” (4T, 252)

### 4.3. ERABILERA

Gaur egun hizkuntzaren erabilera gehien bultzatzen duen populazio multzorik nagusiena haurrek osatzen dute, eta arrazoi ugari dago horretarako. Batetik, Goierriko haur gehienak euskaldunak direlako; bestetik, gaitasun apal samarra duten pertsonak ere haurrekin hitz egitera ausartzen direlako; eta gainera, gure gizartean haurrei euskaraz egin behar zaiela oso barneratua dugulako. Hau guztia dela eta, begi bistan dago haurrak direla euskararen sustatzaile garrantzitsuenetari-koak.

“Tengo la suerte de trabajar con niños, que te enseñan mucho, y no te cortas.” (1T, 315)

Guraso asko ari dira euskara ikasten seme-alabengatik. Kasu batzuetan jadanik euskara erabiltzen dute haurrekiko harremanetan, eta euren gaitasuna hobetu nahi dute, etorkizunean ere euskaraz komunikatzeko asmoz. Beste kasu batzuetan gaztelaniaz egiten dute etxean, baina haurrak euskaldunak direlako (eskolan euskaldun-duk) badute gurasoek gogo pixka bat seme-alabekin euskara erabiltzeko. Ama batek honela azaltzen ditu semearekin egindako aurrerapenak:

“Al principio se resistía, este año vamos un poco mejor, jugamos a ikusi-makusi, me ayuda con el vocabulario.” (1T, 053)

Beste guraso batzuei zail egiten zaie etxeko hizkuntza ohiturak aldatzea:

“Ni ikasten ari naiz, senarra ere bai, baina alabek ez dute gurekin euskaraz egin nahi.”  
(2T, 145)

Guraso batzuek badituzte familiaz aparte beste arrazoi batzuk euskara ikasteko, eta lan horri ekin diote, baina ez dute seme-alabekin euskaraz hitz egiteko esperantza handirik:

“Seme-alabekin normalean erdaraz hitz egiten dut. Haiek, eta baita senarra ere, euskaldunak dira, baina nirekin erdaraz hitz egiten dute, eta segur aski horrela jarraituko dugu.” (1T, 020)

Ohiturak gainditzea ez da erraza, gaitasuna ere ez da berdina bi hizkuntzetan, eta zenbait haur eta gazte ez dira oso eroso sentitzen *ikasten* ari den guraso batekin hizketan.

“La obsesión de mis hijos es que no se me note que soy euskaldunberri (...) A mí no me importa que lo sepa todo el mundo, y además pienso que tiene mérito ser euskaldunberri.” (1T, 320)

Baina, ez bakarrik haurrekin, baita helduekiko harremanetan ere (edo bereziki helduekiko harremanetan), familiako ohiturak aldatzeko zailtasunen berri ematen dute ikasleek:

“Nire aita euskalduna da, ama ere bai. Nire ahizpek euskaraz badakite ... baina nik beti erderaz egiten det haiekin ... ez dakit, ohitura da.” (2T, 275)

Familia eta lagunartea euskaldunak dituen ikasle batek hala esaten du:

“Ni en mi familia ni entre mis amigos, que saben todos euskera, he conseguido cambiar nada: siempre que estoy yo, se habla castellano.” (1T, 028)

Testuinguru bakoitzeko ohiturak mantentzeko joera dago:

“Mis amigas saben todas euskera, pero hablamos siempre en castellano. En cambio con la gente de la Universidad, siempre en euskera.” (1T, 058)

Ikasitako euskara erabiltzen hasteko ingururik egokiena dendarak direla adierazten dute ikasle askok:

“He conseguido utilizar el euskera con el carnicero, que me ve todos los días con la carpeta ... y como son conversaciones sencillas, podemos comunicarnos bien.” (1T, 031)

“Erosketak egiterakoan saiatzen naiz euskaraz egiten, eta dendariak laguntzen dit.” (2T, 129)

“Erosketetan bai, baina elkarriketetan desberdina da. Gu euskaraz egiten saiatzen gara, baina beraiek hizkuntza aldatzen dute (erdaraz hasten dira) ... eta gero eta lotsa gehiago ematen dizu.” (2T, 130)

Irakasle batek dioen moduan, “gauza bat da egitea, eta bestea ondo hitz egitea” (3T, 099), eta goi-mailako ikasleek ere euren gaitasuna mugatua dela diote. Zenbait kasutan, euskaraz hitz egin arren, norberaren hutsuneak betetzeko gaztelaniara jotzen dutela aitortzen dute, eta adierazgarritasuna lortzeko ere erdarazko hitz eta

esamoldeak sartzeko ohitura dutela dio ikasle batek, esate baterako euskarazko esaldi batean “jo, tio” txertatzea. (3T, 098)

Beste ikasle batek hau erantzuten dio:

“Baina hori euskaldun zaharrek ere egiten dute. Batean etorri zen hona ospetsu bat, Euskal Telebistan azaltzen dena ... Bai, Kike Amonarriz ... eta hark oso ondo esplikatu zuen, diktadura garaian euskara kaletik ia desagertu zela, kaleko argota galdu zela, eta gaur egun gazteleratik hartzen ditugula hitz horiek.” (3T, 100)

Gaitasuna justu-justukoa denean, euskaraz hitz egitearen kostu psikologikoa handia da:

“Euskaraz hitz egiteak urduri jartzen nau, batez ere ezezagunekin. Ezezagunek, akatsen bat egiten badut, ulertuko dute. Ez dakit nola esan: lotsa, bai, baina ez hainbeste. Baina ezezagun batekin tabernan hitz egiten ari zara, eta bat-batean konturatzen zara: hanka sartu dut ... eta besteak ... pensaré que soy la más tonta del mundo. Itxura ona eman nahi duzu, eta gaizki hitz egin duzu. Zaila da.” (3T, 266)

Beste ikasle batek lasaiago heltzen dio gaiari:

“Baina kalean jendeak ez du ondo hitz egiten. Euskaldun zaharrek ere hanka sartzten dute, baina ez diote inportantziarik ematen ... eta guk bai.” (3T, 270)

Zenbait ikaslerentzat euskara erabiltzea erronka da, eta hitz egitean itxura ona agertzen saiatzen diren heinean ikasteko aukerak eta motibazioa handitzen dira.

“Cuando hablo en euskera me siento examinada. Eso, por una parte, me hace sentirme mal pero, por otra parte, me estimula, me motiva para mejorar.” (1T, 163)

### **Solaskideen jarrera**

Ikasleak euskara erabiltzen ahalegintzen direnean, solaskidearen jarrera erabakitzailea da. Ikasle askok solaskideen pazientzia eza salatzen dute, bereziki ezezaguna denean:

“La gente que no te conoce, enseguida te habla castellano.” (1T, 033)

Irakasleek ere oztopo hauei buruzko azalpenak ematen dituzte:

“Euskaldun zaharra ez da konturatzen bere hizkuntza egokitu behar duela, edo errepikatu behar duela.” (4T, 125)

“Ikasleek askotan esaten dute: *Mesedez errepikatuko duzu*. Eta euskaldun zaharrek errepikatzen dute gauza bera, baina altuago eta azkarrago.” (4T, 128)

Irakasle batek goi-mailako ikasle bati gertaturikoaren berri ematen du: Afari batean hizketan hasi, eta solaskidearen erantzunik ez zuen ulertu, euskaldun zaharrraren hizkera ulergaitza gertatu zitzaion, eta lotsa-lotsa eginda, gero gau osoan ez zen ausartu ezer esatera. (4T, 119)

Beste irakasle batek auzi honen alderdi interesgarri bat aipatzen du:

“Euskaldun zaharren artean beste aldekorik ere badagoela. Batzuek pentsatzen dute beraien euskara ez dela hain ona ere, eta lotsa hori dela-eta gaztelerara pasatzeko gogoia

izaten dute. Ikusten dute euskaldun berriek, telebistakoek, irratikoek bezala hitz egiten dutela. “Nik ez diat ba hala hitz egiten” pentsatzen dute, eta euskaldun berri batekin hitz egitea deseroso gertatzen zaie, euren euskararen balioan ez dutelako konfiantzarik.” (4T, 130)

### **Usteak eta itxurak**

Ikasleen artean badira euskara menderatzen dutenak, eta erabiltzeko borondatea dutenak, eta nolabaiteko autokritika egiten dute, hainbat egoeratan erdaraz ekiten baitiete elkarriketei:

“Nik behintzat batzuetan egiten dut, pertsona ezezagunei erdaraz egin, eta gero euskalduna dela jakin, eta bai, handik aurrera euskaraz jarraitu.” (2T, 156)

Bestea erdalduna den usteak eragiten du sarritan jokabide hori. Testuinguruaren arabera, pertsonaren itxuraren arabera, eta aldez aurretik pertsona horri entzundakoren arabera iritzi bat sortzen da, eta sarritan erratua den iritzia izan ohi da.

“Nire senarrarengana joaten da jendea euskaraz hitz eginez, baina hark ez daki. Eta niri ez didate euskaraz hitz egiten. Itxuraren arabera izango da.” (2T, 385)

## **4.4. EUSKARAREKIKO JARRERAK**

Denbora joan ahala ikasleek euskarari buruz dituzten jarrerak aldatzen dira, eta, euren adierazpenen arabera, aldaketa hori onerako izaten da.

“Mi actitud respecto al euskera ha cambiado. Hubo un momento en que tenía cierto rechazo, me incomodaba no saberlo, me producía rabia, malestar, impotencia. Ahora lo aprecio más como lengua, y me siento mucho más a gusto.” (1T, 172)

“Tuve un momento de rechazo hacia el euskera. Cuando empezaron a exigirlo para el trabajo, para las oposiciones, la gente que sabía hablar menos que yo, pero que tenía algunas nociones de gramática, conseguía mejor puntuación. Sin embargo, no tenían capacidad para desenvolverse en euskera. Me parecía que eso no estaba bien y me generaba un rechazo. En cambio ahora lo veo de otra manera. Ya no tengo esa presión, aprendo para mí, para ayudar a mis hijos en el futuro, y estoy a gusto.” (1T, 202)

“Magisteritza ikasten ari nintzenean euskaltegira joaten nintzen, baina ez zen nahikoa eta hona (barnetegira) etorri nintzen hobeto hitz egiteko eta agiri bat lortzeko. Hirugarren perfila lortu dut, eta nahi dudalako jarraitzen dut orain.” (3T, 025)

Euskara lanerako behar duten ikasleen artean ematen den prozesua honela azaltzen du irakasle batek:

“Motibazio instrumentala duten ikasleen artean, batzuk euskara maitatzera iristen dira, eta beste batzuek hasieratik gorroto dute, eta hala segitzen dute, eta, titulua atera ondoren, askotan gaztelaniaz egiten dute.” (4T, 003)

Euskararen etorkizunaz arduratzen dira ikasleak:

“Urtero ehunka hizkuntza galtzen dira munduan, eta hizkuntza kultura da.” (3T, 308)

“Hizkuntza da kultura eraikitzeko tresnetako bat, eta horregatik da interesgarria. Kanpotik etortzen garenok hori errespetatzen ez badugu ...” (3T, 113)

Euskararen sustapenerako garatzen diren politikei begira, ikasleen artean iritzi kontrajarriak agertzen dira. Ikasle batzuei, lanerako duten euskararen premia dela eta, ikastera derrigortzen dituztela iruditzen zaie, honen aurka agertzen dira, eta ez dute uste bide egokia denik:

“Derrigorrez hartzen duzunean zerbait, azkenean zama gertatzen da, gorrotatu egiten duzu.” (3T, 040)

“Hizkuntza bat bultzatzeko ez duzu derrigortu behar ... Pentsatu nola egin daitekeen erakargarriagoa...” (3T, 310)

Baina, erakargarritasunik handiena premia izan daitekeela erantzuten du beste ikasle batek:

“Edozein hizkuntza, berdin da, errusiera, esate baterako, oso polita, eta erakargarria izan daiteke, baina nik ez dut ikasiko. Behar-beharrezkoa ez badut, ez dut ikasiko, hizkuntza bat ikastea lana delako ... Eta euskara ikastera nolabait ez bagaituzte behartzen, zeinek ikasiko du?” (3T, 350)

“Ni gustura ari naiz euskara ikasten, baina beharrezkoa izango ez balitz, ez nintzen hasiko. Ahaleginak egin behar ditut, da un esfuerzo (...) eta gehienok oso praktikoak gara.” (3T, 362)

Euskaldun zaharra den ikasle batek euskaldunak egin beharreko lana nabarmentzen du:

“Euskaldun zaharrok askotan esaten dugu, besteek ikasi behar dutela aurrena... eta orduan hasiko gaituk (...) Lantokietan euskaldunak alfabetatzea izugarritzko aurrerapausoa izango litzateke (...) Euskaraz egin beharrean (inprimakiak bete, eta antzekoak) erdara txarrean egiten baditugu, besteek ez dute beharrik ikusten (...) Beharra ikusten badute, orduan emango dute pausoa.” (2T, 068)



## V. ONDORIOAK

### 5.1. HIPOTESIEI BURUZKO ONDORIOAK

Goierriko euskaltegietako ikasleei aurreikusitako ezaugarriei dagokienez, ikerketaren emaitzek ondorengo konklusioetara garamatzate:

Lehenengo aurreikuspena bete egin da: euskaltegietako ikasleen artean eragile nagusia integratzailea da.

Bigarren aurreikuspenak bi atal ditu:

-Euskararen erabilpenarekiko jarrerak berreskuratze eta normalizatzearen aldekoak izango zirela aurreikusten zen. Atal hau neurri batean soilik bete da: ikasleen gehiengoak euskara gure gizartean *gehiago* erabiltzea nahiko luke, baina gehiengo hau ez da ageri euskara Euskal Herriko *hizkuntza nagusia* izatearen alde.

-Ikasleen portaerarako asmoak berreskuratze eta normalizatzearen aldekoak izango zirela aurreikusten zen. Atal hau bete egin da.

Hirugarren aurreikuspena bete egin da: ikasleen gehiengoak etorkizunean euskara indartuz joango dela uste du.

Laugarren aurreikuspena bete egin da: euskarari emandako balio nagusia simbolikoa da, eta ez pragmatikoa.

Bosgarren aurreikuspena ez da bete: ikasleen identitatea nagusiki kulturabiduna izango zela aurreikusten zen, baina emaitzen arabera, tamaina bereko bi ikasle multzo nagusi ageri dira; batak identitate euskalduna duten ikasleak bilzen ditu, eta besteak identitate kulturabiduna dutenak.

***Lehenengo hipotesiari buruzko konklusioak:***

1.1 azpihipotesia bete egin da: barnetegiko ikasleek ordukako ikastaroetakoek baino eragile instrumental sendoagoa dute.

1.2 azpihipotesia bete da: ikasle gazteenen artean eragile instrumentala sendoagoa da.

1.3 azpihipotesia bete egin da: norberak lortutako ondorioen balorazioa egitean aspektu integratzaileak nagusitzea aurreikusten da.

1.4 azpihipotesia bete egin da: identitate euskaldun altua duten ikasleen artean eragile integratzailea sendoagoa da.

1.5 azpihipotesia bete egin da: euskaldun izateko bete beharreko baldintza linguitikoei garrantzi handiena ematen dioten ikasleek eragile integratzaile altuagoa dute.

1.6 azpihipotesia bete egin da: euskarari eta euskaldunei buruzko jarrera positibokiak dituzten ikasleen artean eragile integratzailea sendoagoa da.

1.7 azpihipotesia ez da bete: Goierrin bizi diren ikasleen artean, biztanle elebidunen proportzio handiagoa duten herrietako ikasleek eragile integratzaile sendoagoa izango zutela aurreikusten zen, baina bi aldagai hauen artean ez da koerlazio esanguratsurik ageri.

1.8 azpihipotesia betetzen da: Euskarari balio sinboliko altua hautematen dioten ikasleen artean eragile integratzailea sendoagoa da. Baina aldi berean beste koerlazio bat ere ageri da: Euskarari balio praktikoa altua hautematen dioten ikasleen artean ere eragile integratzailea sendoagoa da. Bigarren koerlazio hau hipotesian planteaturikoa baino esanguratsuagoa da.

1.9 azpihipotesia bete egin da: Euskarari balio praktikoa altua hautematen dioten ikasleen artean eragile instrumentala sendoagoa da. Baina aldi berean beste koerlazio bat ere ageri da: Euskarari balio sinboliko altua hautematen dioten ikasleen artean ere eragile instrumentala sendoagoa da. Bigarren koerlazio hau hipotesian planteaturikoa bezain esanguratsua da.

1.10 azpihipotesia ez da bete: Euskarari bizitasun altua hautematen dioten ikasleen artean eragile integratzaile nahiz instrumental altuagoak izango zirela aurreikusten zen, baina aldagai hauen arteko koerlazio esanguratsurik ez da agertu.

1.11 azpihipotesia ez da bete: euskaltegian urrats gehien aurreratu duten ikasleen artean eragile integratzaile nahiz instrumental sendoagoak agertuko zirela aurreikusten zen, baina aldagai hauen arteko koerlazio esanguratsurik ez da agertu.

Gainera, beste aldagai batzuk ere eragile integratzailearekin maila esanguratsuan positiboki koerlazonaturik ageri dira. Eragile integratzailea sendoa denean:

- Ikasgelatik at ikasteko baliabideak gehiago erabiltzen dira.
- Lortzeko igurikapena handiagoa da.
- Autodeterminazio maila handiagoa da.
- Eraitzen balorazioa hobea da.
- Sare sozialean hautemaniko erabilera handiagoa da.

- Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa handiagoa da.
- Eragile instrumentala sendoagoa da.
- Motibazio-maila handiagoa da.

Beste aldagai batzuk ere eragile integratzailearekin maila esanguratsuan koerlazioaturik ageri dira, baina koerlazioak negatiboak dira. Eragile integratzailea ahula denean:

- Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak sendoagoak dira.
- Ikasteari kostu psikologiko handiagoa hautematen zaio.
- Bestalde, ondoko aldagaiak eragile instrumentalarekin maila esanguratsuan positiboki koerlazioaturik ageri dira. Eragile instrumentala sendoa denean:
- Euskararako gaitasuna altuagoa da.
- Ikasketak hizkuntza eredu euskaldunetan egin dituzten ikasle gehiago dago.
- Euskara maila altuagoarekin ekin zioten euskaltegian ikasteari.
- Ikasgelatik at ikasteko baliabideak gehiago erabiltzen dira.
- Lortzeko igurikapena handiagoa da.
- Euskarari eta euskaldunei buruzko iritzia hobea da.
- Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa handiagoa da.
- Eragile integratzailea sendoagoa da.
- Euskara ikastearen ondorio instrumentalen balorazioa altuagoa da.
- Motibazio-maila handiagoa da.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea handiagoa da.
- Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak handiagoak dira.

Beste aldagai batzuk ere eragile integratzailearekin maila esanguratsuan koerlazioaturik ageri dira, baina koerlazioak negatiboak dira. Eragile instrumentala ahula denean:

- Bizileku den lurraldean egiten den euskararen erabilera handiagoa da (Goierrin bizi diren ikasleen artean eragile instrumentala barnetegian ikasten duten *kanpotarrena* baino ahulagoa delako, eta Goierrin oro har beste lurraldeetan baino euskara gehiago erabiltzen delako).
- Adina handiagoa da.

### ***Bigarren hipotesiari buruzko konklusioak:***

2.1 azpihipotesia bete egin da: Euskarari zailtasun handia hautematen dioten ikasleen artean lortzeko igurikapena urriagoa da.

2.2 azpihipotesia bete egin da: Nork bere buruari ikasteko gaitasun altua hautematen dioten ikasleen artean lortzeko igurikapena altuagoa da.

2.3 azpihipotesia ez da bete: Ikas-prozesuan erritmo bizia daramaten ikasleek lortzeko igurikapen handiagoa izango zutela aurreikusten zen, baina bi aldagai hauen artean ez da koerlazio esanguratsurik ageri.

Gainera, ondoko aldagaiak ere lortzeko igurikapenarekin maila esanguratsuan positiboki koerlazonaturik ageri dira. Lortzeko igurikapena handia denean:

- Haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza sarriagotan da euskara.
- Euskara maila altuagoarekin ekin zioten euskaltegian ikasteari.
- Ikasgelatik at ikasteko baliabideak gehiago erabiltzen dituzte.
- Emaitzen balorazioa hobea da.
- Identitatea euskaldunagoa da.
- Euskarari buruzko iritzia hobea da.
- Euskararen normalizazioarekiko jarrera hobea da.
- Sare sozialean hautemaniko erabilera handiagoa da.
- Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa handiagoa da.
- Eragile integratzailea sendoagoa da.
- Eragile instrumentala sendoagoa da.
- Motibazio-maila handiagoa da.
- Euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea handiagoa da.
- Euskara ikasteari/erabiltzeari buruzko asmoak sendoagoak dira.
- Euskararekiko leialtasuna handiagoa da.

Beste aldagai batzuk ere lortzeko igurikapenarekin maila esanguratsuan koerlazonaturik ageri dira, baina koerlazioak negatiboak dira. Lortzeko igurikapena urria denean:

- Adina handiagoa da.
- Ikasteari kostu psikologiko handiagoa hautematen zaio.

### ***Hirugarren hipotesiari buruzko konklusioak:***

3.1 azpihipotesia bete egin da: Motibazio-maila handia duten ikasleen artean euskara ikasi eta erabiltzeko asmoak sendoagoak dira.

3.2 azpihipotesia bete egin da: Motibazio-maila handia duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa da.

3.3 azpihipotesia ez da bete: Irakasleengan motibazio maila altua hautematen duten ikasleen artean motibazioaren intentsitate handiagoa agertuko zela aurreikusten zen, baina bi aldagai hauen artean ez da koerlazio esanguratsurik ageri.

Gainera, ondoko aldagaiak ere motibazio-mailarekin maila esanguratsuan positiboki koerlazonaturik ageri dira. Motibazio-maila altua denean:

- Hautzarroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza sarriagotan da euskara.
- Euskara maila altuagoarekin ekin zioten euskaltegian ikasteari.
- Ikasgelatik at ikasteko baliabideak gehiago erabiltzen dituzte.
- Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna altuagoa da.
- Lortzeko igurikapena handiagoa da.
- Emaitzen balorazioa hobea da.
- Identitatea euskaldunagoa da.

Jarrerak (euskararekiko eta euskaldunekiko jarrerak, euskararen erabilpenarekiko jarrerak, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondatea, euskararekiko leialtasuna eta euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea) hobek dira.

- Sare sozialean hautemaniko erabilera handiagoa da.
- Euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia handiagoa da.
- Euskarari balio sinboliko handiagoa ematen zaio.
- Euskarari balio praktikoa handiagoa hautematen zaio.
- Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa handiagoa da.
- Eragile integratzailea sendoagoa da.
- Eragile instrumentala sendoagoa da.

Beste aldagai batzuk ere motibazio-mailarekin maila esanguratsuan koerlazioaturik ageri dira, baina koerlazioak negatiboak dira. Motibazio-maila urria denean:

- Adina (gaurkoa eta euskaltegian ikasteari ekindako garaikoa) handiagoa da.
- Hizkuntzaren zailtasunari buruzko usteak handiagoak dira.
- Ikasteari hautemandako kostu psikologikoa handiagoa da.

### ***Laugarren hipotesiari buruzko konklusioak:***

4.1 azpihipotesia bete egin da: Euskara ikasi eta erabiltzeko asmo sendoak dituzten ikasleen artean euskararako gaitasuna altuagoa da.

4.2 azpihipotesia bete egin da: Identitate euskaldun altua duten ikasleen artean euskararako gaitasuna altuagoa da.

4.3 azpihipotesia bete egin da: Euskararen eta euskaldunen egoeran positiboki eragiteko borondate sendoa duten ikasleen artean hizkuntza gaitasuna altuagoa da.

4.4 azpihipotesia bete egin da: Hizkuntza gaitasun apalagoa duten ikasleen artean euskarari hautemaniko bizitasuna handiagoa da.

4.5 azpihipotesia ez da bete: Autodeterminazio maila altua duten ikasleen artean euskararako gaitasuna handiagoa izango zela aurreikusten zen, baina bi aldagai hauen artean ez da koerlazio esanguratsurik ageri.

4.6 azpihipotesia bete egin da: Eragile integratzaile nahiz instrumental sendoagoak

dituzten ikasleen artean euskararako gaitasuna altuagoa da.

Gainera, ondoko aldagaiak ere euskararako gaitasunarekin maila esanguratsuan positiboki koerlazonaturik ageri dira. Euskararako gaitasuna altuagoa denean:

- Jaiolekua den lurraldean euskara gehiago erabiltzen da.
- Haurtzaroan ikasi eta etxean erabilitako hizkuntza sarriagotan izaten da euskara.
- Ikasketak hizkuntza eredu euskaldunetan egin dituzten ikasleak gehiago dira.
- Euskara maila altuagoarekin ekin zioten euskaltegian ikasteari.
- Euskaltegian urrats gehiago aurreratu dituzte.
- Ikas-prozesuaren erritmoa biziagoa da.
- Ikasgelatik at ikasteko baliabide gehiago erabiltzen dituzte.
- Euskararen normalizazioarekiko jarrera hobea da.
- Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa handiagoa da.
- Motibazio-maila handiagoa da.

Beste aldagai batzuk ere euskararako gaitasunarekin maila esanguratsuan koerlazonaturik ageri dira, baina koerlazioak negatiboak dira. Euskararako gaitasuna urria denean:

- Adina (gaurkoa eta euskaltegian ikasteari ekindako garaikoa) handiagoa da.
- Bizilekuan euskara gehiago erabiltzen da (gehienbat Goierrin bizi direlako, eta Goierrin oro har beste lurraldeetan baino euskara gehiago erabiltzen delako).
- Ikas-prozesuan jarraitutasun handiagoa dago (etenaldi gutxiago egin izan dituzte).
- Ikastaroaren balorazioa hobea da.
- Irakasleei buruzko balorazioa hobea da.
- Nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna handiagoa da.
- Ikasteari hautemaniko kostu psikologikoa handiagoa da.

### ***Bosgarren hipotesiari buruzko konklusioak:***

5.1 azpihipotesia bete egin da: emaitzen balorazio positiboa egiten duten ikasleen artean nork bere buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna handiagoa da.

5.2 azpihipotesia bete egin da: emaitzen balorazio negatiboa egiten duten ikasleen artean euskararen zailtasunari buruzko uste sendoagoak ageri dira.


Gainera, ondoko aldagaiak ere emaitzen balorazioarekin maila esanguratsuan positiboki koerlazonaturik ageri dira. Norberak lorturiko emaitzen balorazioa hobea denean:

- Ikastaroaren balorazioa hobea da.
- Irakasleei buruzko balorazioa hobea da.
- Ikasgelatik at ikasteko baliabide gehiago erabiltzen dira.
- Lortzeko igurikapena handiagoa da.
- Euskarari buruzko iritzia hobea da.
- Euskara ikasteak norberarentzat duen balioa handiagoa da
- Eragile integratzailea sendoagoa da.
- Motibazio-maila handiagoa da.

Beste aldagai batzuk ere emaitzen balorazioarekin maila esanguratsuan koerlazioaturik ageri dira, baina koerlazioak negatiboak dira. Emaitzen balorazioa negatiboagoa denean:

- Euskaltegian urrats gehiago aurreratu dituzte.
- Ikasteari hautemaniko kostu psikologikoa handiagoa da.

## Euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak





## 5.2. IKASITAKOA ERABILTZEKO ZAILTASUNA ETA OZTOPOAK

Euskaltegian ikasitakoa handik kanpo erabiltzea da euskalduntzearen azken xedea, baina hau ez da beti ikasleen esku egoten. Behar adinako gaitasuna lortzea ez da erraza izaten, eta lortzen denean ere izaten dira oztopo ugari, hizkuntza gutxi-agotu bat erabili ahal izateko norberaren gaitasuna eta borondatea ez baitira nahikoa. Ikasle askoren harreman sarea gehienbat erdalduna da, honek euskara erabiltzeko aukerak murrizten ditu, eta sarritan gaitasuna ere baldintzatzen du, erabilera urria denean zaila baita gaitasun egokia lortzea eta lorturiko ezagutza mailari eustea. Baina motibazioak ere badu eraginik. Euskara etorkizunean erabiltzeko ikasleek duten asmoak motibazio-mailarekin zerikusi handia du: motibatuagoak dauden ikasleak dira erabiltzeko asmorik handiena dutenak. Erabiltzeko asmoak eragile integratzailearekiko koerlazio trinkoa agertzen du, eta eragile instrumentalarekiko koerlazioa ere nabarmena da.

Euskaldunekiko harremanei erreparatzen badiegu, ikasleek (gaitasun nahikoa izanez gero) jarrera ezberdineko solaskideekiko harremanetan agertuko luketen euskararekiko atxikimendua ere motibazioari lotua dago. Kasu honetan eragile integratzaileak du zerikusia: eragile integratzaile sendoa duten ikasleek euskararekiko leialtasun handiagoa agertzen dute, hots, euskara gehiago erabiliko luketela adierazten dute. Eragile instrumentalaren eta euskararekiko atxikimenduaren artean, aldiz, ez da koerlazio nabarmenik ageri, ez positiborik, ezta negatiborik ere.

Kontuan izan behar da, gaur egun Goierrin –eta Hego Euskal Herrian, oro har– gaztelaniaren presentzia eta indarra handiak direla, eta, ikasitako euskara erabiltzeko aukerak urriak direla ikusirik, inguru sozial erdalduna duten ikasleen motibazioak behera egin dezakeela. Euskaldunen arteko harremanetan ere erdaldunen presentzia hutsak euskararen erabilera eragozten du, erdaldun baten aurrean euskaraz hitz egitea sarritan errespetu faltatzat jotzen delako eta, azken batean, euskaraz hitz egiteko eskubiderik eta askatasunik hautematen ez delako.

Auzi honetan ere motibazioak badu zerikusirik: eragile integratzaile sendoa duten ikasleek euskaraz hitz egiteko eskubide handiagoa hautematen dute, eta honek euskararen erabilerari laguntzen dio. Aldiz, eragile instrumentalaren eta euskara erabiltzeko hautemaniko eskubidearen artean ez dago koerlazio esanguratsurik.

Euskaldunek, erdaldunen presentzian, konbergentzia linguistikorako joera dute: bestearen hizkuntza hautatzen dute, “guztiek” ulertu ahal izateko. Taldeko harremanetan ia kide guztiak euskaldunak direnean ere, erdaldun bakar bat nahikoa izan ohi da euskara bazter uzteko. Hau gutxi balitz, euskalduntzen ari direnekin ere jokabide bera agertzen dutenak ere badira, euskaldun berriari *laguntzeko* erdaraz egiten diotenak, alegia.

Baina gaitasun falta, edo nolabaiteko komunikaziorako erraztasun falta, ez da soilik euskaldun berrien arazoa, euskaldun zaharrak ere sarritan gertatu ohi dira

egoera bertsuan. Gaitasun falta hau aipatzen dute Kike Amonarriz, Iñaki Arruti eta Erramun Osak BAT aldizkarian argitaratu berri duten artikuluan:

*“Kontuan izan behar da, gainera, euskararen atzerakada historikoa eta jasan duen funtzio murrizketa direla medio, euskara ez dela garatu hainbat esparru eta funtziotan. Eta bestalde, euskara batua hain berria izanik, oraindik ere erabat egonkortu gabe dagoela. Horregatik esan genezake, une honetan euskal hiztun guztiak garela nolabait euskaldun berri eta denok ditugula oinarrizko gabezia linguistikoak.”* (Amonarriz Gorria, Arruti eta Osa, 2004).

Norberaren gaitasunaren ahuleziaz jabetzeak batere eroso ez den egoeran jar-zen du hiztuna, eta, irtenbide baten bila, batzuetan erdarara joko du (hainbat kasu-tan, gainera, hizkuntza aldaketaren erantzukizuna solaskideari egotziz). Prozesu hau kontziente edo inkontzienteki gerta daiteke, baina honelako egoerak eraldatze-ko bidea ezinbestean kontzientea izan behar du; izan ere, inertziak, ohiturak eta erraztasunak gehienetan gaztelaniaren alde egingo dute euskarak hizkuntza gutxia-gotua izaten jarraitzen duen artean. Arazo honi aurre egin ahal izateko, euskararen aldeko motibazioa indartzen duten faktoreak ditugu gure esku; motibazioa areago-tuz ezagutza eta erabilera sendotu daitezke eta hizkuntzaren normalizaziora dara-maten bideak urratu.

### 5.3. ETORKIZUNARI BEGIRA

Ikerlan honen emaitzen arabera, euskara ikasteko motibazioaren alderdi integra-tzailea nahiz instrumentala piztu arazten dituzten faktoreak ugari dira, eta hauetari-ko askok ikasleek etorkizunean egingo duten euskararen erabilera ere eragiten dute. Identitate euskalduna bultzatuz, harreman sareetan euskararen erabilera han-dituz, *euskaldun* kontzeptuaren izaera linguistikoa aldarrikatuz, euskarak normali-zatzeko duen premia ezagutzera eman ez eta euskararen irudia hobetuz, hizkuntza hau ikasi eta erabiltzeko motibazio soziala handitzen da. Hau ez da asmatu berria, eta dagoeneko planteamendu teoriko horiek neurri batean praktikara eramanak izan dira. Duela urte asko ekin zitzaion bide horri Euskal Herrian, eta horren emaitzak gure artean ditugu.

Apal samarrak direla emaitza hauek salatu ohi da, baina lorturikoa baloratzea ondo legoke: Goierrin (eta Hego Euskal Herrian, oro har) euskararen ezagutzak gora egin du, neurri handi batean hezkuntza-sistemari esker, baina helduen euskal-duntzeak ere izan du bere zerikusia. Erabilera buruzko datuak apalagoak izan ohi dira, baina honen irakurketa egiterakoan kontuan izan behar da, hizkuntza gutxia-gotu baten erabilera, hiztunen borondateaz gain, harreman sarearen hizkuntza gai-tasuna ere erabakigarria dela, eta prozesu luze baten ondorio izaten dela edozein aldaketa.

Esate baterako, familia eta lagunartea erdaldunak dituen euskaldun berri batek, nahiz eta euskaraz hitz egiteko borondatea izan, gehienetan gaztelaniaz hitz egiten

jarraituko du (eta kaleko erabileraren datuetan hala azalduko da), inguruko en gaitasun ezak euskaraz hitz egitea eragozten baitio. Elebidunen kopurua urria den inguru sozialean, lorturiko ezagutzak erabileran izango duen eragina mugatua izango da, baina beti ere baloratu behar den aurrerapausoa dakar, egoeraren eraldaketan eragiten baitu. Adibide gisa jarritako euskaldun berri hori familiako haurrekin euskaraz hitz egiten hasiko da ziurrenik, agian lantokian erabiliko du, behar bada lagun euskaldunak egingo ditu... eta bere ingurua euskalduntzen lagunduko du (eta horrelakorik ez bada gertatzen, haren ezagutzak ere behera egingo du).

Ezagutzak erabilera ahalbidetzen du (norberarena eta besterena), eta erabilerak ezagutza hobetzen du, bide batez besteengan ikasteko motibazioa ere areagotzen duelarik. Beraz, ezagutza eta erabilera ezinbestean loturik daude, baina lotura konplexua da, norberaren nahiz inguruko en gaitasunak, jarrerak eta portaerak kontuan hartu beharrekoak baitira.

Euskararen erabilera ezagutza maila baino urriagoa izango da ezinbestean, eta ez zaio egotzi behar hiztunen borondate ezari. Gaztelania guztiek ezagutzen dute, eta euskara batzuek bakarrik; egoera hau aldatzen ez den bitartean, euskararen erabilera nahitaez mugatua izango da, euskara erabili nahi dutenek erdaldunei ezin baitiote euskaraz egin. Hizkuntzaren etorkizuna kolokan dago, eta sustatzen laguntzeko ekimenak premiazkoak dira.

Euskararen iraupena bermatzeko, familian eta lagunartean, lanean, hedabideetan eta era guztietako harremanetan hizkuntza nagusia euskara izatea lortu beharko litzateke. Euskal Herrian komunikatu ahal izateko (kalean, lantokian...) euskara *beharrezkoa* balitz, ez ginateke motibazioa pizteaz arduratuko, egoera horretan guztiek ikusiko bailukete euskararen premia. Baina, oraingoz, ez da horrelakorik gertatzen, eta, ezagutza bermatzeko, motibazioa nolabait sustatu beharrean gara.

Ikas-prozesuaren aldi motibazioari eustea ez da lan erraza. Ikasketa garaian sortzen diren zailtasunen aurrean, euskararen behar handirik hautematen ez dutenek etsi egiten dute, eta arrazoi instrumental nahiz integratzaile sendoak dituzten ikasleak dira ikasten dirautenak. Oro har, eragile instrumental sendoa duten ikasleen artean euskararako gaitasuna altuagoa da, eta eragile integratzaile indartsua duten ikasleen artean euskararekiko leialtasuna eta euskaraz hitz egiteko hautemaniko eskubidea altuagoak dira. Eragile instrumentalak ezagutzan eragiten du batez ere, eta eragile integratzaileak erabileran bereziki. Beraz, euskararen etorkizuna bermatu ahal izateko, motibazio motarrik egokiena integratzaile-instrumentala izango litzateke.

Motibazio mota hau ez da soilik teorikoa edo *utopikoa*; kontuan izan behar da, ikerketa honen emaitzen arabera, eragile integratzailea eta instrumentala koerlazio-naturik ageri direla: bata altua denean, bestea ere altua izan ohi da. Gainera, ikas-prozesuaren ondorioz lortutakoaren balorazioa egitean, ikasleek ikas-prozesuaren ondorio integratzaileak aipatzen dituzte gehienbat, baita motibazio nagusia instru-

mentala den kasuetan ere. Esate baterako, lanpostua errazago topatzeko euskara ikasten ari den gazte batek agian ez du oraingoz lanik aurkitu, baina euskaldunen artean erosoago sentitzen da, lagun euskaldun gehiago ditu, bere burua integratua-goa ikusten du... Ikaslea ez zebilen helburu horien atzetik, baina ikas-prozesuak emaitza integratzaile horiek izan ditu.

Euskal Herrian harreman pertsonaletarako eta lanerako euskara *behar* duela hau-tematen duenak ahaleginak egingo ditu hizkuntza hau ikasten eta erabiltzen. Nola sustatu, ordea, irudipen hori? Biderik zuzenena erabileraren eskutik datorrena da: euskara zenbat eta gehiago entzun, ikusi eta ikasi, orduan eta euskararen premia handiagoa nabarituko da gizartean. Honek badakar ondorio garrantzitsu bat, erant-zukizun apur bat bakoitzaren eskuetan uzten digulako: geuk euskara erabiltzen dugun heinean motibatzen ditugu besteak ikastera eta erabiltzera.

Ahalmen horri etekina ateratzeko, biderik eraginkorrenetako bat edozein elka-rrizketatan lehen hitzak beti euskaraz egitea da, *baita solaskidea erdalduna dela jakinda ere*. Joxemartin Apalategi zenak urteetan jarraitu zuen praktika honen berri eman zuen Gerriko Ikerlan-Bekaren bileretako batean, eta solaskideen aldetik gero eta harrera hobea eta euskararekiko errespetu handiagoa nabaritzen zuela adierazi zuen.

Bestalde, solaskidearen gaitasuna apala denean, norberak erabili ohi duen hiz-kuntza egokitzea komeni da, bestearentzat ulerterraza izan dadin. Mintzakidearen motibazioa indartu nahi bada, arretaz eta pazientziaz entzun behar zaio eta, batez ere, ez euskaldun berriari *lagundu* erdaraz hitz eginez.

Euskararen zailtasunaren mitoa apurtzeari ekin beharko zaio lehentxeago edo geroxeago, eta, lan hau ere luzea eta neketsua izango denez, lehenbailehen ekitea hobe. Euskaldun zaharrei ere euren hizkuntza *zaila* dela iruditzen zaie sarritan, eta zer esanik ez euskaldun berriei. Irudipen horretara eragiten duten arrazoi historiko-ak badaude: euskarak jasandako funtzio murrizketaren ondorioz zenbait alorretan norberaren hizkuntza arrotza gertatzea ere ohizkoa izan da. Baina egoera aldatzen ari da: euskara batua egonkortzen ari da eta, nahi baino geldoago bada ere, esparru guztietara hedatzen ari da euskara.

Gainera, ikasten ari denarentzat premia larria da eragilerik indartsuena: Alemanian bizi denarentzat alemana ikastea *errazagoa* da, ez duelako beste irten-biderik; Euskal Herrian, berriz, euskara ikastea *zailagoa* da, beste hizkuntza (gazte-lania Hegoaldean, frantsesa Iparraldean) hor dagoelako. Euskara ikastea eta erabil-tzea ez da derrigorrezkoa, baizik eta hautazkoa, eta maila apal samarra duten ikas-le gehienek ez dute erabiltzen ikasgelatik kanpo, erdaraz komunikatzeko aukera dutelako. Honen ondorioz, ikas-prozesua geldoagoa, astunagoa da, eta hizkuntza bereziki zaila den irudipena sortzen da. Beraz, zailtasuna hizkuntzaren egoerari egotzi behar zaio batez ere, ez haren izaerari, eta euskara zaila dela behin eta berri-ro aipatzeak ez dio mesederik egiten inoren motibazioari.

Euskararen beharrezkotasuna lortzeko, baldintza sozialak eraikitzeko bidean, lan-munduak aukera paregabea eskaintzen du, gure gizartean lanak agintzen baitu, eta lanerako beharrezkoa dena azken batean bizitzeko beharrezkoa gertatu ohi da. Lantokiak euskalduntzeko ekimenak ugaltzen ari dira, eta honek aldaketa garrantzitsuak eragin ditzake euskararen balioari buruzko irudipenetan. Dagoeneko, Goierriko euskaltegietako ikasleek euren inguru sozialean batez ere lantokian hautematen dute euskararen erabilerarik handiena, eta hau motibazio eragile indartsua da, ikasle ugari euskara ikastera bultzatzen dituelarik.

Baina lana garrantzitsua izanik, bizitzan bada besterik. Euskal giroa indartzen duten jaialdi eta kultur ekimenek garrantzi handia izan dute gure artean, eta benetan kontuan hartzekoak dira, eragin bikoitza baitute: batetik, euskararen presentzia indartzen dute; bestetik, euskal identitatea areagotzen dute, eta biak ere motibazio eragile indartsuak dira.

### **5.3.1. EUSKARAREN IKASKUNTZA MOTIBATZAILEA SUSTATZEKO AHOLKUAK**

Ikerketa honen emaitzen arabera, maila altua lortu duten ikasleak dira motibatu-enak, motibazioa urria denean ia ezinezkoa baita ezagutza maila egokia lortzea. Baina gaitasun handia eskuratu duten ikasle hauen esperientzia gehienetan oso neketsua izan da. Ezagutza maila altua duten ikasleen artean ikastaroari hautemandako egokitasuna urriagoa da, irakasleei buruzko balorazioa negatiboagoa da, eta norberaren abileziari buruzko usteak ere kolokan geratzen dira: maila altua lortu duten ikasleen artean euren buruari hautemaniko ikasteko gaitasuna urriagoa da, eta ikasteari hautemandako kostu psikologikoa handiagoa. Ikasten dirautenek eta maila altua lortu dutenek horrelako irudipen negatiboak badituzte, zer ez ote dute pentsatzen etsi eta ikas-prozesua bertan behera utzi dutenek?

Ikas-prozesuari hautemandako garraztasun hori nolabait gozatzen laguntzeko, gizarte eragile ezberdinen partaidetza eta konpromisoa lortzea komenigarria da, ikasleen ahaleginen ondorio positiboak nabarmenarazteko, eta euren motibazioa sendotzeko.

#### ***Agintari politikoei:***

Euskararen normalizaziorako orain arte gauzatu diren politikak hezkuntza-sisteman oinarritu dira, eta abiapuntu hori egokia da, hezkuntzak ondorengo belaunaldiak euskalduntzeko aukera ezin hobea eskaintzen baitu. Baina hezkuntza formalaren parean gehienbat erdaraz ematen diren sozializazio prozesuak direla eta, euskarazko hezkuntza jaso duten gazteak ere gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen dira sarritan. Beraz, etorkizuneko euskaldunek gaitasun nahikoa lor dezaten, hezkuntza-sistematik at geratzen den unibertso kulturala ere euskalduntzeko saialdia behar-beharrezkoa da.

Eskola da lehen urratsa, baina prozesuak aurrera jarraitu behar du; ikastetxeetan ikasitakoa ez badator bat eguneroko *beste* errealitatearekin (komunikabideekin, aisi-aldiarekin, lan munduarekin...) euskararen balioa kolokan geratzen da, eta ikasleentzat euskararen ikaskuntzak zentzua galtzen du sarritan, *derrigortuak* sentitzen dira, gizartean *beharrezkoa* ez den hizkuntza bat eskolan ikasi behar dutelako (ikasgaia gainditzeko) edota euskaltegian (titulua lortu eta lana errazago topatzeko). Euskalduntze arrakastatsua lortzeko, hezkuntzan hasi den iraultza beste alorretara eramatea premiazkoa da, etorkizunean benetako beharrezkotasuna eraiki ahal izateko.

### ***Administrazio, enpresa eta gainerako erakundeei:***

Gaur egun euskarak lanpostua lortzen laguntzen duen ustea oso zabaldua dago, eta hori benetan motibatzailea da, baina gero lan esparru gehienetan, arlo publikoan nahiz pribatuan, egiten den erabilpen urria dela eta, euskararen baliagarritasuna kolokan geratzen da. Beraz, gaurko egoeran, euskara oso baliagarria dela hautematen da *lana topatzeko* garaian, baina ez hainbeste *lanean jarduteko*.

Administrazioaren jarrerak ere uste hauek sendotu ditu; izan ere, arlo publikoko lanpostuak eskuratu ahal izateko hizkuntza eskakizun zehatzak bete behar dira, baina gero, eguneroko jardueran, sarritan ez zaie langileei eskatzen sarrerako hizkuntza eskakizunen araberako funtzionamendurik, eta askotan ia gaztelania hutsean egiten dute lan, euskararen ardura itzultzaileen eta zuzentzaileen esku utziaz. Horrelako jokabidea ez da oso motibatzailea euskara ikasten ari direnentzat, titulu edo agirien balioa areagotzen baita ikasitakoaren erabilgarritasuna gutxietsiz, eta honen arriskua jakina da: agiria lortu ondoren, ikasitakoa ahaztea.

Euskararen normalizazioa helburu izanik, guztiok gara erantzule, baina *batzuk besteak baino erantzuleago*, eta Administrazioak euskararen aldeko apostu garbia egin behar du. Lanpostua eskuratzeko eskatutako baldintza linguistikoen araberako lan-jarduera eskatu behar zaie langileei, eta hasierako maila hori hobetzeko laguntza eman. Enpresa pribatuetan ere beste hainbeste egin daiteke: dagoen ezagutzamailari probetxu atera, lantokian ahalik eta gehien erabiltzen lagundu, eta gaitasuna areagotzeko baliabideak eskaini, langileen nahiz bezeroen hizkuntza eskubideak errespetatzeko beharrezko neurriak hartuaz.

Prozesuak aurrera egiten duen heinean, euskara baliagarria izango da, ez soilik lanpostua eskuratzeko, baizik eta eguneroko eginkizunak euskaraz bete ahal izateko ere bai, eta hau motibazio iturria da lan bila dabilentzat nahiz lanean ari direnentzat.

Lan-mundutik at geratzen diren beste erakundeek ere badute zereginik euskara sustatzen laguntzeko, euren ekimenetan euskararen presentzia areagotuz, eta ikas-taro bereziak nahiz euskaren aldeko edonolako ekintzak antolatuz.

### ***Ikastetxeetako arduradunei:***

Ikasleei eskainitako prestakuntza euren beharretara egokitzeko ahalegina egin behar dute ikastetxeek, horretarako ikasleen premiak aztertuz, eta ahal den neurrian ikastaroak behar horietara egokituz. Enpresa eta bestelako erakundeekiko harremanak sendotzea ere behar-beharrezkoa da, ikasgelan ikasitakoa eta handik kanpo erabilitakoa ahalik eta egokien uztartzeko.

Irakasleentzako motibazioa lantzeko mintegiak antolatzea interesgarria izan daiteke, eztabaida-taldeak sortzeko, bakoitzak bere esperientzien berri emateko, hausnarketa bultzatzeko eta, azken batean, irakasleen nahiz ikasleen motibazioa sustatzeko bideak urratzeko.

### ***Irakasleei:***

Ikasleek ikas-prozesuari oro har hautematen dioten garraztasuna arintzeko, Dörnyei-k (2003) proposaturiko motibazio-estrategien artean, euskararen irakas-kuntzarako baliagarrienak gerta litezkeenak egokitu eta aipatzea lagungarri izan daiteke.

*Irakasleak ikasleen motibaziorako oinarritzko baldintzak sortzeko erabil ditzakeen estrategiak:*

- Ikasleei euskarak zuretzat duen interesaren berri eman, eta euskararen irakaskuntzak zure bizitza nola aberasten duen azaldu.
- Erakutsi ikasleei axola zaizula eurek aurrera egitea; adierazi euren eskura zaudela, gorputzez eta gogoz, eta zure ikasleek lor dezaketenez esperantza handiak izan.
- Landu ikasleekiko harreman pertsonala. Entzun eta arreta jarri bakoitzari, eta erakutsi ikasleei onartzen dituzula, eta axola zaizkizula.
- Giro atsegin eta lagun artekoa sortu ikasgelan. Bultzatu ikasleak arriskatzera, eta onarrarazi hutsegiteak euskara ikastearen berezko parte direla. Ikasgela euren gustuen arabera pertsonalizatzera gonbidatu ikasleak, eta umorea bultzatu.
- Taldearen kohesioa sustatu. Erabili sarri talde txikiko atazak, ikasleen arteko harremanak bultzatzeko, eta eragotzi ikasgelan jesartzeko eskema zurrinak finkatzea. Erabili talde osoak batera burutu behar dituen jarduerak, edota talde txikien arteko lehiaketa jokoak.

*Hasierako motibazioa sortzeko estrategiak:*

- Ikasleei euskara jakiteari lotutako balio integratzaileen eta instrumentalen berri eman. Noizik behin gogoratu ikasleei euskara ondo jakitea eurek baloratzen dituzten helburuak lortzeko tresna dela, eta bultzatu dakitena euskaltegitik kanpo ere erabiltzera.

- Ikasleen arrakasta igurikapena handitu. Atazak egiterakoan, neurriak hartu behar besteko prestakuntza eta laguntza izan ditzaten eta arrakastarako oztopo larririk egon ez dadin.
- Ikasleen beharrei erantzun. Ikertu ikasleen premia, helburu eta interesak, eta guztiak kontuan izan ikastaroa prestatzean. Ikasleei laguntza eskatu ikastaroa diseinatu eta aurrera eramateko.
- Lagundu ikasleei uste errealistak sortzen. Egin aurre, modu positiboan, ikasleek izan ditzaketan uste, igurikapen eta suposamendu okerrei.

*Motibazioari eusteko estrategiak:*

- Erabili helburuak ezartzeko estrategiak ikasgelan. Bultzatu ikasleak helburu zehatzak eta epe laburrekoak xedatzera, eta betearazten ahalegindu.
- Bihurtu ikas-lana jostagarriago, ikasgelako gertaeren monotonia apurtuz. Aldatu atazak eta irakaslanaren beste alderdi batzuk ahalik eta gehien, eta noizbehinka egizu ezustekoren bat.
- Atazak erronka bihurtu, eta egin erakargarri, ikasleek berez dauzkaten interesetara egokituz, edota osagai berriak, harrigarriak, exotikoak, umoretsuak edo lehiakoak erantsiz.
- Eman ikasleei ikasitakoaz konturatzeko aukerak, eta ikas-prozesua bide onetik doan irudipena sortzen lagundu. Atazen zailtasuna ikasleen abileziei egokitu, eta ataza zailak errazagoekin orekatu.
- Eraiki ikasleen konfiantza, sarritan bihotz emanaz. Bideratu ikasleen arreta euren trebeziara. Erakutsi ikasleei, sinesten duzula ikasteko ahalegina egingo dutela eta atazak burutzeko gai direla.
- Ikasleen autonomia modu aktiboan bultzatu. Utzi ikasleei aukeratzen ikas-prozesuaren ahalik eta alderdi gehienetan.

*Ikasleen autoebaluazio positiboa bultzatzeko estrategiak:*

- Bultzatu ikasleak euren hutsegiteak ahalegin urriaren eta estrategia egokien ezaren ondorio direla ikustera, eta ez abilezia txikiegiarena.
- Erreparatu eta erantzun ikasleen ekarpen positibo guzti-guztiei.
- Aipatu noizik behin ikasleek egindako aurrerapenak eta baita ere aparteko arretaz landu beharko lituzketen alderdiak.
- Handitu ikasleen poza: Ikasleen aurrerapen eta lorpenak goraiatu eta ospatu, eta agindu noizbehinka ikasleei nork bere trebetasunak besteen aurrean agertu ahal izateko moduko atazak.

Motibazio-estrategia hauek guztiak emaitza onak ekar ditzakete, baina horrek ez du esan nahi irakasle bakoitzak guzti-guztiak aplikatu behar dituenik modu iraunkorrean. Kalitateak du garrantzia, eta ez kantitateak. Beraz, irakasle bakoitzari



dagokio estrategia egokienak aukeratzea, jadanik erabiltzen ditueni gehitzea, eta guztiei ahalik eta etekin handiena ateratzea, etorkizunean ikasleen motibazioak gora egin dezan.

### **5.3.2. ETORKIZUNERAKO IKERKETA ILDOAK ETA GOGOETA BIDEAK**

Ikerlan honi ekitean, burujabetzaren teoriak euskalduntze prozesuan izan zezakeen garrantzia nabarmendu ahal izatea espero nuen. Autodeterminazio maila altua duten ikasleen artean (norberaren borondatez ikasten ari diren irudipena duten ikasleen artean) ikas-prozesu arrakastatsuagoa eta, ondorioz, euskararako gaitasuna handiagoa izatea aurreikusten nuen, baina, emaitzen arabera, bi aldagai hauen artean ez da koerlazio esanguratsurik ageri. Autodeterminazio maila eragile integratzailearekin koerlazionatzen da (autodeterminazio maila altua denean eragile integratzaile sendoa izan ohi da), baina ez lorturiko gaitasunarekin. Aldiz, hizkuntza gaitasuna eragile instrumentalarekin koerlazionaturik ageri da. Beraz, autodeterminazio maila altuak, hots, nork bere borondatez ikasten aritzeak ez du ezagutza hobea bermatzen, eta euskararako gaitasuna batez ere instrumentaltasunari loturik ageri zaigu.

Bestalde, motibazioan eragiten duten faktore integratzaile eta instrumentaleei erreparatzean, eragile integratzaileari buruzko informazio gehiago eman digu ikerlan honek. Identitatea, sare sozialean hautemaniko euskararen erabilera, euskaldun izateko baldintza linguistikoei emandako garrantzia, euskararen normalizazioarekiko jarrera, euskararen egoeran eragiteko borondatea eta ikasi/erabiltzeko asmoak eta euskara nahiz euskaldunei buruzko iritziak eragile integratzailearekin erlazonaturik agertzen dira. Azken bi aldagai hauek eragile instrumentalarekin ere erlazonaturik ageri dira, baina honi buruzko datuak hortxe amaitzen dira. Hots, euskararen ikaskuntzarako motibazioaren alderdi integratzaileari buruz dugun informazioa alderdi instrumentalarari buruzkoa baino askoz ere osatuagoa ageri zaigu. Eragile instrumentala da, ordea, euskararako gaitasunarekin koerlazorik sendoena duena; beraz, eragile eraginkorrenari buruzko informazioa eskasagoa da, eta hurrengo ikerketetan hutsune hori betetzeko ahaleginak egin beharko lirateke, motibazioaren osagai instrumentalean eragiten duten aldagaiak identifikatuz eta aztertuz.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dut Txillardegik zehaztutako euskararen erabilera hedatzeko hiru bide teorikoetatik bat aukeratu dudala liburu honen atarian, elebidunen kopurua handitzearena, hain zuzen ere. Baina ikerketaren emaitzen arabera, euskalduntzen ari diren ikasleen motibazio-prozesuak eta Txillardegik aipaturiko euskararen hedapenerako beste bideetariko bat (elebidunen euskararekiko leialtasuna handitzea) elkarri loturik ageri dira: ikasteko motibazioan eragile integratzaile sendoa denean, etorkizunean euskararekiko leialtasun handiagok jokatuiko duten ikasleak ditugu, baina jokaera leial hori gerta dadin, ezagutza nahikoa eskuratzea komenigarria da, eta horretan eragile instrumentala dute batik bat lagungarri. Beraz,

faktore integratzaileak nahiz instrumentalak euskararen etorkizuneko erabileran eragiten dute, eta eragin hori ahalik eta handiena izan dadin bata zein bestea sustatzen dituen plangintzen aldeko apostua egin behar da.

## I. ERANSKINA: GOIERRIKO EUSKALTEGIAK

### MAIZPIDE euskaltegia/barnetegia



Maizpide Euskaltegi/Barnetegia. ACV multimediako Edurne Rubiok, 2005eko apirilean ateratako argazkia.

Helbidea: **Elosegi 40, 20210 LAZKAO**  
Telefonoa: **943889231**  
Faxa: **943889232**  
Helbide elektronikoa: **lazkao@maizpide.com**  
Webgunea: **www.maizpide.com**

1988an ekin zioten Maizpiden euskararen irakaskuntzari, eta gaur egun 22 irakaslek dihardute lanean, Marian Bidegain zuzendari dutelarik.

### 2004-2005 IKASTURTEAN MAIZPIDEN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK

*Barnetegian:*

Urria:	110 ikasle (10 talde)	Apirila:	162 ikasle (10 talde)
Azaroa:	107 ikasle (9 talde)	Maiatza:	165 ikasle (10 talde)
Abendua:	88 ikasle (9 talde)	Ekaina:	115 ikasle (10 talde)
Urtarrila:	113 ikasle (10 talde)	Uztaila (I):	96 ikasle (8 talde)
Otsaila:	150 ikasle (10 talde)	Uztaila (II):	123 ikasle (9 talde)
Martxo:	157 ikasle (10 talde)	Abuztua:	150 ikasle (9 talde)

<i>Ordukakoak:</i>	78 ikasle (7 talde)
<i>Autoikaskuntza:</i>	8 ikasle
<i>Enpresak:</i>	54 ikasle (7 talde)
<i>Urrutiko ikaskuntza (Argentina):</i>	25 ikasle (2 talde)

### Urte hauetan egindako lana

“Batez ere bi izan dira gure helburuak: 1) euskara hizkuntza era naturalean irakastea, eta 2) euskara hizkuntza eta kultura uztartu eta ezagutaraztea, hau da, hizkuntzaren bidez kultura-jabe egitea ikasleak.”

### Etorkizunerako erronka

“Erabilera da gure kezka nagusia, hau da, euskaltegia bukatu ondoren, zer? Horri heldu behar diogu buru-belarri, baina horretarako administrazioaren (baliabide ekonomikoak) eta herriaren (giza baliabideak) laguntza ezinbestekoa du.”

## GOIZTIRI AEK EUSKALTEGIA



Beasaingo Goiztiri- AEK Euskaltegia.  
2005-05-03an Mikel Albisuk ateratako argazkia.



Ordiziako Goiztiri-AEK Euskaltegia.  
2002-02-01ean Mikel Albisuk ateratako argazkia.

Helbideak: **Urbialde Plaza 7 behea**  
**20200 BEASAIN**  
**Andre Mari kalea 4-2-ezk.**  
**20240 ORDIZIA**

Telefonoak: **943889340 (Beasain)**  
**943889174 (Ordizia)**

Helbide elektronikoa: **beasain@aekanet.net**  
Webgunea: **www.aekanet.net**

1987an ekin zioten Goiztiri AEK-n euskararen irakaskuntzari, eta gaur egun 11 irakaslek dihardute lanean, Aitor Calvillo zuzendari dutelarik.

## **2004-2005 IKASTURTEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK**

- 001: 10 ikasle (euskalduntzea). Dorrea Etxea (Ordizia)
- 002: 12 ikasle (euskalduntzea). Dorrea Etxea (Ordizia)
- 003: 6 ikasle (euskalduntzea, guraso taldea). Urdaneta (Ordizia)
- 004: 9 ikasle (euskalduntzea, guraso taldea). Urdaneta (Ordizia)
- 005: 6 ikasle (EGA). Dorrea Etxea (Ordizia)
- 006: 9 ikasle (euskalduntzea). Dorrea Etxea (Ordizia)
- 007: 8 ikasle (euskalduntzea). Dorrea Etxea (Ordizia)
- 008: 2 ikasle (euskalduntzea, lan mundua). Orkli (Ordizia)
- 009: 2 ikasle (euskalduntzea, lan mundua). Orkli (Ordizia)
- 010: 2 ikasle (euskalduntzea, lan mundua). Orkli (Ordizia)
- 011: 2 ikasle (euskalduntzea, lan mundua). Orkli (Ordizia)
- 012: 2 ikasle (alfabetatzea, lan mundua). Orkli (Ordizia)
- 013: 2 ikasle (alfabetatzea, lan mundua). Orkli (Ordizia)
- 014: 23 ikasle (autoikaskuntza). Dorrea Etxea (Ordizia)
- 015: 18 ikasle (H110 Irale, irakasle taldea). Urdaneta (Ordizia)
- 016: 7 ikasle (euskalduntzea). Urbialde (Beasain)
- 017: 13 ikasle (euskalduntzea, jubilatuta taldea). Gure Txoko (Zumarraga)
- 018: 4 ikasle (euskalduntzea). Kultur Etxea (Idiazabal)
- 019: 13 ikasle (euskalduntzea, emakume taldea). Mairi (Urretxu)
- 020: 12 ikasle (euskalduntzea, emakume taldea). Mairi (Urretxu)

### **Urte hauetan egindako lanaren balorazioa**

“Euskaltegitik pasa diren goierritar kopurua aintzat hartuta ezin kexa. Dena den, euskaltegitik pasa bai, euskaldundu ere bai, baina zoritxarrez kalean honen isla nabarmenik ez dago (eta honek mintzen gaitu). Irakasle mugimendu handia izan da 18 urte hauetan. Goierritarak euskaltegira etortzeari utzi ondoren ere erronka berriei aurre egiten jakin dugu eta gu geu kalera irten ikasle bila (lan mundua, guraso taldeak, ikastetxeetako irakasleak, merkatariak, mintza taldeak, etorkinak, transmisio taldeak, haurtzaindegiak, autoikaskuntza...)”

### **Etorkizunerako erronka eta egitasmoak**

“Hainbat udaletako EBPnren baitan merkatarietzako ikastaro bereziak, etorkin etorri berrientzat, orain arte iritsi ez garen herri txikietan eskaintzak egin Udalen bitartez, autoikaskuntza sendotu, lan munduan egonkortu eta, nola ez, euskaltegietara jendea erakarri teknologia berriez baliatuz.”

## BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA



Beasaingo Udal Euskaltegia. 2000. urtean  
Foto Alzuri argazkidendakoek ateratako  
argazkia.

Helbidea: **Loinazko San Martin Plaza**  
**Kultur Etxea**  
**20200 BEASAIN**

Telefonoa: **943028100**

Faxa: **943028067**

Helbide elektronikoa: **zuzendaritza@beasain.net**

Webgunea: **www.udaleuskaltegiak.net**

1987an ekin zioten Beasaingo Udal Euskaltegian euskararen irakaskuntzari, eta gaur egun 7 irakaslek dihardute lanean, Gurutze Sukia zuzendari dutelarik.

### **2004-2005 IKASTURTEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK**

156 ikasle (12 talde, horietako bat merkatariena, bat gurasoena eta beste bat auto-ikaskuntzako)

#### **Urte hauetan egindako lanaren balorazioa**

“Urtez urte 150-200 ikasle izan ohi ditu Udal Euskaltegi honek, eta eskaintzen dituen zerbitzuetan egindako moldaketak dira herritarrengan duen harrera onaren sekretua.”

#### **Etorkizunerako erronka eta egitasmoak**

“Euskaltegiaren beste egiteko bat euskategia eta herriaren arteko zubilana egitea da. Horri begira garatzen du bere kurrikulua eta diseinatzen ditu bere ikasmaterialak. Hala ere, ikasle tipologia eta ikasleen behar desberdinak kontuan izanda bere eskaintza zabaltzen ahaleginduko da.”

## II. ERANSKINA: ERABILITAKO GALDE-SORTA

Goierriko euskaltegietan burutzen den ikas-prozesua aztertzeko ikertzen ari gara, eta horretarako ondorengo galderai erantzutea eskatzen dizugu. Erantzunak ematean ez da beharrezkoa gehiegi pentsatzea, lehen inpresioak bildu nahi baititugu. Ez dago erantzun zuzen eta okerrik, eta gainera anonimoak dira. Arren, ez utzi galderarik erantzun gabe. Mila esker zure laguntzagatik.

Maite Otegi  
IKERTZAILE ARDURAQUINA

1. Euskara ikasten dut... (ondorengo zerrendatik aukeratu arrazoi nagusia, bat bakarra)

- |   |   |
|---|---|
| 1) Gauza berriak ezagutu eta ikastea interesgarria delako         | 7) Niretzat bizigarria delako eta ondo pasatzen dudalako                            |
| 2) Behartu nautilako  | 8) Nire identitate eta baloreekin bat egiten duelako                                |
| 3) Nire buruari jarri dizkiodan helburuak lortzeko behar dudalako | 9) Euskal Herrikoa naizelako  |
| 4) Nire garapenean laguntzen didalako                             | 10) Ikasketak egin eta lana topatu nahi badut euskara ikastea derrigorrezkoa delako |
| 5) Ez badut ikasten gaizki sentituko naizelako                    | 11) Nire ingurukoengatik (seme-alabengatik...)                                      |
| 6) Erroak atsegin ditudalako                                      | 12) Egia esan, ez dakit zertan ari naizen...  |

2. Zer adin zenuen euskaltegi batean lehen aldiz ikasten hasi zinenean?

- 1) 0-16 urte    2) 17-24 urte    3) 25-34 urte    4) 35-44 urte    5) 45-64 urte    6) 65 urte edo gehiago

3. Eta, zergatik hasi zinen? (ondorengo zerrendatik aukeratu arrazoi nagusia, bat bakarra)

- |  |   |
|--|---|
| 1) Euskaldunen artean eroso sentitzeko   | 12) Lanpostu on bat lortzeko                                    |
| 2) Etorkizuneko ikasketak errazago egiteko   | 13) Jendeak gehiago errespetatzen zaituelako euskara badakizu   |
| 3) Euskaldunekin komunikatu ahal izateko   | 14) Euskal komunitateko kide bihurtzeko                         |
| 4) Geroago beste hizkuntza batzuk errazago ikasteko                                | 15) Euskaraz bizitzeko eta gure hizkuntza indartzeko            |
| 5) Lagun euskaldunak egiteko   | 16) Euskal kultura jasaten ari den erasoari aurre egiteko       |
| 6) Jantziago egoteko modu bat delako   | 17) Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko                  |
| 7) Euskaldunak eta euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratu ahal izateko | 18) Familiartekoekin (seme-alabekin, bilobekin...) hitz egiteko |
| 8) Euskaldun sentitzeko  | 19) Lanpostuari eusteko   |
| 9) Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko                           | 20) Etxekoek ikasarazten didatelako                             |
| 10) Interesatzen zaizkidan beste ekintza batzuk burutzeko (kirola, mendia...)      | 21) Besterik (zehaztu):.....                                    |
| 11) Ideia berriak eta ikuspuntu zabalagoak neureganatzeko                          |   |

4. Gaur egun, zergatik jarraitzen duzu euskara ikasten? Aurreko zerrendatik aukeratu arrazoi nagusia (aurrekoaren berdina nahiz desberdina izan daiteke) eta jarri hemen zenbakia: .....

5. Orain arte ikasitakoak zertarako balio izan dizu? (ondorengo zerrendatik aukeratu bost ondorio nagusi)

- |   |  |
|---|--|
| 1) Euskaldunen artean erosoago sentitzeko                                     | 12) Lanpostu on bat lortzeko                                     |
| 2) Beste ikasketak egiteko  | 13) Jendearen errespetua neureganatzeko                          |
| 3) Euskaldunekin komunikatu ahal izateko                                      | 14) Euskal komunitateko kide bihurtzeko                          |
| 4) Beste hizkuntza batzuk errazago ikasteko                                   | 15) Euskaraz bizi eta gure hizkuntza indartzen laguntzeko        |
| 5) Lagun euskaldunak egiteko  | 16) Euskal kultura jasaten ari den erasoari aurre egiteko        |
| 6) Jantziago sentitzeko   | 17) Lantokian euskararen erabilpena sustatzeko                   |
| 7) Euskaldunak eta euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratzeko      | 18) Familiartekoekin (seme-alabekin, bilobekin... ) hitz egiteko |
| 8) Euskaldunago sentitzeko  | 19) Nire lanpostuari eusteko                                     |
| 9) Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko                      | 20) Etxekoak gustura uzteko                                      |
| 10) Interesatzen zaizkidan beste ekintza batzuk burutzeko (kirola, mendia...) | 21) Besterik (zehaztu):.....                                     |
| 11) Ideia berriak eta ikuspuntu zabalagoak neureganatzeko                     |  |

6. Mundu guztiak ikas dezake hizkuntza arrotz bat

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

7. Hizkuntza batzuk errazagoak dira beste batzuk baino

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

8. Euskara, beste hizkuntzen aldean...

- 1) oso zaila da    2) zaila da    3) besteen modukoa da    4) erraza da    5) oso erraza da

9. Pertsona batek egunean ordubete emango balu euskara ikasten, zenbat denbora beharko luke jariatutasun ona lortzeko?

- 1) urtebete baino gubxiago  
2) urte bat eta bi bitartean  
3) 3-5 urte bitartean  
4) 5-10 urte bitartean  
5) egunean ordubete lan eginez ezinezkoa da euskara ikastea

10. Hasieratik akatsak zuzentzen ez badizkigute, gero kostatu egingo zaigu akats horiek kentzea

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

11. Euskaraz gubxi hitz egingo bada ere, esaten dena, behintzat, ondo esan behar da

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

12. Nik badut euskara ikasteko gaitasuna

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

13. Uste dut azkenean ikasiko dudala euskaraz oso ondo hitz egiten

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

14. Jendearen aurrean euskaraz hitz egiteak lotsa ematen dit

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

15. Euskaraz hitz egitean urduri jartzen naiz

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

16. Euskaltegitik kanpo ere euskaraz hitz egiteko aukera guztiez baliatzen naiz

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

17. Euskara ahalik eta gehien entzuten saiatzen naiz (irratian, telebistan...)

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

18. Euskaraz irakurtzen dut ahal dudana guztia (liburuak, aldizkariak, egunkaria...)

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

19. Orain euskaltegian egiten ari naizen ikastaroak nire beharrak asetzen ditu: nire maila eta interesei egokitua dago

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

20. Gure ikasgelan monotonia da nagusi, eta aspertu egiten naiz

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago



21. Taldeko ikasleen artean giro atsegina dago, elkarri laguntzekoa

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

22. Gelan erabiltzen ditugun ikasmaterialak aspergarriak iruditzen zaizkit

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

23. Ikusten dut aurrerapenak egiten ditudala, eta lortzen ari naizen emaitzekin pozik nago

- 1) ez nago batere ados    2) ez nago ados    3) ez dakit...    4) nahiko ados nago    5) guztiz ados nago

24. Ikasgelan hanka-sartzeak egiten ditudanean gaizki pasatzen dut

